ASTELEHENEKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-06-10
ASTELEHENA
413. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM


ERLANTZ URTASUN

## "1512a garrantzitsua izan arren, Nafarroak beste 100 urte iraun zuen independente"

**Erlantz Urtasun** | Historialaria | 7

Joxe Bixente Etxaberen ardiak mendira, Aretxabaletan barrena | 2



Arrasateko danborrada, kantu eta konpainia berriekin | 15



Hamar talde gisatu lehiaketan Elgetako Koadrilen Egunean | 11



# GIRO TXARRA, ALBISTE ONAK

Askotariko emaitzak lortu zituzten debagoiendarrek Udanan; onena, David Ardions oñatiarra, turismoetan garaile | 22

**Ruben Nogueiras oñatiarra, ibilbide hasieran, euripean.**

IMANOL SORIANO


Maren Belastegi. | IMANOL SORIANO

# Hizkuntza politika ausarta eskatu dute Uema Egunean

Aramaion ospatu zuten Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kideek urteroko festa. Barrurako giroa izan arren, Euskal Herriko hainbat txokotako lagunak bertaratu ziren, besteak beste adierazteko euskararen aldeko urratsak ematerakoan legeak ezin duela traba izan. | 12

## 'Requiem'-a, maila handiko emankizuna, mila lagunekin

Gozatu egin zuten Oñatin Mozarten obra bikainarekin | 32

## Johanssonen garaipenerako lehen urratsa, Aretxabaletan

Egubakoitzean irabazi eta azken mailota ere, suediarrarentzat | 24


Txirrindulariak helmugan. | IMANOL SORIANO

## Aitor Izagirre, Goienaren presidente berria

Karguan 13 urte egin dituen Estepan Plazaolaren ordez | 5


Egueneko batzarrean. | GOIATZ ARANA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 30 | GURE TALDEAK 33 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

# Degurixara bidean, errepide, bidegorri eta kale, ardienak

- Joxe Bixente Etxabe arrasatearrarenak dira ardiak
- Udaberriro legez, Aretxabaleta erditik pasatu dira
- Degurixa zuen helmuga artaldeak, uda igarotzeko



Joxe Bixente Etxabe, atzean artaldea Aretxabaletako hainbat lantegiren aurretik pasatze

**JULEN IRIONDO** | ARETXABALETA

Domeka; goizeko 08:00ak; ekain hasierarekin, normalean eurenak ez diren inguruneak hartu dituzte ardiek Aretxabaletan: automobilenak diren kaleak; lantegi inguruak; oinezkoen eta bizikletaz doazenen paseo-leku diren bidegorriak.

Arrasateko Muxibar baserriko Joxe Bixente Etxaberen ardiek Degurixa dute helmuga. Joxe Bixentek zaindu du Aretxabaletako erdigunetik gora-beherarik gabe pasa dela artaldea, eta autoa hartu eta badoa, ibilbideko beste puntu batera, berriz ere kontrol lanak egitera.

Urteroko ibilaldia dute hau sasoi honetan Muxibarko ardiek. Aretxabaletan, kaletarrentzat oharkabean pasa da artaldea. Horrela izaten da orain; lehen ez: "Animalien gaineko interes gehiago zuen lehengo jendeak oraingoak baino. Lehenago bai, orain ez da irteten jendea. Lehen Aretxabaletan jende dena ateratzen zen leihora, baina orain desberdina da. Animaliak ezagutzen dituen jende gutxiago dago orain lehengo aldean. Lehen, kalean ere gehienak erdi baserritarrak ziren; Aretxabaletan, baserri asko zegoen kalean. Eta animaliak dituenari gustatu egiten zaizkio animaliak. Baina, orain, ba al daki, ba, jendeak animalia zer den? Ez dakite", dio Joxe Bixente Etxabek.

**Ardiak gustura mendira**

Ardiek gustura egiten dute Degurixarako bidea, bizpahiru lagunek lagunduta; lagunduta, halabeharrez: "Ardiak deseatzen egoten dira joateko. Egongo balitz hemendik mendira zuzen joateko modua, tartean errepiderik-eta egon gabe, eurak joango lirateke, inoren beharrik gabe, zuzen; eta etorri ere egingo lirateke, eurak bakarrik, behera. Orain ere Korueta aldera eurak jaisten dira menditik, tokatzen denean".

Ardiak argiak direla dio artzainak: "Haiek dena dakite, nora joan behar duten eta, etorri behar dutenean, nora etorri behar duten ere bai. Norbera baino listoagoa da ardia". Baina euren kabuz hara eta hona ibiltzeko traba gehiegi, gaur egun: "Aretxabaletan-eta, nola pasako dira ba. Ezin dira pasatu, horrekin okerra dugu. Laguntza behar dute, derrigor".

Aretxabaletan, herri erdi-erditik pasatzen ziren lehen ardiak; alboko kaleetatik pasatzen dira orain. Etxetik Aretxabaletara, aldiz, errepidetik joaten dira; domeka goiza izaki, ez dute arazorik sortzen: "Lehen ibilita gaude Muxibarren, hor behean geundenean –etxe berria dute orain lehengoaren goialdean, Aretxabaletarako errazago–, Ertzaintzari abisatu eta ertzainak aurrean jarrita hiruzpalau urtean, baina orain neu joaten naiz, keinukariak emanda, autoarekin, ardien aurretik. Tarte txikia da Arbizelaitik Santutxura".

Era batera edo bestera, urte asko daramatza Joxe Bixente Etxabek ardiekin Degurixara joaten, artaldeak uda sasoia bertan pasatzeko. Orain 78 urte joan zen lehen aldiz: "Lehenengo aldiz joan nintzen 13 urterekin, orain ditut 91; beraz, atera kontuak. 1935ean joan nintzen ni lehenengo aldiz ardiekin. Eraman nituen lau txerri, 44 ardi batzeko. Eskuz ibili ginen gazta egiten, eskuz; orduan eskuz egiten zen egiten zen apurra".

Txerriak, txerriak aipatu ditu Joxe Bixentek. Gazura aprobetxatzeko eramaten zituen txerriak, gazta egiterakoan sobratzen zen ura aprobetxatzeko: "Gazta egin eta gero oso gustura jaten zuten txerriek gazura. Eta bentaja egin ere bai; guk han, txerriekin, sasoi baten dirua irabazi egiten genuen. Orain, ordea, ez da irabazten, eta orain ez dugu txerririk eramaten. Orain ardiekin gutxi, eta txerriekin gutxiago. Gauza aldatuta dago orain erabat", dio Joxe Bixentek.

**Salbuespena, soldadutza**

Soldadu egon zenean izan ezik, urtero joan da Muxibarkoa Degurixara ardiekin; lehen, oinez: "Orain joaten gara automobilean. Baina oinez joaten ginen lehen, astoarekin, Peñakulotik gora. Land Rover-a erosi nuenean hasi nintzen Bolibartik buelta joaten. Leixargaratetik Degurixara neuk bakar-bakarrik egin nuen bidea, neuk ordainduta. Beste inork ez zuen txakur-handirik eman, neuk egin nuen bide hori, hiru kilometro. Nahikoa erraz zegoen, eta hondeatzeko makinarekin egin nuen ia dena".

Orain hiruzpalau urtera arte, berriz, Peñakulotik gora joan izan da oinez ardiekin, haraino autoz joanda: "Hiruzpalau urte egin nituen horrela, baina orain ez naiz joaten; azken bizpahiru urteotan autoz joaten naiz. Hobeto? Badakizu, airean, nekatu gabe. Belaunetatik-eta ez nago orain mendira joateko moduan. Niri gustatu egiten zait ardiekin joatea; ni gustura joan izan naiz makilarekin ardien atzetik, euren pausoan, baina orain ezin dut joan".

Baina, autoz bada ere, Degurixara joateari uzteko asmorik ez du Joxe Bixente Etxabek: "Hiruzpalau gazta egin behar ditut mendian ardiekin. Nahi nuke egitea". Bera autoan doan bitartean, semea eta haren artzain-lagunak doaz artaldearekin oinez.

Degurixara iristea orain, lehengo aldean, errazagoa izanik, Joxe Bixentek ez du denbora luzez jarraian han zertan egon: "Orain, ardiak antzutuz gero, astean buelta bat edo bi egiten

**ESANAK**

**"Orain, ez; lehen, jende dena ateratzen zen leihora"**

**"Zuzen joaterik balego, ardiak eurak bakarrik joango lirateke"**

**"13 urterekin joan nintzen lehenengoz Degurixara"**

JOXE BIXENTE ETXABE

## Pasadizo ugari, gerra garaikoak

Degurixan ere sumatu zen Gerraren ondorioa: "Hasi zenean 14 urte nituen nik; bigarren urtea nuen Degurixan. Gerra irten zenean jendeak alde egitera egin zuen, ahal zuenak ahal zuen lekura. Zortzi gizon izan nituen nik han, txabolan, zortzi gizon. Han bada koba bat haitzean, eta egunez hara joaten ziren, eta gauerako jaitsi. Nik prestatzen nien taloa eta esnea. Hura hartu eta itzultzen ziren kobara lo egitera". Hala gogoratzen du Joxe Bixentek.


Degurixa. | BARROENLAMOCHILA



n ari dela. | JULEN IRIONDO

dugu handik. Ardiak han ibiltzen dira; ardiek euren lekua hartuta dute, ardiak ez dira euren zelaitik berrehun metro baino gehiagora urruntzen, euren zelaian ibiltzen dira. Gauean joaten dira gora, lo egitera. Han jaten dute goizean, eta berriz etortzen dira behera, Degurixa aldera. Ardiek bakoitzak bere ingurua dute, denek".

Denbora luzez Degurixan egon beharrik ez, beraz, nahiz eta Arrasateko artzainak ez lukeen arazo handirik horretarako ere; izan ere, hango bizimodua asko gustatzen: "Niri bai, asko. Ni mendian egon izan naiz gustura, oso gustura".

**Degurixa, paradisua**

Izan ere, lekua bera ere ederra da izan: "Egun baten, joan nintzen ardiengana eta banentorren eurekin goitik behera, Degurixako zelaira, eta Suzuki automobil batekin tipo bat, Gasteizkoa zen, eta hizketan hasi ginen. Galdetu nion zertan zebilen eta erantzun zidan inoiz egon gabea zela han eta esan ziotela paradisu bat zegoela han, eta ikustera etorri zela. 'Orduan ni paradisuan bizi naiz', erantzun nion".

Paradisuan bizita, etxera sarri joan beharrik ez: "Lehen, oinez joaten ginenean, egoten ginen igual zortzi egunean etorri gabe. Meza garrantzitsua zen orduan, eta Araotzera joaten ginen mezetara. Egun baten, joan nintzen San Bernardora eta abadearekin juntatu nintzen han. Ea zer nahi nuen galdetu zidan, eta esan nion, behin hara joanda, konfesatu egin nahi nuela. Galdetu zidan ea ze bekatu nuen, eta nik erantzun: 'Ze bekatu edukiko dut ba nik? Mezara huts egiteren bat edo horrelako zerbait, besterik ezer ez'. Galdetu zidan ea zenbat denbora egin behar nuen mezetara joateko, eta esan nion ordubete behar nuela, eta beste ordu eta erdi itzultzeko. 'Horrela bada ez du hainbeste inportantziarik. Nahi baduzu joan, joan; baina obligaziorik ez duzu', esan zidan".

"Goizean joaten ginen mezetara eta, taberna han behean zegoen, eta igual joaten ginen gero tabernara, zerbait jan edo bazkaldu, eta berriz ere gora gero. Etorri-aldia kristorena! Horrela ibilita gaude gu"; Joxe Bixenteren oroitzapenak.

"Orain, nahi dugunean joaten gara eta nahi dugunean etorri. Orain desberdina da. Orain bizpahiru egun egiten ditugu, asko jota, etorri gabe. Orain momentuan etortzen gara. Ordu erdi pasatxoan joaten naiz ni; nire semeak hogei minutuan joaten dira".

Baina Degurixara joateko behar den denborak bakarrik ez, beste zerbaitek ere egin du behera urteotan, eta hau ez da onerako. Artzain kopuruaz ari da Joxe Bixente: "Lehen, jendea zegoenean, lagunarengana joaten zinen, edo etortzen zitzaizun laguna bertara, kontuak kontatu eta nahi dena; orain horixe da txarra. Edozer gauza gertatuta ere, bakarrik. Lehengo konturik ez dago orain. Asteburuetan joaten da jende apur bat, baina bestela ez. Bestela han inor ez da egoten". Berak modua duen artean, baina, Degurixa ez da artzainez erabat hustuko: "Oraindik jarraitzeko nago ni; hori izan da nire bizitza, eta pozik, oso pozik".

**J. BIXENTE ETXABE**
ARTZAINA

## "Pertsonak berezkoa behar du artzain izateko, etorri bat behar du"

Joxe Bixente Etxabek (Arrasate, 1922) 78 urte daramatza ardiekin Degurixara joaten; ofizioa arriskuan ikusten du baina. Lehen zortzi ziren Andartopean gazta egiten zutenak; orain, bera bakarrik.

**Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Artzainen ofizioa badoa. Ni Degurixara joan nintzenean zortzi artzain geunden gazta egiten. Orain geu gaude bakarrik. Hau badoa, hemen ez dago zer eginik.

**Zergatik, ematen ez duelako?**

Ez duelako ematen. Eta gero, artzainak izan behar du interesatua eta bertan jaioa; artzain izateko, pertsonak berezkoa behar du. Nik ezagutzen ditut gizonak, ni baino gazteagoak, artzain ondo dakitenak, baina beste batzuek ez dakite artzain. Artzain jakin egin behar da. Jaio egin behar da artzainetarako, berezkoa behar da, ardiak ezagutzeko eta denerako, berezkoa behar da, berezko etorri bat. Batzuek badugu, eta beste batzuek ez dute.

**Etxean, jarraituko al du inork?**

Semea etxean dago, ez dakit zer egingo duen, gero ikusi behar ze egiten duen. Ematen badio bizitzeko lain, jarraituko du. Ematen ez badu, utzi egin behar. Baina beste lekuetan ere ez dago gauza handirik. Beste lekuetan ere gauza serio jarrita dago. Ez dakit zer gertatuko den.

**Artzain egiteko baldintzek hobera egingo zuten behintzat...**

Lehengo aldean diferentzia handia dago orain, artzain egitea erraza da; txabolan, etxean bezala egoten zara.

**"Semeak jarraituko du, bizitzeko lain ematen badio"**



Artaldea, bidegorrian barrena. | J.I.



Joxe Bixente Etxabe autoan, ardien aurretik. | J.I.



Artaldea basoan sartzen, Mendiola inguruan. | J.I.

ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA
09:00-14:00 Seber Altube Plaza
HILEKO 3. ZAPATUAN
2013
ekainak 15
Uztailak 20
Irailak 21
Urriak 19
Azaroak 16



Antolatzailea: ARRASATEKO UDALA AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Saila
Laguntzailea: ibai-arte Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizute.




Beñat Herce, Eskoriatzako alkatea, azalpenak ematen. | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

# "Gipuzkoa justuagoa" gura dute, parte-hartzearekin

## Zapatuan amaitu zituzten Donostian parte-hartzeari buruzko jardunaldiak

**J.B.** | ARRASATE
Parte-hartzeari buruzko *Herritarrekin* izeneko jardunaldiak amaitu zituzten Donostiako Kursaal jauregian zapatuan. Gipuzkoako Foru aldundiak Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza sortu zuen Martin Garitano diputatu nagusiaren kabinetearen baitan eta jardunaldiotan demokraziaren eta zuzeneko demokraziaren filosofia politikoa zabaltzea bilatu dute. Zapatuan, Martin Garitano diputatu nagusiak herrialdeko plan estrategikoa parte-hartzailea izango dela iragarri zuen. Jardunaldion azken egunetan Eskoriatzako eta Oñatiko ordezkariek parte hartu zuten.

Ekainaren 6an hasi eta zapatuan amaitutako jardunaldietan Latinoamerikako eta Europako adituen hitzaldiak entzuteko aukera egon da. 500 bat lagunek parte hartzeko aukera izan duten jardunaldiotan Islandiako parlamentuko kideen bisita ere izan dute.

Asteburuan udalerrietako ordezkarien txanda izan zen. Azken saio horretan ahaldun nagusiak iragarri zuen "parte hartze prozesu sakonez egindako plangintza estrategikoa" burututako dutela eta "kanpotik datozen murrizketei muzin eginez eta hurbiletik jartzen saiatzen diren oztopoak gaindituz, Gipuzkoa justuagoa" egingo dutela.

### Tokiko esperientziak

Debagoienetik, Oñatiko eta Eskoriatzako alkateez gain, udaletako teknikariak, hautetsiak eta gizarte eragileak ere izan dira jardunaldietan. Hain zuzen, ibarrean martxan dauden Oñatiko *Herrijorran* eta Eskoriatzako *Eskohitza* egitasmo parte-hartzaileen berri eman zuten alkateek. Ondorioekin, testu bateratua jaso zuten, Amets Arzallusek idatzitakoa. Bukaerako hausnarketa horretan esaten denez, "parte-hartzea kultura" bihurtzeko deia egin behar da. Chiapaseko komunitate zapatistetako herri sarreretan datorren idatzia ekarri zuen Arzallusek dei horren arrazoi modura: "Herriak agintzen du, gobernuak obeditu". Aldarrikapen gisara balio duen testuan Arzallusek jasotzen du batek "auzolan" esaten duela eta beste batek "parte hartzeko eskubidea"; hark erantsiko liokeela "eskuak, oinak eta ahotsa" behar dituela parte-hartzeak eta "boterearen mapa" zabaldu behar dela.

# Bergarako elikagai bankurako bilketa Eroskin

Bergarako elikagai bankurako jana batu zuten zapatuan Arrasateko Eroskin. *Gosea borrokatzeko kanpaina, hemen utzi zure janaria* lelopean, Gipuzkoako elikagai bankukoek olioa, esnea edo arroza batu zuten. Balorazioa positiboa izan zen, herritar dezentek kanpainarekin bat egin eta laguntasuna eman zutelako.



IMANOL SORIANO

# Kubako kontsulatua Oñatin egon zen joandako zapatuan

**JAGOBA DOMINGO** | OÑATI
Egun batez Kubako kontsulatua Oñatin egon zen. Zapatuan, Oñatiko gaztelekuan, Euskal Herrian bizi diren kubatarrek agiriak legeztatzeko eta beste tramite burokratiko batzuk egiteko aukera izan zuten. Bigarren urtez egin dute kontsulatu ibiltaria eta, hori aprobetxatuz, topaketa ere egin zuten.

Oñatiko ACESMA elkarteak antolatu zuen topaketa eta, bertan, Madrilen Kubako kontsul nagusi dena, Malluly Diaz Medina, eta Espainian bizi diren kubatarren elkarteen federazioko presidentea, Luis Perez, egon ziren.

### Erakundeak herritarrengana

52 tramitazio inguru egin zituzten goizean zehar; Diazen esanetan, herritarrek asko eskertzen duten ekimena da, erakundeak herritarrengana hurbiltzeak gauzak asko errazten dituelako.

Tramiteak egiteko Madrilera joan beharrak gastu ekonomiko altua suposatzen du, eta askotan, gainera, dokumentazio okerrarekin joan izan direla zioen Diazek. Beraz, zapatuan, Euskal Herriko kubatar askok aukera aprobetxatu eta Oñatira egin zuten.

### Kubatarren topaketa

Agiriak alde batera utzi eta jaialdiari ekin zioten eguerdian. *Kuba bihotzean* lelopean, bazkari herrikoia eta beste hainbat ekintza egin zituzten. Besteak beste, Kubako askotariko elkarteak aurkeztu zituzten eta blokeoaren desagertzeaz eta egungo egoeraz hitz egin zuten.



Kubatarrak Oñatiko gaztelekuan tramiteak egiten. | JAGOBA DOMINGO

# Iñaki Arriola, PSE-EEren Gipuzkoako idazkari nagusia, Saiolanen izan da

## Ekintzailetasunaren garrantzia nabarmendu eta Bilduren pasibotasuna kritikatu zuen

**JAGOBA DOMINGO** | ARRASATE
Iñaki Arriola PSE-EE alderdiko Gipuzkoako idazkari nagusiak Saiolan enpresa bisitatu zuen egubakoitzean. Egungo egoera ekonomikoa hobetzeko, aldaketa soziala beharrezkoa dela adierazi zuen eta, helburua lortzeko, gazteen ekintzailetasunaren eta berrikuntzaren garrantzia azpimarratu.

Idazkari nagusiarekin batera, Arrasaten izan ziren Rafaela Romero, Gipuzkoako Batzar Nagusietan sozialisten bozeramailea; Julio Astudillo eta Mikel Diez, exekutibako Ekonomia eta Mugikortasun idazkariak; eta Arrasateko sozialisten arduraduna, Paco Garcia.

### Ekintzaileak babestu

Krisiari aurre egiteko, PSE-EEk eta Bilduk 7,6 milioi euroko funtsa itundu zuten, horrela enplegua sortzen laguntzeko; baina Gipuzkoako gobernuaren pasibotasuna salatu zuten sozialistek. Arriolaren esanetan, Bilduk –eta EAJ-k Jaurlaritzan– ez du nahikoa esfortzu egin; desengainatuta zegoela zioen, krisiaren aurkako planarena oso motel doalako. Gobernu indartsuen beharra dagoela adierazi zuen sozialisten buruak, eta Saiolan bezalako enpresak babestearen garrantzia azpimarratu zuen; horrela, ekintzailetasuna bultzatuz, herri lehiakor bat sortzeko.



Aitor Izagirre, Estepan Plazaola eta Iban Arantzabal, Goienaren batzar orokorraren amaieran. | GOIATZ ARANA

# Herritarren parte-hartzea indartu gura du Goienak

Estepan Plazaolak presidentetza utzi zuen 13 urteren ostean; gogoeta estrategikoaz ere egin zuten berba eguenean Goienaren batzar orokorrean

**ZURIÑE V.D.M.** | ARRASATE

Eguenean egin zuen Goiena Komunikazio Taldeak urteko batzar orokorra. Eta bertan, 13 urtean komunikazio taldeko presidente izan den Estepan Plazaolak kargu uztea aurkeztu zuen. Haren ordez Aitor Izagirre proposatu zuten presidente izateko eta aho batez onartu zuten izendapena.

**Presidente aldaketa Goienan**

Plazaolak agur hitzak esan zituen batzarrean: "Benetan pozik noa, hedabideen eraginkortasun soziolinguistikoa indartzeko bide oso onean goazela pentsatzen dudalako. Horrez gainera, lehendakari bikaina aurkitu dugu: gaztea da, euskararen munduan guztiz txertatua dago eta kooperatiba eta gestio munduak barrutik ezagutzen ditu". Ondoren, eskerrak eman zizkien bertaratutakoei: "Ohorea izan da".

Izagirrek Goienari azaldu zionez, ilusioz egingo dio erronka berriari aurre: "Denok dakigu komunikabideen sektorea eta batez ere euskarazkoena nola dagoen, momentu gogorrak dira. Goiena beti izan da aitzindari, lan asko eta ongi egin du eta lan-ildo horretatik jarraitzea da asmoa".

**Goienaren kontuak, osasuntsu**

Bestalde, eguenean diru gaiak landu eta kontu osasuntsuak aurkeztu zituzten. Erakundeek krisiaren aurrean ondo erantzun eta "hedabideak euskararentzako estrategikoak direla ohartu" izana azpimarratu zuten. Azken urteetan erakundeen laguntzak behera egin arren, "marra gorria" ikusita, iaz mantendu izana azpimarratu dute. Hala jokatu dute udalek, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak.

**Gogoeta estrategikoa**

Inazio Arregi Tokikom elkarteko zuzendari nagusiak, ostera, datozen lau urteetarako Goienak garatu duen gogoeta estrategikoaz egin zuen berba.

Egungo errealitatea ikertuz –jendartearen eta kontsumo moduen aldaketaz jabetuta– komunikazio taldearen erronkak finkatu dituzte: "Ez dugu hedabide konbentzional bat izan gura. Gure izaera komunitarioa da, eta balioak partekatu behar ditugu elkarrekin".

Besteak beste, euskararen berreskurapen eta garapena, hedabideetan herritarren parte hartzea sustatzea eta bideak eskaintzea eta ingurunearekin konpromisoa aipatu zituen.

**Bideoa ikusteko:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

**ESANAK**

**"Hedabideen eraginkortasun soziolinguistikoa indartzeko bide onetik goaz"**

ESTEPAN PLAZAOLA
GOIENAKO PRESIDENTE OHIA

**"Goiena aitzindari izan da beti; asmoa ildo horretatik jarraitzea da"**

AITOR IZAGIRRE
GOIENAKO LEHENDAKARIA

### Euskalgintzaz konpromiso sendoa

Aitor Izagirrek (Arrasate, 1983) ongi ezagutzen du euskalgintza arloa: Topaguneko zuzendaritzan 3 urte egin zituen eta Txatxilipurdi elkartekoan, berriz, 6 urte. Laboral Kutxako Kontseilu Sozialaren barruko euskara taldean 4 urte egin ditu eta Goienako kolaboratzaile eta Erabiltzaile Kontseiluko kide izan da. Herrigintzan, toberan parte hartu du hasieratik, esaterako.

# 300 lan-elkarrizketa MUren enplegu azokan

Eguen arratsaldean egin zuten enplegu eta formazio azokak 500 bisitari izan zituen

**Z.V.D.M.** | ARRASATE

Lan bila dabiltzan edo euren formakuntza osatu gura dutenei zuzendutako azoka egin zuen eguenean Mondragon Unibertsitateak Arrasateko Goi Eskola Politeknikoaren Garaiako egoitzan.

Gazteak eta enpresak elkartu zituen azoka lau gunetan banatuta egon zen: formazio gunea, enpresen gunea, elkarrizketa gunea eta lan-poltsa eta beka gunea.

Enpresei dagokienez, azokan parte hartu zuten besteen artean, Euskadiko Kutxak, CAFek, Fagor Arrasatek, Novia Salcedo Fundazioak, Irizarrek, EITBk, Arizmendi Ikastolak, Hekimen Elkarteak zein LKSk.

**Erantzun ona**

Antolatzaileak pozik azaldu dira, eguen arratsaldean 500 lagun baino gehiago pasa baitziren azokatik. Jon Altuna MUko errektore ordeak aurrenekoz antolatutako enplegu eta formazio azokak izandako erantzunaz egin zuen berba: "Oihartzun handia izan du eta mugimendu asko egon da. Azoka bezperan ere jende ugarik kontaktatu zuen gurekin". Izan ere, azokan bertan lan-elkarrizketak egiteko aurrez eskatu behar zen ordua.

**300 elkarrizketa**

Lana bilatzen dabiltzan 300 gazteren eta enpresen artean lan-elkarrizketak sustatu zituzten.Eta gainera, enplegua bilatzen ari direnek unibertsitateko ikasle eta ikasle ohientzako stand-ak izan zituzten. Horietan, enplegu-orientazioko zerbitzua eskaini zitzaien eta unibertsitatearen lan-poltsan izena emateko aukera izan zuten. Beste stand batzuetan, azoka bisitatu zuen edozein pertsonarentzako enplegu-poltsak izan ziren.



Enplegu azokaren une bat. | VK COMUNICACIÓN

### GSR Debagoiena egoitzak 4 urte bete zituen zapatuan eta jaialdia egingo dute egoiliarrek bihar

Laugarren urteurrena egin zuen zapatuan GSR Debagoiena egoitzak eta bertako egoiliarrentzako jaialdia antolatu dute. Bihar, martitzena, izango da eguna. Lehenengo ekintza 11:00etan izango da, eta olinpiadak egingo dituzte. Arratsaldean ere zer egin edukiko dute: 16:00etan txokolate-jana egingo dute eta 17:00etan, dantzaldia Gardokirekin. Dantza saioa irekia izango da, edonork har dezake parte. Eta, horrez gainera, goizeko olinpiadetako sari banaketa egingo dute.



# Etxebizitzen alokairu-merkatua biziberritzeko bokazioa du lege berriak

## Eguenean sartu zen indarrean arrendamendu-lege berria; besteak beste, kontratuak gutxienez iraun behar duen denbora laburtzen du

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Joan den eguenetik hasita, alokairuen lege berria dago: Alokairu-Merkatua Malgutzeko eta Sustatzeko Neurrien Legea delakoa. 1994ko Hiri-Arrendamenduen Legea berritzera dator honakoa. Alokatzaileari, etxe-jabeari, orain arte baino garantia gehiago ematen dizkio.

**Epe motzagoak**

Kontratuak gutxienez iraun behar duen denbora laburtu egiten da. Derrigorrezko luzapena, lehenengo kontratuan sinatzen dena, hiru urtekoa da orain, eta ez bostekoa, orain arte bezala. Hau da, hiru urte pasatzen direnean eta ez alde batek ez besteak ez badu kontrakorik esaten eta kontratuan ez bada bestelakorik adostu, beste urte bateko luzapen automatikoa aplikatzen da. Epe hori ere motzagoa da: lehen, luzapen automatikoa hiru urtekoa zen. Hau da, denetara zortzi urteko bermea zuen maizterrak.

Hirugarren urtea ezkero, alokatzaileak eta maizterrak nahi duten errenta-igoera adostu dezakete. Orain arte, errenta derrigorrez eguneratu behar zen, eta derrigorrez KPIaren arabera.

Maizterrak erreformak proposatzen baditu, obren kostua errentatik deskontatzeko aukera dago, alokatzailearekin hala adosten badu.



Etxebizitza alokatzeko Arrasaten. | LEIRE KORTABARRIA

Maizterrak hilabete baten ez badu ordaintzen, kontratua bertan behera geratzen da eta kaleratze-prozesua has daiteke. Maizterrak hamar egun ditu ordaintzeko eskaera jasotzen duenetik. Kaleratze-prozesua hasi eta 10 egunera kaleratu dezakete maizterra. Baina maizterrak bere zorrak kentzen baditu, berriz ere kontratua indarrean sarrarazi dezake. Horrekin lotuta, alokairua ordaindu ez den kasuetako epaiketa-sententzien erregistroa sortu du Gobernuak. Etxe-jabeak berau begira dezake.

**Kontratua, erregistroan**

Kontratua bukatu aurretik etxea utzi nahi duen maizterrak hala egin dezake, sei hilabeteko gutxieneko egonaldiaren ondoren eta hilabete lehenago abisatuta. Ez du kalte-ordainik ordaindu behar izango, kontratuan kontrakorik ez bada esan. Bestalde, etxe-jabeak ohiko etxebizitza gisa eska ahal izango du hura, berak edo lehen graduko senide batek behar badu. Horretarako, gutxienez urte bete pasa behar izango da kontratua sinatu zenetik, eta maizterrari bi hilabete lehenago abisatu beharko dio.

Jabetza-erregistroan sar daiteke kontratua eta, hala eginez gero, garantia bat dauka maizterrak, etxebizitza saltzen bada. Izan ere, jabeak etxebizitza saltzen badu eta kontratua jabetza-erregistroan badago, jabe berriak kontratua errespetatu behar du. Kontratua ez badago erregistro horretan, aldiz, erosleak ez dauka errenta-kontratua errespetatzeko beharrik.

Bestalde, ekainaren 1a ezkero, derrigorrezkoa da eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria izatea etxebizitza saltzeko edo lau hilabete baino luzeagorako alokatzeko. Derrigorrezkoa da ere arrendamenduak luzatzen direnerako.

---

**Raul Jimenez** | Setaldeko zuzendari teknikoa

# "Gero eta pisu handiagoa izango du domotikak eraikuntza sektorean"

## Bakarrik bizi diren nagusiendako sistema inteligentedun proiektuak egiten ditu Setaldek

**L.K.** | ARRASATE

Eraikitzaileen eta diseinatzaileen ohiko tresna bihurtzen dabil domotoka –teknologia berriak etxebizitzaren diseinu inteligentean integratuta. Bakarrik bizi diren nagusiendako soluzio domotikoak erakutsi ditu Setalde enpresak.

**Baduzue daturik zenbat nagusi bizi diren bakarrik?**

Estatuan, 65 urtetik gorako 1.358.000 pertsona inguru, eta Donostian, 200 baino gehiago. Datu horiek nahiko kezkagarriak dira.

**Ze arrisku mota daude etxean, bakarrik bizi diren nagusientzako?**

Eguneroko gauzak dira; baina, adin batetik aurrera, ondorio larriagoak izan ditzakete. Adibidez, txorrota zabalik edo erdi itxita uztea; gas-jarioak; komunean labaintzea; botika hartzea ahaztea, medikuarekin hitzordua ahaztea…

**Domotikak zertan lagun diezaieke pertsona horiei?**

Proiektuak interesatuaren beharren arabera, kartara egiten ditugu. Adibidez, ur-ihesak detektatzeko sentsore batzuk ipin ditzakegu, etxeko ur-hornikuntza eteteko; gauza bera gasarekin. Gero, eskumuturreko batzuk ipin daitezke, norbera jausten bada telelaguntza bidez abisatzeko. Eta etxeko zenbait lekutan detektore biometrikoak ipin ditzakegu, mugimendua detektatzeko. Adibidez, norbera 10:00etan jaikitzen bada egunero eta ordu horretan ez bada mugimendurik detektatzen, seinalea bidaliko du sistemak.

**Zenbat kostatu daiteke etxebizitza bat moldatzea edo ekipatzea, seguruagoa izan dadin?**

Proiektuka lan egiten dugunez, beharren eta prestazioen araberako prezioa du. Bezeroari entzuten diogu, ahalik eta proiektu egokiena egiteko.

**Bizi-kalitatea ere hobetu dezake domotikak, ezta?**

Bai. Leihoak edo toldoak zabaltzeko sistemak daude, argiak isiotu eta itsungitzeko… Komunikazio aldetik, telebista edo bideo-atezaina ede integratu daiteke telefono mugikorrean, ordenagailuan… Argiarendako sentsoreak ere instala daitezke, barruko argia kanpotik datorrenaren arabera ajustatzeko eta dirua aurreratzeko.

**Erabiltzeko samurrak dira teknologia berri horiek?**

Proiektua egiteko momentuan, gure baloreak dira domotika sistema hori malgua, samurra eta erabilgarria izatea. Pultsadoreak edo sentsoreak bezalako elementuak ipintzen ditugu. Sistema horiek ahalik eta erabilerrazenak izan behar dira.



Raul Jimenez. | ENEKO AZKARATE

**Populazioa zahartzen den heinean, domotika sektore ekonomiko gero eta garrantzitsuagoa izango da?**

Nire iritzia emango dut. Sektore honetan aldaketa asko ikusten ditugu. Gaur egun, etxebizitza sektorea geldi dago, baina elementu teknologikoak egunero irteten dira, egunero dauden beharretara egokituta, eta pentsatzen dugu hemendik aurrera, batez ere segurtasun aldetik, pisu handia izango dutela eraikuntzan, instalazioetan… eta gero eta gehiago sartuko direla.

---

### Garaiarako diru-partida bat etorriko da Foru Aldunditik

**L.K.** | ARRASATE

Gipuzkoako aurrekontuetan, garapenerako eta enplegurako 7,6 milioi euroak nola banatu erabaki dute Garapen eta Enplegu Taldeak eta Foru Aldundiak. Tartean, iniziatiba estrategikoetarako 1.000.000 euro daude, eta Garaia berrikuntza gunerako eta MUren Basque Culinary Centerrerako partidak egongo dira.

Bestalde, lehiakortasun eta tokiko garapen lerroak 4,5 milioi inguru hartuko ditu eta tokiko agentziak lehiakorrago egiteko, tokiko ekimenak laguntzeko eta berrikuntza eta ekintzailetza laguntzeko izango dira; eta enplegu lerroan, zuzenean iraunkortasunarekin eta ongizatearekin zerikusia duen enplegua sustatzeko 2 milioi izango dira.

### Eroski Cooking gama oraingoz ez da Debagoienean salduko

Hiru minutuan gertatzeko moduko produktu-gama aurkeztu zuen eguaztenean Eroskik Basque Culinary Centerren: Eroski Cooking. "Freskoa, erraza eta osasuntsua" da, Eroskiren esanetan. Bederatzi zentrotan ipiniko dute salgai; oraingoz, Debagoienean ez. Oinarrizko platerak, saltsak eta goarnizioak bakoitza bere aldetik salduko dira.

### Merkataritza-lege autonomikoarekin jarraituko du Euskadik

Euskadin ez da merkataritza liberalizatzen duen dekretua aplikatuko, eta jarduera komertzialaren gaineko orain arteko lege autonomikoak jarraituko du indarrean; behintzat, Auzitegi Konstituzionalak EAEk liberalizazio-legeari ipini zion errekurtsoaz erabakia hartu arte. Apirilean aurkeztu zen errekurtso hori.

### Pedro Oiarzabal izendatu du Elkargik kontseilari ordezkari

Elkargiko Administrazio Kontseiluak Pedro Oiarzabal kontseilari ordezkari izendatu zuen maiatzaren 30eko batzarrean. Apirileko Batzar Nagusiak aukeratu zuen karguko. Horrekin, Elkargik bukatutzat jo du enpresaren zuzendaritzako trantsizio-prozesua. Oiarzabalek Jesus Alberdi ordezkatzen du.

**Erlantz Urtasun** | Historialaria

# "Nahiz eta 1512a garrantzitsua izan, Nafarroak beste 100 urtean iraun zuen independente"

- Nafarroaren eta Euskal Herriaren historia "ezohikoa" biltzen dihardu Erlantz Urtasunek
- Bere esanetan, "gure benetako historia erakutsiko baligute, matxinatuko ginateke"

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

*Historia de Navarra. Hechos, personas y lugares (I)* eta *Iruñsheme-iruinalabak* liburuak aurkeztu zituen joan den astean Erlantz Urtasun historialari iruindarrak.

**Jende xumearen historia kontatzen duzula diozu.**

Bai. Liburu ofizialetan, gauza handiak agertzen dira: errege-erreginen gauzak, gerra handiko gauzak… Normalean, jende xumea bazterrean geratzen da eta gurea ez da salbuespena. Gauza batzuk azaltzeko, aitatxi-amatxiekin hizketan aritzea gustukoa dut. Eta haiek kontatzen dutena ez da garai bateko prentsan agertzen zena, eta argia ematen dute. Bestalde, artxibo-lan handia dago eta, noski, gai horien inguruan argitaratu diren gauzak irakurri egiten ditut eta, jendearekin hizketan, alderatzen dut ofizialki agertzen dena.

***Historia de Navarra*-ren 1. bolumena argitaratu duzu.**

*Iruñsheme-iruinalabak* euskaraz karrikaratu dut, eta *Historia de Navarra*, gaztelaniaz, hori bai jarri dut lehen alea dela. Material pila dago; arazo bakarra da autoedizioa dela eta, beraz, poliki-poliki atera behar da. Nik pentsatzen dut liburu bat euskaraz eta bertzea gaztelaniaz urtero atera ahal izanen dudala.

**Nafarroako Erreinuaren konkistaren 500. urteurrena pasata, oraindik badago gaiarekiko interesa?**

Niretako, 1512a inoiz ez da konkista izan, Euskal Herriko lurralde batzuk 1200. urtean konkistatu zituztelakotz. Eta nahiz eta 1512a data garrantzitsua izan, Nafarroak bizi iraun zuen independente Nafarroa Beherean eta Bearnon, eta hori frantsesek 1620. urtean konkistatu zuten. Gakoa da hemen, hegoaldean, Espainiaren menpe bizi garela, eta normalean ahaztu egiten zaigu gure independentzia mantendu egin zela iparraldean. Batzuetan erraten da Euskal Herria eraiki behar dugula, eta egia da, baina gure aberria berreraiki behar dugu. Nafarroa militarki konkistatu zuten, eta hori ezin dugu onartu.

Betidanik gure gauzak ezkutatu dizkigute, gure hizkuntza, mundua, kultura ukatu dute eta beti landu behar izan ditugu ezkutuan. Orain ere, eskoletan, berdin gaztelaniaz, euskaraz, curriculumetan agertzen diren gaiak normalean Madrilek edo Parisek inposatzen dituzte. Gure gauzei buruz deus gutxi kontatzen da. Txikitandik gure benetako historia erakutsiko baligute, jendea matxinatuko litzateke.

**Lizarrako autonomia estatutua, II. Errepublika garaikoa ere lantzen duzu.**

Urte dezente pasa da eta orduko politikari eta jende erranguratsuaren arteko gutun pribatuak argitaratzen ari dira. Egia da hemengo jende anitz zintzoki aritu zela Euskal Herriaren alde, baina egia da ere goi-mailako jendearen artean egon zirela interesak. Jendeak ezagutzen ez duena hau da: Lizarrako balizko estatutua baino lehen, berez, horren bultzatzaileek independentzia proposatu zutela, eta independentzia bultzatu zuten lehenak izan zirela gero gerra zibila piztu zutenak. II. Errepublika ezkertiarra zen, hauek beldurtu ziren eta pentsatu zuten, eurak eskuindarrak izanda, Espainiatik bazihoazela. Harrigarria eta gogorra da zer egin zuten batzuek Errepublika garaian eta gero, gerran. Autonomia estatutuaren aldeko lan handia egiten ari ziren batzuk gero aritu ziren gerra zibilean gure gudarien aurka, eta justu gerran Gipuzkoa eta Bizkaia konkistatzen. Oso gogorra da, baina eskubidea dugu ezagutzeko gertatu zen guztia; batzuek jatorrak ziruditela, baina nahiko maltzurrak izan zirela eta krimenak egin zituztela.

**Nazien Gurseko kontzentrazio-esparrua ere aipatzen duzu liburuan. Ez da hain ezaguna…**

Pirinioetatik bertze aldera, Zuberoa eta Biarno arteko mugetan, ehunka euskaldun izan ziren kontzentrazio-esparruan. Ia herri guztietako norbait zegoen han. Gerra zibila galdu zuten eta saiatu ziren zer edo zer egiten beste aldean, frantsesek kontzentrazio-esparruan sartu zituzten eta, gero, preso zeuzkatenak dohainik eman zizkieten alemaniar naziei. Dena dela, naziek pentsatu zuten horiek hemengoak zirela, eta hor mantendu zituzten eta ez zituzten Auschwitz edo horrelakoetara eraman. Gure kasuan, nahiz eta eskuindarrak edo ezkertiarrak izan, pentsatu zuten gure borroka desberdina zela, nazionala, eta horregatik, ez gintuzten hil. Baina beldurgarria da zerrendak irakurtzea eta nola milaka euskaldun eduki zuten kontzentrazio-esparru hartan. Eta hainbat kasutan, jendeak ez daki. Bi pertsonak erran didate liburu hauei esker ezagutu dutela haien aitatxi non izan zen, eta horrek erakusten du merezi duela ikertzea.



Erlantz Urtasun, Ziburun. | ERLANTZ URTASUN

**"Hegoaldean ahaztu egiten zaigu gure independentzia mantendu zela"**

**"Gurseko esparruan ehunka euskaldun izan ziren, ia herri guztietako norbait"**

**"Autonomiaren alde aritu ziren batzuk gerran gudarion aurka aritu ziren"**

**Sorginkerien auziak ere landu dituzu liburuan…**

Biografia bat egiterakoan, orokorrean, nahiko erraza da gizonezkoen datuak aurkitzea, baina emakumeenak ez dira agertzen. Nik emakume baten kasua hartu dut. Izen-abizenak ematen ditut, benetan gogorra izan zelako. Inkisidoreek nahi zutena zen iraultzailea, jatorra zen jendea desagerraraztea. Nafarroa Behereko Inesa izeneko emakume baten bizitza kontatzen dut: nola Nafarroa independentean jaio zen, eta oso gaztetan Hendaiara bizi izatera joan zen. Nafarroa independentea zen artean ez genuen Inkisizioa onartu, baina Hendaia Frantzia zen eta han torturatu egin zuten, elbarri utzi zuten…Hondarribira ihes egin zuen, eta hura Espainia zen. Han berriz atxilotu eta torturatu zuten, alaba kendu zioten eta txalupa baten izan zuten Bidasoan, Hondarribia eta Hendaia artean, inon ez zutelako nahi. Ez dakigu gero zer egin zuten berarekin.

Gizonezkoak ere zigortu zituzten, baina gehienak emakumezkoak ziren eta milaka eta milaka torturatu zituzten, ehunka bizirik erre zituzten, eta ematen du ez dela ezer gertatu. Inork ez du barkamenik eskatu. Eta pentsa, herri txiki batentzako zer zen emakumeak plazan torturatzen eta bizirik erretzen ikustea. Amek alabei bakarrik transmititzen ahal zieten beldurra; eta gero gure buruari galdetzen diogu zergatik ez garen gehiago matxinatzen, afektiboki zergatik ez garen aurrerakoiagoak… Ez digute uzten.

Gauza hauek oso gogorrak dira, baina umorezko pasarteak ere badaude liburuan, irakurleei atseden pixka bat emateko.

**Euskaldunok badugu umore-zentzua, ala? Ez ote gara serioegiak?**

Bertso serioa, hausnarketa sakona egiten dutenean bertsolari bati entzutea baino gauza ederragorik ez dago. Baina txantxa bat egiten dutenean, euskaldunon artean nola gozatzen den hori! Beti izan dugu umore onerako eta ongi pasatzeko zirrikitua.

**Zu iruindarra zara eta Iruñean bizi zara. Nola bizi da abertzale bat gaurko eguneko Nafarroan?**

Bueno, inon ez da erraza; ez dut uste Gipuzkoan errazagoa denik euskalduna edo abertzalea izatea. Egia da estatuak, agintariek, indarrik handiena egiten dutela haiendako garrantzitsuena den inguruan. Lanik handiena Nafarroaren aurka egiten ari badira zerbaitegatik da, estatu afera delako Nafarroa. Nafarroan gure historia ezkutatu nahi dute, gure sentimenduak, nortasuna, gizalegea… euskara ere behin eta berriz debekatzen dute… Udaberri honetan ez dakizu zenbat gauza egin behar izan dudan sendagile euskalduna izatekotz! Baina hala eta guztiz ere, hemen gara, eta pasadizo bat kontatuko dizut: 1936an Lizarrako alkatea, Fortunato Agirre euskaldun berria, fusilatu egin zuten, abertzalea eta euskalduna izatekoz-eta. Bada, duela aste gutxi bere bi alabekin hitz egin nuen, eta zera erran zidaten, eta oso polita izan zen: ze pena ematen zien aitak egungo egoera ezagutu ez izana. Orduan lau katu ziren euskaldun berriak, eta orain begira zenbat milaka dugun Nafarroa Garaian, edozein tokitan. Den-dena aurka egiten ari badira ere agintariak, hala eta guztiz ere gora ari gara. Hau da egokitu zaiguna, ondorengo belaunaldiak libreago bizi daitezen.

## ZABALIK



**MANU ARREGI**
http://goiena.net/iritzia/

# "Crisis? What crisis?"

Urtea joan, urtea etorri, irakasle bezala badira zenbait istorio belaunaldi guztiei errepikatzen diezunak. Halako batean, 18 urterekin dedo eginez Suitzara albarikokeak jasotzera joan nintzela kontatzen diet, bi egun eta piku-ko bidaia luzean. Edozein bazterretan lo eginez eta, behin hara helduta, baserriz baserri joanez lan bila. Irabazitako diruarekin bizikleta bat erosteko asmoz. Barre egiten zidaten ikasleek orain gutxira arte. Txantxetan ari nintzela uste zuten. Aurten, berriz, ez da barrerik entzun. Sinesgarri egin zaie.

Krisi ekonomikoan murgilduta gaude 2008a ezkero. Ez da gauza ona eta jende asko dago gure inguruan, gero eta gehiago, gaizki pasatzen ari dena. Baina aurretik hasi zen beste krisi bateaz arituko naiz ni. Gauza txarra da jendea diruz larri ibiltzea. Oso txarra. Baina honen aurretik bizi izan dugun egoera ere ez zen ona. Ez dugu jakin izan gure aberastasuna gestionatzen. Etxe askotan dirua "soberan" izan denez, gure seme-alabek ez dute ikasi zein den diruaren balioa. Bizikleta bat eskatu eta hor zegoen kristoren bizikletatzarra etxeko atarian handik gutxira. Telefono mugikorrena ere harritzekoa da. Edozein gelatara joanda, nirea da mugikor kaxkarrenetakoa.

> **"Esfortzuz ikasi behar da, esfortzua eskatzen du-eta bizitzak"**

Esfortzuaren kultura galdu dugu. Eta hezkuntzan modan dauden ereduek ere badute horren errua. Entretenitu egin behar ditugu ikasleak; ondo pasatuz ikasi. Erakargarriak egin behar ditugu gai guztiak. Ados nago horrekin. Baina ahaztu gabe azken finean esfortzuz ikasi behar dela. Esfortzua eskatzen duelako bizitzak.

Joango da krisi ekonomikoa. Baina garrantzitsua da krisi hau aprobetxatzea gizartearentzat hain garrantzitsuak diren balioak berreskuratzeko. Gizartekide guztion esfortzuaren bidez, lehenago eta hobeto aterako gara zulotik. Ezin dira gauzak hain errazak izan gure gazteentzat. Heren onerako. Eta gizarte honen etorkizunerako.

## USTEAK USTE

**IBAN ARANTZABAL** | iarantzabal@goiena.com

# Presidentea

Ez da erraza izaten, eskarmentudunak ere baditugulako inguruan. Ez da erraza, konpromisoa eskatzen du-eta. Ez, ez da erraza, eguzkiari kendu behar zaizkiolako orduak, eta garesti daude egunotan. Ez da erraza, txalupatxoa zena handitu egin delako eta oso agerikoa baita egiten dugun lana, denon ahotan egotekoa. Eta erraza ez izan arren, presidente berria dugu Goienan. Gaztea da eta esperientziaduna euskalgintzan eta kudeaketan, konprometitua, euskaldunaz gain euskaltzalea, enpresa mundua ezagutzen du eta baita Arrasateko kooperatiba esperientzia ere. Arrasatear hau baino hoberik zein Goiena egon dadin gaur dagoen lekuan baino hobeto 2017an? Eskerrik asko, Aitor.

## KALE INKESTA

### Gobernua aztertzen ari da isunak jartzea bigarren aldiz koma etilikoan erortzen diren nerabeen gurasoei. Zer iruditzen zaizu?



**JOSE MARIA BAÑOS**
ARRASATE

Ez dut uste nerabeen gurasoei isunak jartzea denik irtenbidea. Gobernua, orokorrean, gaizki egiten dabil gauzak.



**CONCHI AVILA**
DONOSTIA

Gaizki iruditzen zait. Irtenbidea izan daiteke udaletxetik nerabeentzat programak antolatzea, baina ez dirua, isunak jartzea.



**JOSEAN BARREIRO**
DONOSTIA

Ez nago horren alde. Egia da gurasoek dutela erantzukizuna, baina isunak jartzeak ez du ezer konpontzen. Batez ere, hezkuntza kontua da.



**JOSE MARI ARTZAMENDI**
ARRASATE

Alkoholismoa betidanik izan da arazoa, baina horren konponbidea ez da isuna. Hobe laguntza programak antolatzea, nire ustez.

## HANDIK ETA HEMENDIK

# Nafarrak erakartzeko ala arabarrak uxatzeko ote?

**Luis Aranberri 'Amatiño'**
http://eibar.org/blogak/amatino/

Inork uste al du Euskal Autonomia Erkidegoak legebiltzar bakar bat eta ogasun bakar bat balitu, arabarrek eta bizkaitarrek hogeitabosna ordezkari izango lituzketela harako legebiltzar bakarrean?

Baina, beharbada, helburua ez da nafarrak erakartzea, arabarrak uxatzea baino.

Gorka Maneiro (UPyD) legebiltzarkideak esan berri du:

"Ez du zentzurik Euskadin lau parlamentu eta hiru ogasun izateak".

Eta zenbait egun lehenago, berriz, Lohitzune Txarola (Bildu) Gipuzkoako Batzar Nagusienetako lehendakariak:

"Ez dut uste mundua eroriko litzatekeenik Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko batzar nagusiak eta aldundiak desagertuko balira".

Hitzez hitz, behintzat, ezin esan adierazpen berdinak direnik baina musikaz, berriz, ezin berdintsuagoak.

Mutur bietatik kritika beretsua egiten zaio Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dugun erakunde-egiturari eta, ikuspegi politiko kontrajarrietatik, proposamen berbera, alegia: legebiltzar bat, jaurlaritza bat eta ogasun bat.

Ez dut uste euskal lurraldeen apologia egiteko aukerakoena naizenik eta, gipuzkoarra edo bizkaitarra izatea bost axola zaidanez gero, ezta, beharbada, susmagarriena ere.

Zer gerta ere, zilegi bekit lauzpabost hausnartxo laburbiltzea:

-Euskal lurraldeak betidanik izan dira izenaren jabe. Ez dute zer ikusirik 1833n Espainian asmatu ziren probintziekin. Horra zergatik, gurean, lurraldeen eta euren hiriburuen izenak ez diren berdinak. Axularrek mende bi lehenago aipatu lurraldeak, besteak beste.

-Izenaren jabe, historiaren jabe eta, ondorioz, hainbat legeren, araudiren eta eskubideren jabe. Mendez mendeko mataza hori dela-eta, espainiar Konstituzioak Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa aipatzen ditu eta "foru-lurraldeen eskubide historikoak" babesten eta errespetatzen ditu. Horra, beraz, sortzez behintzat, zeinenak diren zorioneko eskubide historikoak.

-Egungo Eusko Legebiltzarra, nolabait esateko, gehiago da Araba (25), Bizkaia 25) eta Gipuzkoa (25) lurraldeen "senatua", arabarren (325.000), bizkaitarren (1.150.000) eta gipuzkoarren (700.000) "kongresoa" baino.

-Labur esanda, inork uste al du Euskal Autonomia Erkidegoak legebiltzar bakar bat eta ogasun bakar bat balitu, arabarrek eta bizkaitarrek hogeitabosna ordezkari izango lituzketela harako legebiltzar bakarrean?

-Eta amaitzeko, nago, Nafarroa dezente samurrago sartuko litzatekeela orain indarrean dugun Euskal Autonomia Erkidegoan, Gorka Maneirok eta Lohitzune Txarolak elkarrekin iradokitzen duten ereduan baino.

Baina, beharbada, helburua ez da nafarrak erakartzea, arabarrak uxatzea baino.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko ediozio arduraduna** Julen Iriondo
**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**: Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**: E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04
**ISSN:** 2173-707X
**Tirada:** 5.000 ale
**Difusioa:** 4.383 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

**Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# Gaztetxoenen gustuko txokoa...

berria




**Niko gazte logela.** Ohe bikoitza, ikasleku aparta eta armairuarekin. Argazkiko altzarien neurria guztira 435 cm x 240 cm, eta prezioa **1.989 €**. Bez-a barne. Neurri eta koloreetan aukera zabala.

**Niko** gazte logelak

**www.kibuc.com** jarrai gaitzazu

**KIBUC** Gure Ametsa

gureametsa@kibuc.com
Landeta hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel.: 943 15 16 81

**KIBUC**
Azkenean gure etxean

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

**Ainara Zubillaga** | Independentea, Kultura eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia Leintz Gatzagan (2007-2011)

- Beti bizi izan da Gatzagan, eta txikia izan arren, ez luke beste herri bategatik aldatuko
- Orokorrean herritar guztien artean dagoen harreman ona aipatu eta goraipatzen du
- Gatzagan jendeak herriko merkataritzaren alde egindako apustua positiboa dela uste du

# "Orain modan dagoen arren, parte-hartzea beti izan da Gatzagako Udalaren lan egiteko modua"

**IMANOL GALLEGO** | LEINTZ GATZAGA

Herri bateko ondare preziatuena herritarrak dira, eta, Leintz Gatzaga txikia den arren, herritar handiak ditu, prestuak, atseginak. Haien artean Ainara Zubillaga (1982). Hura herrikoa da, eta, Gatzagak dituen hutsuneez kontziente den arren, herria asko gustatzen zaio.



Zubillaga, Leintz Gatzagako iturriaren aurrean. | IMANOL GALLEGO

**Nolatan sartu zinen zinegotzi eta udal munduan?**

Kremailera-zerrendengatik bi neskaren beharra zuten eta koadrilako biri zerrendetan joatea proposatu ziguten. Une aproposa zela iruditu zitzaigun eta proposamena onartu genuen.

**Gero, gazteok politikarako grinarik ez dugula entzun behar!**

Gurea ez zen politika izan. Hori toki handiagoetan gertatzen den gauza bat da. Gatzagan guztiok ezagutzen dugu elkar eta herriaren alde lan egiteko onartzen da zinegotzi lana.

**Hortaz, politikarik gabeko Udala da hau?**

Gutxi gorabehera. Herrian ez dago alderdi jakin bat eta zerrendako guztiak independente bezala aurkezten gara. Lehen esan bezala, herri txikiek jendearen premia handia izaten dute. Kolore politikoa ahaztu eta herriarekin duzun konpromisoa era aktiboan erakusteko modu polita da.

**Horrelako herri txiki batean, baina, kexak bilkura aretoan beharrean kalean jasan beharko dituzu.**

Hala da, hemen guztiok ezagutzen dugu elkar, eta, norberaren erabakiak onak direla uste arren, besteren batek ez dauka zertan horrela ikusi. Hala ere, ez dut errieta gogorrik gogoratzen. Oso kexa arruntak izaten ziren. Jendeak badaki herria hobetzeko lanean zabiltzala eta horregatik errespetatu egiten zaitu.

**Kexez gain, jendeak laguntzeko prestutasuna izango du, ezta?**

Demasekoa. Herritarrik gabe, Gatzagan ezin izango litzateke ezer egin. Zorionez, gainera, jendeak hori oso barneratua dauka eta beti dago laguntzeko prest.

**Udaletik irten ostean, herritar gisa laguntzeko aukerarik izan duzu?**

Askotan. Nire kasua berezia da; orain, herritarra naiz, baina Udala barrutik ezagutzen dudanez, aholkuak ematen saiatzen naiz. Duela gutxi Andra Mari jaiak antolatzeko bilera deitu zuen Kultura zinegotziak eta nik egubakoitzetik eguenera aldatzeko gomendatu nion. Jendeak oso aldarte ona izaten du, baina aste bukaerak sakratuak dira, eta, horregatik, hobe da astegun batean egitea. Izan ere, esperientziak soilik ematen dituen trukuak dira horiek.

> "Ez dago alderdi politikorik, hemen independente gisa aurkezten gara"

> "Udaletxe kanpotik gauzak errazagoak direla eman arren, ez da horrela"

**Hortaz, modan dagoen parte-hartzea Gatzaga funtzionatzeko era dela esango zenuke?**

Hemen, herriaren eta Udalaren arteko muga oso txikia da eta herriko jendeak laguntzeko aukera ikusten duen bakoitzean lagundu egiten du. Egia da orain parte hartzeaz asko hitz egiten dela, baina Gatzagan lan egiteko era hori izan da beti. Horretan besterik ez bada aitzindariak gara.

> "Dirulaguntzak baino garrantzitsuagoak dira herritarrak"

> "Ez dago antzokirik, hemen kultura ekintza nagusia jaiak izaten dira"

**Kanpotik eta barrutik, Udala berdina da?**

Antzik ere ez dauka! Kanpotik gauzak oso errazak direla uste duzu eta behin barruan zaudela guztia aldatu egiten da. Aurrekontua, partidak, agiriak... Guztia korapilatzen da.

**Zaila da horrenbeste instituziorekin lehiatzea?**

Gatzagan idazkariak eta alkateak hartzen dute lan hori. Haiek erabakitzen dute zein dirulaguntza eskatu, behar diren paperak biltzen dituzte...

**Gatzagarentzat zer da garrantzitsuagoa, herritarrak ala dirulaguntzak?**

Dudarik gabe, herritarrak. Haiek gabe ez litzateke herririk egongo. Dirulaguntzek proiektu puntualetarako balio dute, baina herritarrek betiko balio dute.

**Kultura antzoki, antzerki eta kontzertuekin lotzen dugu. Gatzagan ere horrela da?**

Ez, ez. Kultura ekintzek herriaren tamainaren araberakoak izan behar dute. Gatzagan antzoki batek ez luke zentzurik izango. Hemen, kultura ekintza nagusia herriko jaiak izaten dira.

**Eta gizarte zerbitzuei dagokienez, lan handia dago?**

Gatzagan jende nagusi asko bizi da eta haiek arazoak dituzte mugitzeko, arlo-lan handia dago. Zorionez, guztia kudeatzeko gizarte-langilearen laguntza izan nuen.

PEDALKA
FRANTZIAKO ALPEAK ALDERIK ALDE BIZIKLETAZ JULEN IRIONDOREKIN
GOIENA TELEBISTA | EKAINAK 13, 21:50

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# HERRIAK


Gisatu lehiaketan parte hartu zuten hamar taldeetako ordezkariak. | L.Z.


Neska-mutikoak pilotalekuan ipinitako puzgarrian. | L.Z.

ELGETA

# Gisatu onena, milizianoena

## Aterpeko festa izan zen zapatuan Koadrila Eguna, baina gisatu lehiaketara talde gehiago aurkeztu ziren

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Euriak busti zuen zapatuan Elgetako V. Koadrila Eguna, eta horrek azken orduko zenbait aldaketa eragin zituen. Umeendako puzgarria, esaterako, udal pilotalekuan ipini zuten, eta plazan egitekoa zen Luhartz taldearen erromeria Espaloia kafe antzokira eraman zuten. Iluntzean gaztetxoendako iragarrita zegoen bits festari dagokionez atzeratu egin dute. Oraindik ez da ziurra, baina litekeena da San Juan bezperan egitea.

Eguraldi txarrak herri bazkarian izan zuen eragin handiena. Ausartenek plazan bazkaldu bazuten ere, beste koadrila batzuek herriko elkarteen aterpean bazkaltzeko erabakia hartu zuten.

**Hamar gisatu lehiaketara**

Eguneko lehenengo erronka gisatu goxoena prestatzea zen, eta zapatuan hamar talde aurkeztu ziren lehiaketara. Antolatzaileak gustura daude ekimenak jaso duen erantzunarekin; izan ere, eguraldi txarra egin arren iaz baino lau talde gehiago aurkeztu dira lehiaketara. Plaza inguruko arkupeetan kokatuta, eta Udalak kazolak eta amantalak banatu ostean, sukaldariak 10:30ean hasi ziren lanean. Umore ona izan zen nagusi, eta lapiko artean nork bere maisutasuna erakusteko aukera izan zuen. Azken hitza, ordea, epaimahaiko kideena zen, eta 14:00etan dastatze lanetan ziren Maialde landetxeko sukaldari Jesus Mari Kalboetxeaga, Imanol Albizu harakina, eta herriko postari Jose Luis Olabarria.

Milizianoak taldeko kideen gisatuak jaso zuen sari nagusia. Bigarren, Pantxi taldeko neskek egin zuten, eta hirugarren Faka Faka taldekoek.

**Umeendako ekintzak**

Koadrila Eguna indartzea izan da azken urteotan Udalaren asmoa, eta helburu horrekin umeendako ekintzak ere egon dira aurtengoan. Hala, udal pilotalekuan puzgarria izan zuten umeek goiz osoan zehar. Gaztelekuak antolatuta, berriz, argazki maratoia egin zuten nagusiagoak direnek. Sei talde aurkeztu ziren ekintza horretara, eta antolatzaileek emandako gai -zerrenda eskuan hartuta -11 gai zituzten ipinita- herriko txoko ezberdinetan izan ziren, argazki onenak ateratzeko helburuarekin. Hurrengo asteotan emango dute jakitera saritutako argazkiak zeintzuk diren.

**Erromeria**

Luhartz taldeak, berriz, erromeria bizia eta euskalduna egin zuen. Adin ezberdinetako herritarrak batu ziren bertan, eta gustura ibili ziren dantzan.

### LEHIAKETAKO SAILKAPENA

1. **Milizianoak (56 puntu)**
2. **Pantxi (51 puntu)**
3. **Faka Faka (50 puntu)**
4. **Iñigo eta Ramon (48 puntu)**
5. **Jubilatuak (47 puntu)**
6. **Neta (46 puntu)**
7. **Iñaki eta Putxi (45 puntu)**
8. **90.210 (45 puntu)**
9. **Elgetar berriak (40 puntu)**
10. **Oila Express (34 puntu)**


Milizianoak taldeko sukaldariak; gisatu lehiaketako irabazleak. | L.Z.


Elgetarrak dantzan Luhartz taldearen erromerian. | L.Z.

ARAMAIO

# Jaia eta hizkuntza politika ausarten aldarrikapena batu dira Uema Egunean

Eguraldia oztopo izan zen baina euskaltzaleek ez zuten hutsik egin ekitaldiz betetako egunean

IURE EIZAGIRRE | ARAMAIO

Euskararen erabilera aldarrikatuz, egun polita pasatzeko prest zegoen zapatuan Aramaio. Uema Eguna ospatzeko ekitaldi ugari zeuden antolatuta, eta eguraldia lagun izan ez bazuten ere, goizeko suziriak, talogileek, herri kirolek, artisauek, bertsolariek eta herri bazkariak ez zuten hutsik egin.

Arratsaldean, Irrien Lagunak eta Zesuma taldearen erromeria izan ziren. Eta eguna amaitzeko, Sermondsen kontzertua.

**Eskaria ekitaldian**

13:00etan hasi zen ekitaldi ofiziala. Ramon Ajuria Aramaioko alkateak herria Ueman duela 17 urte sartu zela eta horri esker Udalak egun euskaraz funtzionatzen duela gogorarazi zuen.

Maren Belastegi Uemako presidenteak zapatukoa festarako eta aldarrikapenerako eguna zela esan zuen. Hizkuntza politika ausartak behar direla eta urratsak ematerakoan legeak ezin duela traba izan gaineratu zuen.




Maren Belastegi hitzaldia egiten, gainerako ordezkariak atzean dituela. | IMANOL SORIANO



Jendea taloa erosten, udaletxeko arkupean. | I.E.



Eguerdian plazan egindako ekitaldiko une bat. | IMANOL SORIANO



**JON BOLLAR**
AULESTI

"Urtero joaten gara Uema Egunera. Aulesti hasieratik dago Ueman eta atxikimendua erakusteko etortzen gara".



**MIRARI KORTA**
ARAMAIO

"Herrian nahikoa euskara entzuten da baina gaur beste euskalki batzuk entzuten dira, hemen ohikoak ez direnak".



**ASIER ARRIAGA**
PASAIA

"Euskararen aldarriarekin bat eginez etorri naiz gaur. Festa giroaz gozatzeko eta euskara aldarrikatzeko asmoa dut".






IMANOL SORIANO

ESKORIATZA

## Txomin Txapel eta zapatistak, batera dantzan

Egubakoitzean aerobik saioa egin zuten Fernando Eskoriatza plazan. Egun horretan herrian egiten zebiltzan bi festen programak batu zituen saioak: Huheziren Txomin Txapel festarena eta 13. Aste Zapatistarena. Txomin Txapelen jolasak, bazkaria, kantaldi parte-hartzailea eta kontzertuak izan ziren egubakoitzean. Aste Zapatistaren egun nagusia zapatua zen, baina egubakoitzean maskara mexikarren tailerra egin zuten, eta Lukas Prest taldearen kontzertua ere izan zen.

ARRASATE, ARETXABALETA ETA ESKORIATZA

# Guraso, ikasle eta irakasleek, elkarrekin, ikasturteari agur esan diote asteburuan

▶ Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako herri eskolek opor aurreko jaia egin dute

▶ Gurasoen parte-hartze berezia izan zuten bai antolaketan zein ospakizunean



Arrasate Herri Eskolako jaia, barikuan. | J.B.



Eskoriatzako Luis Ezeizako neska-mutikoak, bertsotan. | J.B.



Aretxabaletako guraso eta irakasleen *batukada*. | J.B.

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Etxeko txikienak behintzat zorioneko izan daitezke, ikasturtearen amaiera gertu-gertu daukate-eta. Azken ikastorduekin batera kurtso amaierako jaien txanda ere iritsi da eta asteburuan Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako herri eskolek jaiak egin dituzte, guztietan gurasoen partaidetza handiarekin.

**Barikuan, Arrasaten**

Arrasate Herri Eskolakoek bariku arratsalde osoa hartu zuten ospakizunetarako. Guraso Elkarteak antolatuta, Biteri plazan egon ziren haur, irakasle eta gurasoak, eta tailerrak, jolasak, karaokea eta disko festa izan zituzten neska-mutikoek jolasean ibiltzeko. Nagusientzako jana eta edana egon zen.

**'Batukada' Aretxabaletan**

Aretxabaletako eskolakoek, ostera, gurago izan zuten zapatuan herri guztia burrundararekin esnatzea. Hala, guraso eta irakasleek osatutako *batukada* ibili zen herriko kaleetatik goizean. Eguerdian bazkaria egin zuten eta ostean jolasak izan zituzten txikienek.

**Eskoriatzakoen jaia**

Berezia ere, Luis Ezeizakoek egin zutena, jaialdian eskolaren abestia estreinatu baitzuten eta gurasoen aurrean abestu. Urte amaierako jaialdian, dantzatu eta kantatu ostean, magoa izan zuten ospakizunarekin jarraitzeko.

KATAIDE LEIHOAK

Aluminiozko eta PVC-zko metal-arotzen sistemen fabrikazioa eta instalakuntza

Aluminiozko eta PVC-zko leihoak • Pertsiana sinpleak eta segurtasunezkoak • Mallorkinak • Errezel hormak • Fatxada aireztatuak

EVE Ente Vasco de la Energía
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Aprobetxa ezazu Eusko Jaurlaritzak abiarazi duen Renove plana.
1.000 eurorainoko dirulaguntzak zure leihoak aldatzeko.

Zatoz eta informa zaitez konpromiso barik.




Bulegoa / Erakusketa / Lantegia
Musakola 21, 8 Atea. 20500 Arrasate

Tel.: 609 55 61 54 - Faxa: 943 53 49 62
aurrekontuak@kataideleihoak.com
www.kataideleihoak.com



Jesus Mari eta Jose Luis Gorosabel, zapatuko omenaldian. | SEBAS ARANTZABAL

BERGARA

# Gorosabeldarrei omenaldi hunkigarria eta emozioa Hiru Txirlo Txapelketan

## Angiozarko Goimendi auzoko Jesus Mari eta Jose Luis Gorosabel omendu zituzten zapatuan Azpeitian

**JOKIN BEREZIARTUA** | BERGARA

Gipuzkoako Hiru Txirlo Boloen txapelketaren azken tiraldia jokatu zen zapatuan Azpeitian. Bakarkako zein taldekako kategorietan lehia estua izan zen nagusi; gure ordezkarien artean Sebas Arantzabal elgetarrak egin zuen posturik aipagarriena. Laugarren amaitu zuen, azken saioan hiru txirlo jotzea lortuta. Txapelketa osoan, guztira 39 txirlo jo ditu Arantzabalek, hasieran esperotakoak baino gehiago.Txapelketan parte hartu duten 80 jokalariez gain, Angiozarko Goimendi auzoko Jesus Mari eta Jose Luis Gorosabel lehengusuak izan ziren zapatuko protagonistak. Gipuzkoako Hiru Txirlo Boloen Federazioak omenaldia egin zien; garaikur bana eta emazteendako lore sorta oparitu zieten, besteak beste: "Oso onak ziren, eta lehiakorrak; *saltsero* hutsak", esan digu Sebas Arantzabalek. Bi lehengusuen ibilbidea eta anekdota batzuk kontatu zituzten eta une hunkigarriak bizi izan ziren. Erronka bota zuten, gainera: datorren urtean Gipuzkoako zirkuituko tiraldiren baten parte hartzeko asmoa erakutsi zuten.

### Sebas Arantzabal, laugarren postuan

Sebas Arantzabal elgetarra irabazteko aukerekin heldu zen azken jardunaldira: "Ez nuen espero azkenera arte irabazteko aukerekin heltzea, baina garaipena horren gertu izateak eta ez lortzeak ez du poztasun handirik ematen". Laugarren amaitu zuen, zapatuan hiru txirlo jo ostean –guztira 39 jo ditu–; Ibai Diez izan zen txapelduna, guztira 42 txirlo jo ostean. Lehia estua eta emozioa izan ziren nagusi azkenera arte, bakarkako zein taldekako kategorietan.



Arantzabal –bigarrena eskuinetik– Elgetako taldearekin. | SEBAS ARANTZABAL



BERGARA | JOSETXO ARANTZABAL

## Kartzela zaharra bisitatzen

Bergarako gaztetxearen 13. urteurreneko ekintzen barruan, bisita gidatua egin zuten atzo arratsaldean. Adin ezberdinetako 20 bat lagun elkartu ziren eta kartzela izan zeneko hainbat bitxikeria kontatu zizuten asanbladako kideek: "Polita izan da jende nagusia etorri izana; aurrerago beste bat prestatzeko aukera ireki digu", adierazi dute. Urteurreneko ekintzak domekara arte luzatuko dira.



Epaimahaikideek Jesus Aranbururen gazta aukeratu zuten. | JOKIN BEREZIARTUA



Ardo zuria, gorria zein beltza dastatzeko aukera egon zen. | J.B.

ARRASATE

# Ardo eta Gazta Eguna, euritsua baina jendetsua

## Idiazabalgo Ondramuño baserriko Jesus Aranburuk irabazi zuen gazta lehiaketa

**J.B.** | ARRASATE

Euriak ez zuen Mondra Futbol taldearen VIII. Ardo eta Gazta Eguna zapuztea lortu. Lagundu ez zuen egin, noski, baina egun osoan ia etengabe aritu arren, jende nahikoa hurbildu zen Arrasateko Herriko Plazara, 13:00etatik 15:00etara batez ere. 20 upeltegitako ardo zuria, gorria eta beltza eta 15 gaztagilek ekarritako denetariko gaztak dastatzeko aukera egon zen. Epaimahaikideek Idiazabalgo Ondramuño baserriko Jesus Aranbururen gaztari eman zioten lehen saria.

Jose Luis Ezkurra Mondrako zuzendaritza taldeko kideak balorazio positiboa egin zuen: "Ez da lehen aldia eguraldi txarra egiten diguna eta jendeak ondo erantzun du. Beraz, gu ere pozik gaude. Ardo eta Gazta Eguna hitzordu garrantzitsua da upeltegiendako eta gaztagileendako, eta baita hainbat herritarrendako ere".

# Konpainia eta kantu berriak izango ditu nagusien danborradak

▸ Besteak beste, Mondraren urteurrenaren bueltan antolatu da konpainia berri bat

▸ Umeen danborrada oraingo asteburuan aterako da; banderadunak izendatu berri dituzte

UBANE MADERA | ARRASATE

Berritasunekin eta jendetsu dator aurten nagusien danborrada. Berritasunekin bai konpainia aldetik, baita kantu aldetik ere. Eta jendetsu, azken urteotan baino herritar gehiago dabilelako parte hartzen eta parte hartzeko egin behar denaz galdezka.

"Zortzi bat konpainia seguru izango dira, 25-30 lagunekoak bakoitza. Entseguak orain pare bat aste hasi genituen eta horiexek dira, gutxi gorabehera orain arte azaldu direnak. Lehen entseguan, adibidez, *a tope* ibili ginen. Eta beste adibide bat: Zigorrolatik etorri zitzaigun eskaera, 80 lagunen konpainia bat osatzeko; eta esan behar izan genien hori ezinezkoa dela. Kontuak kontu, orain artekoak ikusita, pentsatzen hasita gaude aurten akaso guk material nahikorik izango ez dugula... Hala ere, iritsi ezean, inguruko herrietan eskatzea nahikoa da, beraz, ez legoke arazorik", kontatu du Juan Luis Arkauzek danborrada antolatzen duen SUDC elkarteko presidenteak.



Nagusien danborradak egindako azkeneko entsegua. | IBAN GOÑI



Irazola, Ozaeta, Barcenilla eta Balerdi, umeeen danborradako banderadunak. | J.B.

**Hainbat arrazoi**

Horren arrazoiari buruz galdetuta, berriz, zera erantzun du Arkauzek: "Arrazoiak? Ba batetik, aurten jende gazte mordoa animatu da. Bestetik, arrasatearrak herrian geratzea errazten duten datetan tokatzen dira Sanjuanak; eta azkenik, pentsatzen dut krisiak ere eragingo duela jende gutxiago kanpora joaterako orduan. Eta badakizu, hemen geratuz gero, errazagoa da jaietan parte hartzera animatzea".

**Konpainia berria: Mondra**

Horren guztiaren isla da bi konpainia berri (gutxienez) izango dituela nagusien danborradak.

Mondrarena izango da bata. Futbol taldearen 100. urteurrenaren bueltan antolatu dutena. 30-32 lagunek osatuko dute. "Gehienak lehen ekipoko neskak eta mutilak izango dira, 28-30 jokalari guztira, erdiak neskak eta erdiak mutilak. Mondrako kamisetekin jantzita joango dira. Konpainiako gainontzeko bostak zuzendaritzako kideak izango dira, izenen bat aipatzearren, Bittor Arriaran izango da tartean. Zuzendari nagusiaren lanak, berriz, Andoni Ezkurrak egingo ditu. Barril-joleak izango gara Mondrakoak", kontatu du Fernando Laspiurrek Mondrako zuzendaritza taldeko kideak.

**Ereserkia, plazan**

Hark aurreratu du, baita ere, Mondraren urteurrenaren harira, taldearen ereserkia danborradan jo egingo dutela, plazan, danborradaren amaieran, hain justu ere. " Bertan egunean 20:30-21:00etan afaria egingo dugu Txalaparta elkartean 80 urtetik gorako Mondrako jokalari izandakoekin (15-16 bat lagun etorriko dira, eta zuzendaritzako lauzpabost). Mondraren ereserkia moldatu egin da, danborradan zein musika bandan (hori ere Sanjuanetan jotzeko). Eta danborrada plazan amaitzen denean eta Mondraren ereserkia jotzen duenean, 80 urtetik gorako horiek balkoira irtengo dira, herriko omenaldi moduko hori jasotzera".

**Konpainia berria: Musakola**

Danborradak izango duen bigarren konpainia berria, berriz, Zigorrolatik etorriko da. Iban Goñi auzo alkatearen arabera, astoaren eta dragoiaren arteko harremana ona dela erakusteko hartuko dute parte: "Pike sanoa dago bi aldeen artean eta gure arrastoa utzi gura dugu Sanjuanetako danborradan. Gainera, Mondrak mendeurrena beteko duenez eta futbol zelaia gure auzoan dagoenez, jaiarekin bat egitea gura dugu. Auzoan proposamena zabaldu eta sekulako erantzuna jaso genuen, oso pozik gaude". Jesus Mari Apraiz izango da *astoaren konpainia* zuzenduko duena.

**ESANAK**

**"Hasi gara pentsatzen akaso material nahikorik ez dugula izango "**

JUAN LUIS ARKAUZ | SUDC

**"80 urtetik gorako Mondrakoak omenduko ditugu"**

FERNANDO LASPIUR | MONDRA

## Jaien hasiera ofiziala txosna-gunean: AEDk botako du suziria, 30 urte bete dituelako

San Juan jaietako oinarrizko guneetako bat den txosna-guneko ekintzak aurkeztu zituen joan den eguenean Txosna batzordeak. *Ez da makala izango* leloa zuten kamisetak jantzita egin zuten agerraldia eta kamiseta horiekin saiatuko dira iazko arantza kentzen. Izan ere, iaz garabi batek igo behar izan zuen makala. Iazko une arriskutsuak errepika ez daitezen makala Herriko plazan igotzeko izena eman beharko da: "Jende kopurua mugatu gura dugu, jende larregirekin arazoak sortzen dira-eta", adierazi zuten Txosna batzordekoek. Ekainaren 22an irekiko dira txosnak eta hilaren 26ra arte festa giroak ez du etenik izango: Los Chicos del Maiz, Glaukoma, Gose, Vendetta... musika talde entzutetsuen zerrenda luzea da. Egitarau ofizialaren aurkezpena bihar egingo da Seber Altube plazan.

**Herri bazkarirako 600 txartel salgai**

Egubakoitzean jarri zituzten salgai Uarkapen egingo den herri bazkarirako txartelak. Irati, Basati, Ekaitz eta Iluntz tabernetan eros daitezke, 14 eurotan. 600 txartel jarriko dituzte salgai eta txartelarekin batera kamiseta eta zapia banatuko dute. Horiek jasotzeko eta beste hainbat azalpenen berri izateko bilera egingo dute koadrilek hilaren 21ean gaztetxean. Bestalde, Txosna batzordeak gazteen inplikazioa eskatu du aurten ere: "Koadrilei dei egiten diegu, ondo pasatzeaz gain, txosnetan txandak betetzera eta jaietan inplikatzera".




Txosna batzordeko ordezkaritza Kulturateko klaustroan, egitarauaren aurkezpena egin ostean. | JOKIN BEREZIARTUA

### Publikoaren saria jaso zuen Albesek Gure Moda Gaur desfilean

Amaia Albes diseinatzaile arrasatearrak publikoaren saria jaso zuen maiatzaren 29an Donostiako Zorroaga elizan egindako Gure Moda Gaur lehiaketaren bigarren edizioan. Tablet bat eta moda aldizkari bateko urte osorako harpidetza irabazi ditu Albesek baina adierazi digunez, "onena" da bere currikulumean betirako geratuko dela. Lehiaketan Euskal Herriko 15 diseinatzaile gaztek hartu zuten parte, 35 urtetik beherakoak guztiak.

### Emakumeen sexualitatearen gaineko berbaldia etzi

Ekin elkarteak emakumearen sexualitatearen gaineko hitzaldia antolatu du etzirako, bi zatitan banatuta: *Sexualitatea historian zehar* eta *Sexu aniztasuna, maitasuna eta desioa*. Udal Sexologia Zerbitzuko Montse Velascok sexualitatearen historia izango du hizpide eta haren ostean, Maitasun sexologia zentroko Estitxu Iriondok eta Miren Navarrok hartuko dute hitza. Ekin elkartearen egoitzan izango da hitzaldia, 18:00etatik aurrera.

### Nagusiaren Astea Iturbiden, gaur hasi eta domekara arte

Gaur hasi eta egubakoitzera bitartean Nagusiaren Astea ospatuko dute Iturbide egoitzan. Egoiliarrendako denetariko ekintzak antolatu dituzte: gaur, Iturbideko koruaren saioa (18:00); bihar, Oñatiko Ikusi Makusi taldearen umorezko antzezlana –*¿Dónde está la pierna del alcalde?*– (17:00); etzi, Etxaluzen bazkaria eta dantzaldia; eguenean, danborrada (10:00) eta Alaitz taldearen kontzertua (17:30) eta egubakoitzean, amaitzeko, bolo txapelketa (10:00) eta bingo berezia (17:00).

### Bizkaiko Biraren 16. etapa antolatu du Besaidek domekarako

Besaide mendizale elkarteak Bizkaiko Birarekin jarraituko du domekan, hilak 16. Etapa berri horretan Bikotz -Gane eta Ubidea arteko ibilbidea egingo dute, guztira 19 kilometro. Antolatzaileek aurreratu dutenez, besteak beste, Itxina eta Gorbeako parajeez gozatuko dute.

Izena eman gura duenak gaur, bihar edo etzi izango du horretarako aukera, Garibai kalean Besaide elkarteak duen bulegoan. Bulegoa 19:30etik 20:30era egongo da zabalik.



Naiara aulki berriarekin, aita, ahizpa eta ia egunero harekin egoten den Mireia Gutierrez ondoan dituela. | JOKIN BEREZIARTUA

# Naiara Agreda "oso pozik" dago aulki berriarekin

Kanpotik ekarri diote aulki berria: xasisa AEBtik eta gainerakoa Alemaniatik

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Maiatzeko azken aste bukaeran heldu zen Naiara Agredaren gurpildun aulki berria. Bi hilabete itxaron behar izan dute, izan ere, xasisa Amerikako Estatu Batuetatik ekarri diote eta gainerakoa, berriz, Alemaniatik. Itxaronaldia luzea izan da, baina merezi izan du: "Itzela izan da aldaketa. Naiara oso pozik eta gustura dago aulki berriarekin. Askoz erosoagoa da", dio Almudena Viecok, Naiararen amak.

Aulki berriarekin "lau edo bost urte" irautea espero dute eta beraz, amaitutzat jo dute tapoi bilketa kanpaina. Tapoi bilketaren ostean Donostiako familia batek dirua batzeko beste kanpaina bat hasi zuen Naiararen kasua komunikabideen bidez ezagutu ostean: "Eskerrik asko lagundu diguzuen guztioi", adierazi du Viecok.

> **ESANAK**
>
> **"Itzela izan da aldaketa, aulki berria askoz erosoagoa da"**
>
> **ALMUDENA VIECO** | NAIARAREN AMA

**Elkartasun uholdea**

Garun-paralisia duen haurraren aldeko elkartasun uholdea ukaezina izan da. 2012ko ekainean hasi ziren tapoiak batzen, Arrasate eta beste hainbat herritan; 11 tona batzea lortu zuten. Gainera, zozketa eta elkartasun kontzertua ere antolatu ziren. Abenduaren 26an egin zen kontzertu hori eta gaztetxea lepo bete zen; 2.300 euro lortu ziren egun hartan.



Fiachraseko Artola eta Aldanondo kantuan, joan den eguenean. | J.B.

# Kooltur, hirugarren urtez zuzeneko saioen erreferente

Fiachrasek itxi zuen ikasturtea joan den eguenean; sarrera onari ederto erantzun zioten musikariek

**J.B.** | ARRASATE

"Balorazio ona egiten dugu bukatu berri dugun Kooltur Ostegunetako hirugarren ikasturteaz. Kurtso honetan ere kalitate eta barietate handiko proposamenak eraman ditugu gaztetxera, musika estilo eta jatorri oso desberdinekoak. Hala ere, onartu beharra daukagu aurreko bi edizioetako tendentzia, publikoak gora egitearena, aldatu eta aurten apur bat behera egin duela. Baina, oraindik aurtengo zenbakiak egin ez baditugu ere, pozteko moduko kopuruak direlakoan gaude". Iker Barandiaran Kooltur Ekintza taldeko kidearen hitzak dira.

Hiru ikasturte dira dagoeneko eguenak kalitatezko musikaz –eta noizean behin bestelako kultur ekintzez– betetzen eta ukaezina da Arrasaten, Debagoienean zein bailaratik kanpo, erreferente dela: "Poztekoa da jendeak Kooltur Ostegunak zer den ondo ezagutzea, eta Euskal Herriko musika talde askok ere eguenetako programazio berezi honen berri izatea". Musika zaleendako benetan poztekoa dena da urrian Kooltur bueltan datorrela; Bide Ertzean taldearen kantu berriak Arrasaten beste inon baino lehenago entzun ahalko dira, esaterako.

**Fiachrasekin, amaiera ederra**

Hirugarren ikasturtea Fiachrasek itxi zuen; espero moduan jende asko bildu zen –267 sarrera saldu ziren–. Kantu zaharrez gain, Sumision City Blues taldearekin batera kaleratu berri duten *single*-ko bi kantuak jo zituzten: *57 segundos* eta *Antes de marcharme*. Ordubete eskas iraun zuen; gehienendako motz geratu zen.

# Biodibertsitatea ardatz, ikasleen proposamenak udalbatzarrari

**J.B.** | ARRASATE

Urteroko ohiturari eutsiz, Arrasateko ikastetxe guztiek Eskolako Agenda 21 ekimenaren barruan hartu dute parte. Aurten biodibertsitatea izan da ikasleek landu duten gaian eta joan den eguenean udaletxeko osoko bilkuren aretoan izan ziren, udalbatzarrari ikasturtean zehar landutako ondorioen berri eman eta proposamenak luzatzeko. Proiektuak hamar urte bete ditu aurten eta denetariko gaiak landu dituzte orain arte: zaborra, ura, energia, kontsumoa, publizitatea eta elikadura jasangarria, besteak beste.

**Proposamen zerrenda luzea**

Biodibertsitateari dagokionez, hainbat proposamen irakurri zituzten ikasleek ordezkari politikoen aurrean: zuhaitz mozketak kontrolatu eta zuhaitzik ez dagoen esparru pribatuetan bertako zuhaitzak landatzeko laguntzak eskaintzea, udalerriko espazio naturalak zaindu eta babestea, baso naturalak "zorrotz" babestea –bereziki aipatu zituzten Udalatxeko eta Kurtzetxikiko artadiak–, Santa Barbara eta Monterron parkeetan bioaniztasuna hobetzen saiatzea, espezie inbaditzaileen inguruan produktu kimikorik ez erabiltzea –ondoan bizidun asko egoten direlako– eta landare inbaditzaileak zabaltzeko oztopoak jartzea, besteak beste.

Biodibertsitatea aztertu dutenean, era berean, "arazo asko" agertzen direla konturatu dira ikasleak:"Gure bizimoduarekin lotutakoak dira asko eta denok egin genezake zerbait hori guztia konpontzeko". Azken helburua, adierazi zutenez, Arrasateko bizi kalitatea hobetzea da.



Hiru ikasle, eskaerekin. | ARIZMENDI

# Euskarazko irakurzaletasun astea antolatu du Jardunek

M.B. | BERGARA

Euskarazko irakurzaletasun astea antolatu du Jardunek ekainaren 17tik 22ra, euskarazko irakurketa sustatzeko helburuarekin.

Ekimenaren baitan, aste guztian barrena euskarazko liburuak merkeago erosteko aukera egongo da. Haur, gazte zein helduen literaturan erosi ahal izango dira liburuak merkeago, Bergarako Elkar Megadendan. Hori horrela, euskarazko literatura liburua erostean, saltzaileak emandako erosketa txartela Jarduneko bulegora eraman eta deskontua abonatu egingo dute bertan, ekainaren 28ra arte. Deskontuei dagokienez, helduen literaturan %50eko deskontua egingo dute; gazteen kasuan, %3koa; eta haur literaturan, berriz, %15ekoa. Hori bai, gehienez bi liburutan aplikatuko dute deskontua pertsonako.

Umeendako ipuin kontakizuna ere egongo da hilaren 19an, eguaztena, 17:00etan Agorrosineko kanpoko igerilekuan. Eguraldi txarra egiten badu, San Martin plazan egingo .



Iazko San Martzialeko erromeria. | GOIENA

# Hilaren 13tik 19ra eska daitezke San Martzialerako mahaiak

Ohi bezala kultura etxean egin behar da eskaria, 18:00etatik 21:00etara

M.B. | BERGARA

San Martzialeko erromeria geroago eta gertuago dago, eta dagoeneko erromeriarako mahaiak eta aulkiak eskatzeko epea eguenean irekiko dute. Ohi bezala kultura etxean egingo dira eskaerak, 18:00etatik 21:00etara. eta hilaren 19ra arteko epea dago.

Mahai bakoitzaren alokairua 20 euro izango dira eta bakoitzeko, gehienez ere, zortzi aulki eskatu ahal izango dira. Bestalde, eskatzaile bakoitzak ezingo ditu bost mahai baino gehiago hartu.

Ohi bezala, eskatzaile bakoitzak 100 euroko fidantza jarri beharko du eta egindako eskaerarekin agiri bat emango zaio alokatutako materiala zein den zehaztuz.

**Bezperan hartuko dira**

San Martzial erromeria ekainaren 30ean izanda, aurreko egunean, hilaren 29an banatuko dituzte mahaiak eta aulkiak. Urtero egiten duten moduan, San Martzialeko berdeguneko sarreran banatuko dituzte, 17:00etatik 20:00etara arte.

Itzuli, berriz, erromeria egunaren amaieran egin beharko dira, 19:00etatik 21:30era, eta horretarako puntu jakin bat jarriko dute San Martzialen bertan.

Materiala entregatzen duenari, Udaleko zigilua jarriko diote, eskaera egindako egunean kultura etxean emandako orrian; izan ere, zigilatutako orri hori beharko da gero fidantzan lagatako 100 euroak jasotzeko. Alokatutako mahaiak eta aulkiak hartutako egoera berean eta ezarritako ordutegiaren barruan lagatzen ez dituenak, ez du zigilurik jasoko, eta ondorioz, fidantza galdu egingo du.

**Fidantza uztailean itzuliko da**

Fidantza jasotzeko, uztailaren 3tik 10era arteko epea jarri du Udalak –biak barne– kultura etxean, 18:00etatik 21:00etara. Gogoratu behar da, ezinbestekoa izango dela zigilua duen eskaera orria eramatea fidantza jaso ahal izateko.

# Capoeira ezagutzeko saio irekia egingo dute hilaren 15ean

Udaleko Kirol Zerbitzuek Capoeira eskolak eskainiko dituzte udako kanpainaren baitan

A.B. | BERGARA

Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzuak abian du 2013ko udako kanpaina. Ia 40 jarduera eskainiko dituzte aurten eta eskaintza berrien artean dago capoeira. Capoeira zer den jakiteko, egokiena frogatzea da, eta horretarako saio irekia antolatu dute. Ekainaren 15ean, zapatua, izango da 12:00etan Agorrosinen bertan. Senzala Euskadi Capoeira taldeak egingo du erakustaldia eta Udaleko Kirol Zerbitzuko arduradunek herritarrak animatu nahi dituzte bertara. "Ekintzak ezagutzeak, jarduera fisikoaren aukeraketa hobea egitea dakar", azaldu dute.

Capoeira jarduera fisikoa, musika eta kultura da. Capoeira adin eta maila fisiko guztietara egokitzen da; ume, gazte zein helduetara. Malgutasuna, koordinazioa, indarra eta erritmoa lantzen dira eta mugimendu erritmikoz osatutako borroka arte ikusgarria da. Capoeira eskoletan izena emateko epea uztailaren 1era arte dago zabalik.

Kirol Zerbitzutik gogorarazi dute, bestetik, gainerako jardueretan ere izena emateko epea zabalik dagoela eta oraindik plazak daudela. Informazio gehiago, *www.agorrosin.net* helbidean.



WWW.MLAGUNDIA.NET

## Mariaren Lagundiko jaia

Ikastolako Jaia ospatu zuten pasa den ekainaren 1ean Mariaren Lagundiko ikasle, irakasle eta gurasoek. Aurten gainera bultzada berezia eman nahi izan diote jaiari eta egun osoko egitaraua antolatu zuten. Eguerdian lagun arteko bazkaria egin zuten.

### Udaleku irekien gaineko bilerak egingo dira aste honetan

Izena eman duten haur guztiek hartuko dute parte aurten udaleku irekietan. Ez da beharrezko izan zozketarik egitea. Asteon gurasoentzat bilera informatiboak egingo dira. Martitzenean 18:00etan Angiozarko liburutegian; Eguaztenean Zabalotegi aretoan 18:00etan eta 19:00etan eta Osintxuko ludotekan eguenean 18:00etan.

## 'Gure esku dago' dinamika aurkeztuko dute bihar, martitzena

M.B. | BERGARA

Erabakitzeko eskubidearen aldeko ekimena da *Gure esku dago* eta maiatzaren amaieran aurkeztu zuten Bilbon eta ondoren Irungo FICOBAn. Eskozian eta Katalunian bezala, erabakitzeko eskubidea bultzatuko dute. Euskal Herria "nazioa dela, erabakitzeko eskubidea duela eta herritarrak direla protagonista nagusi" defendatzen dute.

Euskal Herriko mailako aurkezpenen ostean orain herriz herri taldeak osatu nahi dituzte eta bihar, martitzena, Bergaran emango dute plataformaren berri.

Aurkezpena Irizar jauregian izango da 18:00etatik 20:00etara. Hain zuzen ere, aldarrikapenarekin bat egiten duten herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte biharko.



EPA BERGARA HHI

## Helduen Eskolakoen partiduak

Aurten Helduen Eskolan ibilitako atzerritarren artean kriket eta futbol partidua jokatu zuten ekainak 6an Agorrosin futbol zelaian. Giro eta umore onean jokatu zituzten bi partiduak.



Jose Milikua eta haren arreba Anita, Elgetan egindako milikuatarren bazkarian, duela bi urte. | ANA MARI MARTINEZ DE ITURRIETA

# Jose Milikuaren azken borondatea bete zuten

Familiak Oñatira ekarri zituen errautsak eta hileta elizkizuna egin zion

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Jose Milikua historialariaren azken borondatea bete zuen familiak maiatzaren 31n: errautsak Oñatira ekarri eta haren aldeko hileta elizkizuna egin zuten. Milikua maiatzaren 21ean hil zen Bartzelonan, baina haren nahia errautsak Oñatin zabaltzea zen. Hala egin zuen familiak. Etxekoak eta ezagunak egon ziren hileta elizkizunean; eta baita, harekin lan egin zuten asko; besteak beste, Prado Museoko presidente ordea. Izan ere, Jose Milikua Prado Museoko Erret Patronatuko kide aukeratu zuten 1993an.

**Aita, antikuarioa**

Jose Milikua Illarramendi 1921ean jaio zen Oñatin. Gurasoak ere oñatiarrak zituen. Txikia zela, gurasoekin eta arreba Anitarekin Bilbora bizi izatera joan zen. Segituan galdu zuen hartu-eman zuzena Oñatirekin, baina herrirekiko sentimendua bizirik mantendu zuen hil arte. "Txikia zela joan zen Bilbora. Jaunartzea han egin zuen. Baina, joan den leku guztietara eta egon den pertsona guztiei beti esan izan die 'oñatiarra' zela. Horren adibide bere azken borondatea da. Idatzita utzi zuen Oñatin zabaldu gura zituela errautsak, eta horrela egin dugu", esan dio GOIENAri bere lehengusu Ana Mari Martinez de Iturratek.

Oñatitik urrun egon arren, harreman estua zuen familiarekin. Duela bi urte, milikuatarrek Elgetan egindako bazkarian egon zen (ikus goiko argazkia) arreba Anitarekin eta hainbat lehengusurekin.

Facundo Milikua aita antikuarioa zuen, eta Jose artelan artean hazi zen. Bartzelonako Unibertsitatean lizentziatu ondoren, Italia aldera joan zen 1950ean. Caravaggioren obretan nazioarteko aditu onenetarikoa bilakatu zen. Irakaslea izan zen hainbat ikastetxe eta Arte Eder fakultatetan: Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitatean, esaterako.

Prado Museoko patronatuko kide izendatu zuten 1993an. Gainera, San Fernandoko Arte Ederretako Errege Akamediako ohorezko kide izan zen.

Jose Milikua Bartzelonara ezkondu zen eta ez zuen seme-alabarik izan.

## Garbigune ibiltaria eguenero egongo da Foruen plazan, etxeko hondakin arriskutsuak batzeko

M.B. | OÑATI

Debagoieneko Mankomunitatearen garbigune ibiltaria eguenero egongo da Oñatiko Foruen plazan, 10:00etatik 21:00etara arte. Lehen bilketa ekainaren 13an egingo dute. Mankomunitateko langileek utzi eta jasoko dute garbigune ibiltaria dagokion lekutik. Hortik aurrera, bi astean behin, eguenetan, batuko dituzte etxean pilatzen diren hondakin arriskutsuak; besteak beste, bonbillak, erradiografiak, disolbatzaileak, bateriak, etxetresna elektrikoak, olio zaharrak, pilak, CDak, DVDak eta margoak.

Garbigune ibiltariak bi alde ditu: alde batean hainbat zulo daude, kolore ezberdinekin, eta bakoitzean ze hondakin sartu behar den zehazten da. Beste aldean, bi ate daude, hondakin handiagoak sartzeko.

**Informazioa banatuta**

Garbigune ibiltariaren erabileraren gaineko informazioa banatu du Udalak. Gaikako bilketa egiteko materialarekin batera banatu zuten triptikoa. Horretan, bilketaren egutegia eta ordutegia, eta eraman ahal diren hondakinak zehazten dituzte.



Garbigune ibiltaria. | OIHANA ELORTZA

Garbigune ibiltariarekin Debagoieneko herri guztietara heldu gura du Mankomunitateak. Oñatin, Bergaran eta Arrasaten dauden garbigune handiak bere horretan mantenduko dituzte.

## Fan Hemendik eguneko bazkarirako txartelak salgai daude tabernetan

Interesatuek Ona, Boga eta Arrano tabernetan eros ditzakete txartelak, bost eurotan

M.B. | OÑATI

Hilaren 15ean Fan Hemendik eguna ospatuko dute. Aurtengoa, gainera, Euskal Herrian egingo den I. Alde Hemendik Egun Nazionalarekin bat egingo du Oñatikoak. 15 herritan ospatuko dute eguna.

Askotariko ekitaldiak egingo dituzte zapatuan eta horietako bat herri bazkaria izango da. Dagoeneko salgai dituzte bazkarirako txartelak Ona, Boga eta Arrano tabernetan, bost eurotan.

**Kontzertuak**

Fan Hemendik eguna triki-poteoarekin hasiko dute. Ongi tabernan hasita, kalerik kale ibiliko dira. 14:00etan kontzertua egongo da eta 15:00etan, herri bazkaria.

Bazkal ondorengoa girotzeko, gazte olinpiadak egingo dituzte parte-hartzaileek. 19:30ean manifestazioa egongo da eta ondoren, kontzertuak, 2zio, D-pintxos, The Reckless, Marianitoz Blai eta Ez! taldeekin.



Iazko Fan Hemendik eguneko manifestazioa. | GOIENA

### Auzo-konposta egiten duten herritarrendako %25eko hobaria eskatzeko epea bukatzear dago

Auzo-konposta egiten duten herritarrek organikoa zintzilikarioetara ateratzeko aukera dute. Bada, hori egiten ez dutenek hobaria jasoko ahal izango dute. Hori horrela, hobaria eskatzeko epea hilaren 15ean bukatzen da. Uraren azken faktura erakutsi beharko dute udal bulegoetan. Aukera hori egiten dutenek %25eko hobaria jasoko dute 2013ko bigarren hiruhilekoan.

### Haur danborradaren ekaineko azken entseguak asteon egingo dituzte Errekaldeko lokalean

San Migel jaietan egingo duten haur danborrada motorrak berotzen hasi zen aurreko astean. Oraingo honetan, bi entsegu egingo dituzte: bihar, martitzena, eta eguenean, 19:00etatik 19:45era arte, Errekaldeko lokalean. Udako oporren ondoren, irailean beste hainbat entsegu egingo dituzte, irailaren 21ean danborrada egin arte.

### Buztinezko eta beira-zuntzezko eskulturak ikusgai Enpresagintza Fakultatean ekain bukaera arte

Xabier Artolozagak *La mar entre dos manos* delako erakusketa ipini du Oñatiko Enpresagintza Fakultatean. Buztinezko eta beira-zuntzezko eskulturak dira eta ekain bukaera arte ikusi ahal izango dira: 09:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 17:30era. Erakusketaren helburua unibertsitateko ateak zabaldu eta fakultatea gune ireki gisa aurkeztea da.

### Elkartasun afaria egingo dute hilaren 21ean eta dirua Dominikar Errepublikara bidaliko dute

Parrokiako Misio Taldeak elkartasun afaria egingo du hilaren 21ean Bidaurretako fraideen etxean, 20:30ean. Orain arte egindako afarietan batutako dirua Maliko proiektura bideratu dute, baina hilaren 21ean jasotako dirua Dominikar Errepublikako parrokia bat eraberritzeko erabiliko dute. Afariko menua letxuga-entsalada eta patata-tortilla izango da.



Joan den urteko *Konkis* lehiaketaren bueltan ateratako irudia. | TXATXILIPURDI

ARETXABALETA-ESKORIATZA

# Kostaldera beharrean, mendira joango dira aurtengo Udaeron

## Gazteek hiru gau pasatuko dituzte Atxorrotz eta Uxar inguruetan

**MIRIAN BITERI** | ESKORIATZA

Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek eta Txatxilipurdi elkarteak elkarlanean Udaero programa gertatu dute aurten ere 12 eta 17 urte bitarteko gazteendako, eta dagoeneko izena eman daiteke horren bueltan antolatutako ekintzetan. Ekainaren 30ean itxiko da epea.

Berrikuntza aipagarria dago aurtengo egitarauan: hain justu, uztailaren 17tik 20ra bitartean egingo dute irteera mendira izango dela; orain arte kostaldera joan izan dira. Etxetik gertu pasako dituzte gauak: Atxorrotz, Uxar eta inguruetan. Aurten ere *Konkis* lehiaketa arrakastatsua errepikatzeko asmoa daukate antolatzaileek. Horren harira, honakoa esan digu Aretxabaletako eta Eskoriatzako gaztelekuetako koordinatzaile Joseba Gabilondok: "Iaz egun bateko lehiaketa egin genuen eta aurten hiru gau izango ditugu. Telebista programa bezalakoa izango da gurea: hiru talde egongo dira eta hainbat proba gainditu beharko dituzte kanpamenduak eta erosotasunak lortzeko. Ez da konpetentziarik eta lehiakortasunik bultzatuko; gazteok naturarekin gozatzea eta mendian hiru gau inongo luxurik eta horrenbeste erabiltzen duten teknologiarik gabe egotea gura dugu. Egunerokotasunetik deskonektatu eta lagun artean lau egun igaro".

### Paint-balla, Usako eta surfa

Horrez gain, bestelako ekintzak ere izango dira. Uztailaren 4an egun osoko irteera dute: Debako Lasturrera joango dira paint-balla egitera, eta jarraian, hondartzantz abiatuko dira. Uztailaren 9an, ostera, Usakora bizikletan joango dira; bidegorrian egingo dute ibilaldia eta han ere egun osoa emango dute.

Bestalde, uztailaren 11n Zarautzen dute hitzordua, surf ikastaroa egingo dute-eta han. Azkenik, lau eguneko irteera luzeeraren ondotik, uztailaren 23an azken jaia egingo dute Aretxabaletako gaztelekuan. Urtero moduan, afaria eta kontzertuak izango dituzte.

### Prezioak

Esan bezala, Udaero programa DBHko 1. eta 4. maila arteko ikasleei zuzenduta dago eta izena ekainaren 30a baino lehen eman behar da aipatutako bi herrietako udal gazteria zerbitzuetan edo gaztelekuetan. Gabilondok nabarmendu gura izan du nahi beste ekintzatan parte har daitekeela; batean edo batean baino gehiagotan.

Horren harira, ekintza bakoitzak prezio zehatza du: paint-balla egiteko irteerak eta surf ikastaroak 15 euro balio dute; lau eguneko mendi irteerak, 12 euro; eta Usakora bizikletan joateak eta azken jaiak, ostera, bi euro. Dirua Udaero programaren harira egindako izen-emate orriarekin batera eroan beharko da lehen aipatutako tokietara.

Informazio gehiago jasotzeko honako bideak jarri dituzte gazteen eskura: eskoriatzarrendako 943 71 46 88 eta aretxabaletarrendako 943 08 10 01 telefono zenbakietara deituta; edo Internet bidez, *gazteak1@txatxilipurdi.com* posta elektronikora idatzita.

ARETXABALETA

# Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen bisita alai eta koloretsua izango dute etzi umetxoek

**M.B.** | ARETXABALETA

Etzi, eguaztena, Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin gozatzeko aukera izango dute Aretxabaletako eta inguruetako neska-mutikoek. 18:00etan, *Sentitu, pentsatu, ekin!* izeneko ikuskizuna eskainiko dute Euskal Herriko pailazo maitatuenek Herriko Plazan. Gainera, urteroko hitzordu hori debalde da.

Amona Josefinak 100 urte beteko ditu, eta pailazoak eta lagunak haren baserrira joango dira zoriontzera eta, bide batez, festa egitera. Guztiek zoriondu gura dute Josefina maitagarria. Bada norbait, ordea, festa zapuztu nahi duena, eta pailazoak hari aurre egiten saiatuko dira. Lortuko ote dute? Maitasuna eta alaitasuna nagusituko da?



Joan den azaroan pailazoek Eskoriatzan eskainitako emanaldia. | M.B.

## OHARRAK

**KONTZERTUA**
Bihar, martitzena, Aretxabaletako Leizarra musika eskolakoek kontzertua eskainiko dute Arkupeko Zaraia aretoan, 18:00etan.

**ESKULANEN ERAKUSKETA**
Hilaren 29ra arte ikasturteko eskulan ikastaroko lanen erakusketa bisita daiteke Aretxabaletan, Arkupen.

**HITZALDIA**
Etzi, eguaztena, *Nola aurreztu dirua zure etxeko fakturetan* hitzaldia eskainiko du Ibarraundin energiari buruzko praktikak egiten dabilen Eider Roa arrasatearrak. 18:30ean gazteleraz izango da eta 19:30ean, euskaraz.

**HERRI BAZKARIA**
Zapatuan Eskoriatzako Kirol Elkartearen jaia izango da eta dagoeneko salgai jarri dituzte herri bazkarirako txartelak. Herriko Akeita eta Kokots tabernetan saltzen dituzte, 15 eurotan.

ESKORIATZA

# Barikuan amaitzen da balkoiko loreen lehiaketa

## Ekainaren 18rako lehen aukeraketa egingo du epaimahaiak; zortzi leiho hautatuko ditu

**M.B.** | ESKORIATZA

Egubakoitzerako, hilak 14, gertu egon behar dute Eskoriatzako etxeetako leiho eta balkoietako loreek, egun horretan amaitzen da-eta Udalak antolatutako leiho eta balkoietako loreen lehiaketan parte hartzeko epea.

Kultura batzordekideek, lorezaintzako profesionalek, Olazar erretiratuen elkarteko kideek eta aurreko urteotan esandako lehiaketa irabazitakoek osatutako epaimahaiak lehen aukeraketa egingo du, eta zortzi balkoi eta leiho aukeratuko ditu.

Balorazioa egiteko, irizpide estetikoak hartuko dituzte kontuan, eta, bereziki, bi hauek: batetik, lore-konposizioaren bolumen eta kolore konbinazioa; eta, bestetik, leiho edo balkoiaren kokapenaren arabera egindako egokitzapena.

### Herritarren botoa

Hilaren 18tik 21era bitartean, epaimahaiak aukeratutakoen argazkiak kultura etxean eta Interneten egongo dira ikusgai, gura duenak botoa eman dezan; pertsona bakoitzeko boto bakarra onartuko da. Aurtengo irabazlea aukeratzeko hiru boto izango dira kontuan: bata kultura batzordeak emango du; bestea, Olazar elkarteak; eta azkena herri bozketatik irtengo da. Bada, horren gaineko erabakia San Pedro bezperan, ekainaren 28an, jakinaraziko dute. Eta sari bakarra egongo da: bertako produktuz osatutako saski ederra, hain zuzen ere.



Barikuko bazkarian elkartutako elgetar taldea. | L.Z.

ELGETA

# 80 urtetik gorako 38 elgetar elkartu ziren barikuan Ozkarbi elkartean bazkaltzeko

Xalbadorpe erretiratuen elkarteak gonbidatu zituen bazkaltzera; nagusiena Olei baserriko Josefa Askasibar izan zen, abenduan egingo ditu 95 urte

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Talde polita elkartu zen barikuan bazkaria egiteko. Xalbadorpe erretiratuen elkarteak antolatuta, 38 elgetarrek bat egin zuten Ozkarbi elkartean lagunartean arratsalde pasa egiteko. Guztiak ziren 80 urtetik gorakoak; nagusiena, Olei baserriko Josefa Askasibar.

13:00etan meza entzun ostean 14:00etan jarri ziren mahaiaren bueltan. 18:00ak arte luzatu zuten bazkaldu osteko tertulia. Aspaldiko lagunak ikusi, kontu zaharrak eta berriak elkarri esan... arratsalde pasa polita egin zuten. Xalbadorpe erretiratuen elkarteak behin baino gehiagotan antolatu izan du 80 urtetik gorako elgetarrendako bazkaria. Ez dute urtero egiten, baina saiatzen dira bi edo hiru urtean behin herriko nagusienei omenaldi txiki hori egiten. "Adineko jende ugari dugu herrian", esan du Xalbadorpe elkarteko presidente Pedro Mari Uberak. "Askogatik, emakumezkoak gehienak", egiten du barre. "Guztiak gonbidatzen ditugu, baina adinarengatik, etxetik irten ezin dutelako edo beste zenbait konturengatik beti gelditzen dira batzuk etorri ezinik. Aurten ere 42 ziren bazkaltzera etortzekoak; azkenean 38 etorri dira".

Elgetako erretiratuek Ferixa Nagusiko jaietako barikuan, ekainaren 28an, dute eurendako propio antolatutako hurrengo ekitaldia. Meza entzun, taldeko argazkia atera, eta bazkaria egingo dituzte. Dantzaldia Jose Gardokik egingo du aurten.

**Hitzaldia gaur, 18:00etan**

Nola egiten da testamentua? Zertan datza herentziak?... Antzerako galderei erantzuna emateko hitzaldia antolatu du Xalbadorpe erretiratuen elkarteak Elgetako Udalarekin elkarlanean. Gaur, astelehena, egingo dute, 18:00etan hasita udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Hizlaria Arrasateko notaritza bulegoko Jose Luis Amerigo Gartzia izango da. Antolatzaileek jakinarazi dute saioa herritar guztiei dagoela zabalik.

**Hilaren 20an irteera Iruñara**

Erretiratuendako, bestetik, egun osoko irteera antolatu du Xalbadorpe elkarteak Iruñara. Ekainaren 20an, eguena, egingo dute eta, antolatzaileek jakinarazi dutenez, 08:30ean abiatuko dira Elgetatik. Goizean hiria ikusiko dute bisita gidari batekin, eta ondoren bazkaria egingo dute bertako jatetxe batean.

ANTZUOLA

# Ekain Larrea eta Miren Legorburu izan dira lehenak Iralako igoeran

13 haurrek hartu dute parte kilometro bateko erlojupekoan; erdiek azken metroak egin dituzte

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Aurreko urteetako eguraldia izan ez bazen ere, zapatuan egin zuten Iralarako igoera, eta 13 haur eta gaztetxok hartu zuten parte. Aurten iaz baino neska gutxiago animatu ziren, bi besterik ez ziren-eta egon irteera marran.

Helmugako marka zeharkatzen lehena Ekain Larrea izan zen, 3:52 denborarekin. Nesketan helmugaratzen lehena berriz, Miren Legorburu izan zen, 6:42 denborarekin.

Iralarako igoera kilometro bateko erlojupeko proba da, eta aurtengoan parte-hartzaileen erdia inguruk egin zuten distantzia hori. Adin ezberdinetako haurrek hartu ohi dute parte eta txikienendako ibilbide laburragoa aurreikusten dute. Zapatuko proban 5-6 urteko umeak izan ziren eta ibilbidearen azken metroak bakarrik egin zituzten.

**Zapatuan hurrengoa**

Bizikleta zaletasuna dutenek ez dute atseden hartzeko denbora askorik izango; izan ere, datorren zapatuan jokatuko da hurrengo proba. Eguerditik aurrera Uzarragako igoera izango da.

Hori pasata, beste bi proba bakarrik geratuko zaizkio challengeen denboraldiari: Kalebarrengo jaietako ginkana, ekainaren 22an, eta San Martzialgo igoera, ekainaren 30ean.

ARAMAIO

## La Bossa Nostra talde gasteiztarraren musika brasildarra hilaren 14an Sastiñan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Udaleko Kultura Sailaren eskutik, La Bossa Nostra taldeak kontzertua eskainiko du egubakoitzean Sastiñan (20:00). Raul Vera, Sonia Vera eta Josu Jungituk osatzen dute taldea eta musika brasildarra –bossa nova moduan ezaguna– eskainiko dute. Gasteiztik datoz eta eskarmentu handiko musikariak dira; Sonia Vera abeslariaren ahots gozoak gidatuko du saioa eta goi mailako musikariak izango ditu ondoan: Raul Vera gitarrarekin arituko da eta Josu Jungituk beste hainbat instrumentu joko ditu.

**Inprobisaziorako tartea**

Modu akustikoan aurkeztuko dituzte kantuak eta inprobisaziorako tarterik ez da faltako emankizunean.



La Bossa Nostra taldea. | LA BOSSA NOSTRA

## Nafarroara irteera hilaren 21ean Alaiak elkartearen eskutik; izena emateko azken eguna, ekainak 14

Alaiak erretiratu elkarteak Nafarroara irteera antolatu du hilaren 21erako. Metauteneko trufa museoa eta Arroitzeko errota bisitatuko dituzte, besteak beste. Bi bisiten artean Lizarrako Navarra jatetxean bazkalduko dute. Izena emateko azken eguna egubakoitza izango da, hilak 14: interesatuek 30 euro sartu beharko dute Alaiak elkartearen kontuan, Laboral Kutxan. Autobusa goizeko bederatzietan irtengo da Aramaioko autobus geltokitik eta iluntzera arte ez dira herrira bueltatuko.

LEINTZ GATZAGA

# San Juan gaua prestatzen hasiko dira oraingo astean

Sua, dantzak, jokoak...egitea da asmoa, eta besteak beste, dantzen "ikastaro trinkoa"

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Konturatu orduko San Juan gain-gainean dugu. Eta Gatzagan hori ere agerikoa da. Adibide moduan, Gurel elkarteak oraingo astean du asmoa ospakizun horren bueltako ekitaldiak antolatzen hasteko. "Udalak afaltzeko jartzen dituen sardina eta saiheskien ostean, 22:00ak inguruan sua pizten da, eta dantzak egingo ditugu orduan", kontatu du Inaxio Gabilondok, Gurel elkarteko kideak. Eta hain zuzen ere, dantza horiek ikasteko edo entseatzeko (norberaren beharren arabera), "ikastaro trinkoa" egingo dute. "Iaz Zazpi Jauzi, biribilketak…egin genituen eta oso ondo irten zen. Antzerako zerbait egiteko asmoa dago aurten, eta dantza horiek erakustea da ikastaroaren helburua. Arratsalde bakar batean egingo dugu ikastaroa, Joserraren gidaritzapean. Interesa duenak Labidean eman behar du izena. Dena dela,ez dago kopuru aldetik inongo mugarik", gehitu du Gabilondok.

Bestalde, dantzez gainera, jokoak ere antolatu izan ditu Gurelek San Juan gauaren bueltan, eta aurten ere badute horretarako asmoa: "Sua baino lehenago egiten ditugun jokoak dira, gaztetxoendako prestatutakoak. Aurten, gainera, joko zaharren bat (igela-edo) ekartzeko asmoa ere badugu".

**Udalekuak**

Bukatzeko, Gabilondok gogora ekarri du udalekuetarako izenemate epea oraingo egubakoitzean bukatuko dela; "10 lagunek eman du izena dagoeneko", kontatu du.

# Bazkideentzat abantaila esklusiboak




## Eraman ezazu beti txartela aldean!




## GOIENA KLUBEKO BAZKIDEEI HONAKOA DUGU ESKAINTZEKO EKAINEAN

### KONTSOLA

Wii kontsola dugu zozketatzeko!

EROSKI




**Parte hartzeko**

Wii
BaserriSarea
Arrikrutz
Argia
Bertikal
Liburu sorta

**SMS:** KLUBA [SARIAREN IZENA] [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira
**Telefonoz:** 943 25 05 05
**E-postaz:** *kluba@goiena.com*
**WhatsApp bidez:** KLUBA [SARIAREN IZENA] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

**Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.**

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

### BASERRISAREA .COM

DEBAGOIENEKO BASERRI SAREAri esker baserriko produktuez osoturiko 4 otar zozketatuko ditugu.

Debagoiena BASERRI SAREA



### ARRIKRUTZ

Hilero bezala, Arrikrutz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.

ARRIKRUTZ oñatiko kobak




### BAZEN BEHIN... BIZITZA

Bazen behin... bizitza jokoa irabaztea nahi? Bi joko ditugu zozketatzeko.

argia




### BERTIKAL.COM

Bertikal joko berria gazte zein helduentzako. 5 joko ditugu zozketatzeko.

bértiKal




### LIBURU SORTA

Ipuinez osatutako umeentzako bost liburu sorta bikain.

argia PAMIELA



**DESKONTUAK:** ***www.goienakluba.com***

NINIKA LURADENDA | ALZU | Esko Sport | JAIXAK disfrutatzeko oparixak | LiLURA EDERTZE INSTITUTUA | lastai
AVIA Estación de Servicio ERRASTI | BEGIONDO | Etxe-Aundi Hotela Jatetxea | gahir fisioterapia osteopatia | GAES Centros Auditivos Entzumen zentruak | Guztiz ederra | naren
MULTIÓPTICAS lehena zerbitzu optikoetan | ARRIKRUTZ oñatiko kobak | IMPRESPAL INPRIMATEGIA | kuttuna ESTETIKA ZENTROA | Izotz Jauregia TXURI-URDIN
Biotika | caravanas oñate | DONOSTIA SAN SEBASTIAN AQVARIVM | PEUGEOT OÑATI GARAJEA | eureka! zientzia museoa | argia



**Beste abantaila batzuk:**
- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.

goienakluba" Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: **50 €.**
**943 25 05 05**
*kluba@goiena.com*
*goienakluba.com*

# KIROLA

AUTO IGOERAK

# Ardions oñatiarra onena Udanan, turismoetan

▸ Monoplazetan Arakistainek egin zuen denbora onena

▸ Euria etengabe aritu arren, ez zen istripu larririk izan

**JOKIN BEREZIARTUA** | OÑATI

Aitor Arakistain eibartarrak egin zuen denborarik onena VIII. Udanako igoeran (2:44,991). Lasterketaren berri emateko prentsaurrekoan antolatzaileek iragarri zutenez, Aitor Zabaleta zen faborito nagusia baina pilotu bergararrak ez zuen eguna ona izan. Entrenamendurako saioan istripu txiki bat izan zuen irten eta berehala eta bigarren igoera ofizialean irtetzeaz bat erretiratzea erabaki zuen. Albiste pozgarria David Ardions oñatiarrak eman zuen: etxean lehiatzen eta berea ez zen auto baten, azkarrena izan zen turismoetan (2:53,006).

Euskadiko auto igoeren txapelketako hirugarren proba puntuagarria izan zen zapatukoa.

**Euriak baldintzatutako igoera**

Euria izan zen eguneko protagonista nagusia, ez zen geratu ere egin lasterketa osoan zehar. Ohi baino zaletu gutxiago gerturatzea eta pilotuek kontu handiz gidatu beharra eragin zuen euriak, eta horrek ikuskizunari kalte egin zion. Gidari batek baino gehiagok esan zigun kontu handiz egin zutela ibilbidea eta hanka azeleragailutik ohi baino sarriago altxatu behar izan zutela.

Gertaeren artean, Zabaletaren istripu txikiaz aparte, Mitxel Iribarrenek motorra hautsi eta olio guztia isuri izana izan zen aipagarriena. Antolakuntzakoek sepiolita izeneko sustantzia bota behar izan zuten 200 metrotan, olioak arazorik sor ez zezan. Horrek guztiak lasterketaren jarduna atzeratu zuen.

Iaz apiril amaieran egin zen Udanako igoera eta lasterketa bustia izan zen iazkoa ere. Horregatik aurten ekainean antolatzea erabaki zuen Oñatiko Motor taldeak, eguraldi hobea egingo zuenaren esperantzaz: "Ez dakit zer gertatzen den Udanako igoerarekin. Apirilean edo ekainean antolatu, euria egin digu azken bi urteetan. Datorren urtera begira zerbait pentsatu beharko dugu", adierazi zuen Sergio Gil antolakuntzako kideak. Kirol arloari dagokionez, ondo joan zen lasterketa. Hala baieztatu ziguten antolakuntzako kideek Oñatiko Foruen plazan egin zen sari banaketa ekitaldiaren ostean: "Egin duen eguraldia kontuan hartuta nahiko azkar joan da lasterketa. Kolperen bat edo beste izan da, baina ezer garrantzitsurik ez", esan zigun Sergio Gilek.

**Lasterketa polita eta segurua**

Pilotuei asko gustatzen zaien igoera izaten da Udanakoa. Duela bi urte, baina, auto batek zaletu batzuk harrapatu zituelako izan zen albiste lasterketa. Segurtasun neurriak zorrozteko inflexio puntua izan zen eta antolakuntzako kideek aitortu digute zaletuek bereganatu dutela puntu batzuetan ezin direla jarri. Federazioak ere baliabide gehiago jarri ditu –segurtasun autoa, besteak beste– eta zaletu, antolatzaile zein federazioko kideen artean lortu da segurtasunean hobetzea.



Aitor Arakistain lehen paellan; denbora onena entrenamenduan egin zuen pilotu eibartarrak




David Ardions oñatiarra lehen paellara heldu aurretik. | IMANOL SORIANO



**DAVID ARDIONS**

OÑATI/ RENAULT CLIO SPORT

"Ez nuen egin dudan denbora espero. Erabili dudan autoak beste batzuk baino zaldi gutxiago ditu. Etxean lehiatzea berezia da eta beraz oso pozik nago. Eskerrak eman gura dizkiot Enrike Gomezi autoa utzi didalako".



**ANDER CORCUERA**

ARRASATE/ VW GOLF GTI

"Errepidea bustita egon da igoera osoan, eta hori denon kalterako izan da: antolatzaileak, ikusleak eta gu. Ez dut lehen postuetan amaitu baina asko gozatu dut lasterketarekin. Denbora hobetu zitekeen, baina ezin naiz kexatu".



**SERGIO GIL**

ANTOLAKUNTZA

"Alde ederra dago Udanako igoera eguraldi onarekin edo gaur [zapatuan] egin duenarekin egitearen artean. Jende gutxiago etorri da, nabarmen, eta orain diru kontuak nola berdindu aztertu beharko dugu".



Hiru azkarrenak Oñatiko Foruen plazako podiumean. | JOKIN BEREZIARTUA

26 | ESKORIATZA K.E. | Denboraldi amaierako ospakizuna egin dute



(2:44,365); bigarren txandan egin zuen denbora ofizial onena (2:44,991). | IMANOL SORIANO

**AITOR ARAKISTAIN** | VIII. UDANAKO IGOERAKO IRABAZLEA

## "Euria beti izaten da zailtasun bat; errepidean beldur edo errespetu puntu hori izatera behartzen gaitu pilotuok"



J.B.

Bigarrenez hartu du parte Aitor Arakistain eibartarrak Udanako igoeran. Pozik zegoen egindako lanarekin, batez ere euriarekin dena ondo irten zitzaiolako.

**Zorionak garaipenagatik, hasteko. Pozik egindako lanarekin, ezta?**

Eskerrik asko. Bai, pozik. Eguraldi honekin gauzak ondo irtetea ez da erraza izaten. Entrenamendurako igoeran lan ona egin dugu, oso denbora ona. Lehen igoera ofizialerako, berriz, proba batzuk egin ditugu, autoan aldaketa txiki batzuk eginda. Hobetzea genuen helburu baina atzerapauso handia izan da; 14 segundo gehiago behar izan ditut helmugara iristeko. Hala, azken igoeran entrenamendu saioko planera bueltatu gara eta orduko denbora bera egin dugu. Denbora hori nahikoa izan da lasterketa irabazteko.

**Aitor Zabaleta bergararra zen faborito nagusi. Zure ustez, zergatik ez dira aurreikuspenak bete?**

Hasteko esan beharra daukat Aitor Zabaletak duen meritua ikaragarria dela. Baina gaurkoan euriak ez du bere alde jokatu. Euria egiten badu Zabaletaren autoa gurea baino okerragoa da; giro honekin guk abantaila daukagu haren autoaren ondoan. Hala ere, lehiatu den moduan lehiatzeak meritu handia dauka.

**Euriak noraino baldintzatzen du halako lasterketa bat?**

Euria beti izaten da zailtasun bat, arriskua handiagoa izaten da. Euriak beldur edota errespetu puntu hori izatera behartzen gaitu, segurtasun neurri gehiago hartzen ditugu. Zertarako? Batez ere ezer ez apurtzeko. Baina gaurkoan [zapatuan] hala tokatu da eta ez dago sekretu handirik: lana ahalik eta ondoen egiten saiatu, autoa ahalik eta ondoen prestatu eta egurra, ez dago besterik.

**Gustatzen zaizu Udanako igoera?**

Bai, igoera polita da. Aurten bigarren aldiz hartu dut parte. Iaz ere ura izan zen protagonista eta Udana, euria egiten badu, oso irristakorra da. Beste igoera batzuekin alderatuz gero, esango nuke askoz irristakorragoa dela.

### IGOERAKO AZKARRENAK

**MONOPLAZAK**

| | | |
|---|---|---|
| 1. | Aitor Arakistain | 2:44,991 |
| 2. | Joseba Iraola | 2:46,862 |
| 3. | Arkaitz Ordoki | 2:50,005 |
| 4. | Aitor Zabaleta | 2:51,887 |
| 5. | Ruben Nogueiras | 2:55,647 |

**TURISMOAK**

| | | |
|---|---|---|
| 1. | David Ardions | 2:53,006 |
| 2. | Txus Jaio | 2:53,088 |
| 3. | Jon Etxeberria | 2:53,776 |
| 4. | Jose Ignacio Erdoiza | 2:58,530 |
| 5. | Ander Corcuera | 3:00,400 |
| 6. | Ekain Eizagaetxebarria | 3:00,997 |
| 7. | Aitor Arnaiz | 3:03,998 |
| 8. | Gorka Idigoras | 3:05,007 |
| 9. | Alberto Murillo | 3:05,795 |
| 10. | Aitor Frutos | 3:06,082 |



Aitor Zabaletak istripu txiki bat izan zuen entrenamendu saioan. | IMANOL SORIANO



Zaletuek denetariko estalkiak erabili zituzten euritik babesteko. | IMANOL SORIANO



Ander Corcuera pilotu arrasatearra irteera puntuan. | IMANOL SORIANO



Lehiarako prestatzen. | IMANOL SORIANO

EMAKUMEEN BIRA

# Aretxabaleta, Johanssonen garaipenaren abiapuntu

- Hirugarren etapako denborari esker, Bira irabazi du
- Debagoieneko etapa biren kontrako kontua izan zen



Emma Johansson helmugara iristear; atzean ikus daiteke Longo-Borghini, esprintean

IURE EIZAGIRRE | ARETXABALETA

Emma Johansson eta Elisa Longo-Borghiniren arteko lehia etengabea izan da aurtengo Emakumeen Biran. Lasterketak iraundako lau egunetan, Urduñan egindako 3. etapako erlojupekoan bakarrik izan dira aldeak bien artean eta horrek erabaki du Emakumeen Birako irabazlea. Johanssonek 38 segundo atera zizkion Longori erlojupekoan. Lasterketa amaituta, hori da sailkapen orokorrean bien artean dagoen aldea, azken etapan Longo lehena helmugaratu bazen ere, Johanssonek denbora berean zeharkatu zuelako helmugako marra.

UCIko sailkapeneko buru eta txapeldun olinpikoa den Marianne Vosek irabazi zuen lehen etapa eta aurten ere Bira irabazteko aukerak izan zitzakeela zirudien. Aretxabaletan jokatutako bigarren etapan, ordea, 26 segundo galdu zituen eta ordutik aurrera lehia Johansson eta Longoren artekoa izan da.

### Bira Aretxabaletan

Egubakoitzean pasa zen Emakumeen Bira Debagoieneko hainbat herritatik. Lasterketako bigarren etapa Aretxabaletan hasi eta amaitu zen, eta tartean txirrindulariek Gatzaga eta Udana igo behar izan zituzten.

Txirrindulariekin batera, tximista, trumoia eta euria izan ziren bigarren etapako protagonistak. Aretxabaletarren txalo zaparradarekin moztu zuen Ana Bolinaga Aretxabaletako alkateak lasterketako zinta, eta txirrindulariek ehunka herritarrek eskainitako berotasun berarekin ekin zioten lasterketari.

Bigarren etapa izan zen Birako luzeena eta txirrindulariek egin beharreko 103,5 kilometroei denek batera eman zieten hasiera. Lisa Brennauer eta Marta Bastianelli hasi ziren lasterketa mugitzen kilometro gutxira eta Udanako mendatetik pasa zirenean bi minutuko aldea ateratzen zioten aurrekoek pelotoiari.

Deskargatik jaisten, Elisa Longo, Marianne Vos, Tifani Cromwell eta Emma Johansson batu zitzaizkien aurreko biei. Gatzaga igotzen, baina, Emma Johansson eta Elisa Longo bakarrik geratu ziren lasterketaren buruan. Marianne Vos saiatu zen Deskarga jaisterakoan eurak harrapatzen, baina ezinezkoa izan zitzaion; hurrengo etapetan izan duen beheraldiari ekin zion une horretan.

Etaparen amaierara ere Johansson eta Longo batera heldu ziren eta Aretxabaletako kaleak, eta han batutako zaleak, izan ziren bien arteko sprintaren lekuko. Azkenean, Johansson helmugaratu zen lehena, 2:35:59-ko denborarekin. Longo bigarren heldu zen denbora berarekin eta Vos izan zen hirugarren 26 segundo beranduago.

### Emakumeen Astean

Emakumeen Birako etapa hau Aretxabaletan egiten ari diren Emakumeen Astearekin batera etorri da. Ana Bolinaga alkatea pozik zegoen etaparen amaieran: "Emakume txirrindulariak egon badaudela erakutsi du Birak, eta maila onean gainera. Berdintasunaren bidean pausotxo bat izan da: harrotasunez egin dugu, xume -xume".

Ez da, ordea, txirrindulari lasterketako etapa izan Emakumearen Astearen barruan kirolarekin lotutako ekitaldi bakarra. Izan ere, eguenean emakumea eta kirolaren gaineko mahai-ingurua egin zuten eta gonbidatuen artean egon zen Leire Olaberria txirrindularia. Gainera, emakumeek kirolean duten lekua erakusteko argazki-lehiaketa antolatu dute.



**ROBERTO ETXEANDIA**
ARETXABALETA

"Jendea egon da eta nik uste dut gustura egon direla, gauza berri bat izan delako neskak ikustea lasterketan".



**BEGOÑA ELKOROBARRUTIA**
LEINTZ GATZAGA

"Lasterketan atera direnak oso gogorrak dira. Holako gauzak politak ikustekoak dira eta ea hemen ere neskak animatzen diren".



**ALAITZ, NORA, XUBANE,GARAZI**
ARETXABALETA

"Hasieran, Almenen, ikastolatik irten eta ikusten egon gara eta gero bukaera helmugan ikusi dugu. Emakume txirrindulariak oso onak dira".



Txirrindulariak Gatzaga igotzen, euritan. | TXOMIN MADINA



Jendea txirrindulariak animatzen Gatzagako igoeran. | TXAMIN MADINA



Jendea txirrindulariak heldu zain, helmuga ondoan. | IMANOL SORIANO



bigarren. | IMANOL SORIANO



TXOMIN MADINA

**EMMA JOHANSSON**
IRABAZLEA

## "Jendeak esan dit kontuz ibiltzeko, baina prestatuta nengoen"

**Emakumeen Birako bigarren etapako irabazlea izan zara. Nola ikusi duzu etapa?**
Ongi sentitu naiz etapa osoan. Oso eguraldi txarra izan dugu, baina euriarekin ere ondo ibil naiteke. Arriskutsua izan da egin beharreko jaitsierengatik baina aurrean bazoaz ez du hainbeste inporta.
**Zer iruditu zaizu etapa orokorrean?**
Azken mendatea, azken bi kilometroak–edo, apur bat gogorrak izan dira baina prestatuta nengoen. Ezagutzen dut jendea hemen eta denek esan didate kontuz ibiltzeko, baina prestatuta nengoen, sasoian eta gogoz.
**Zer iruditzen zaizu jendearen eta herriaren harrera?**
Jende asko zegoen eta horrek poztu egiten nau.

### ARETXABALETAKO SAILKAPENA

| | | |
|---|---|---|
| 1. | Emma Johansson | 2:35:59 |
| 2. | Elisa Longo-Borghini | 2:35:59 |
| 3. | Marianne Vos | 2:36:25 |
| 4. | Tiffany Cromwell | 2:36:54 |
| 5. | Evelyn Stevens | 2:37:21 |
| 6. | Fabiana Luperini | 2:37:21 |
| 7. | Alena Amialiusik | 2:38:03 |
| 8. | Anna V.D. Breggen | 2:38:03 |
| 9. | Belen Lopez | 2:38:03 |
| 10. | Megan Guamier | 2:38:03 |

### SAILKAPEN OROKORRA

| | | |
|---|---|---|
| 1. | Emma Johansson | 7:56:47 |
| 2. | Elisa Longo-Borghini | 7:57:25 |
| 3. | Evelyn Stevens | 7:59:01 |
| 4. | Anna V.D. Breggen | 7:59:32 |
| 5. | Marianne Vos | 7:59:44 |
| 6. | Alena Amialiusik | 8:00:59 |
| 7. | Megan Guamier | 8:01:02 |
| 8. | Lucinda Brand | 8:01:22 |
| 9. | Fabiana Luperini | 8:01:31 |
| 10. | Shara Gillow | 8:01:32 |



Txirrindulariak tropelean, helmuga baino metro batzuk lehenago. | IMANOL SORIANO





Ane Santesteban lehen euskaldunaren mailotarekin. | IMANOL SORIANO

KADETEAK

# San Antonio Saria azken metroetan erabaki da

**I.E.** | BERGARA

Iñigo Elosegi Autonervion-Renault taldeko txirrindulariak irabazi zuen Bergarako LXXVII. San Antonio Saria zapatuan. 01:25:51 behar izan zuen helmugaratzeko.

Atzetik heldu zen Musikaria Club Ciclista taldeko David Orgambide eta harekin batera Irabia Inter Sporteko Xabier Maiza. Biek ere Elosegiren denbora bera egin zuten, 01:25:51 alegia.

Gorabehera handirik gabeko lasterketa izan zen zapatukoa. Ia ibilbide guztia pelotoian egin zuten eta eraso batzuk egon baziren ere, inork ez zuen lortu ihes egiterik. Azken kilometroan pelotoiarekiko tarte txiki bat hartu zuen Elosegik eta horrek ahalbidetu zion helmugara lehenago heltzea. Dena den, atzetik zuen pelotoia eta lehen 37ak denbora berean helmugaratu ziren. 38. sailkatu zen txirrindularia, Mikel Elgezabal, 27 segundotara heldu zen.

Zapatuko garaipenarekin, duela 70. urte bere aitiitak eskuratutako sari bera irabazi zuen Elosegik.

**Torneoko hirugarren proba**

Gaztetxoak Torneoko lehen urteko kadeteen hirugarren proba izan zen Bergarakoa. 107 txirrindularik eman zuten izena eta 65 sailkatu ziren.

Aurten ibilbide berria izan du probak. San Antonion hasi eta Zubilagaraino bitan joan behar izan zuten txirrindulariek. Bergarara itzulita, Osintxura joan-etorria egin eta San Antonion bertan amaitu zuten lasterketa, euripean zain zituzten bergararren begiraden eta txaloen artean. Guztira, 60 kilometro egin zituzten txirrindulariek, batez besteko 41,93 kilometro orduko abiaduran.

Oraindik zenbait proba falta dira Gaztetxoak Torneoa amaitzeko, eta tartean lehen urteko kadeteek Euskadiko Txapelketa jokatu beharko dute, ekainaren 23an.



Iñigo Elosegi. | IURE EIZAGIRRE

ESKORIATZA K.E.

# Mahaiaren bueltan eta sariak banatuz agurtu dute eskoriatzarrek denboraldia

Arrasateko Al-Andalus elkartean bildu eta garaikurrak eman dizkiete urteko kirolari onenei zein teknikari, zuzendaritzako kide eta babesleei

**JULEN IRIONDO** | ARRASATE

Eskoriatza Kirol Elkartearen bueltan ibiltzen diren 150 lagun batu ziren zapatuan Arrasateko andaluziarren elkartean, klubaren denboraldi amaierako bazkari eta ospakizunean.

Sarituak ondorengoak izan ziren: saskibaloian, Ane Mendieta, kadete mailako jokalari onena; gazte mailako onena, Miren Heriz; nagusietan eta sekzio denean onena, Izar Bedia; areto futbolean, gazte mailan, Imanol Sanchez; Erregional mailan, Ander Romero; Euskal Ligan, Asier Urra; eta sekzio denak kontuan izanda, Richard Hidalgo.

**Jokalariak bakarrik ez**

Jokalariez gain, zuzendaritzako kideak ere saritu zituzten –Garbiñe Urizar, Narciso Pavo, Fernando Raso eta Joseba Iñurrategi–, eta baita babesleak ere –Kobate Harrobiak Kanpazar, Gorbea aroztegia, Akeita taberna, Leniz konponketak, Hotz-Bero, Frixi eraikuntzak eta Al-Andalus–.

Bihotzez eskertu zuten delegatuek urte osoan egiten duten lana, eta azken oroitzapen sentitu bat izan zuten, nola ez, duela bi urte eta erdi hildako Manolo Muñoz presidente ohiarentzat.



Areto futbol eskolako mutikoak, oholtza gainean, sariarekin. | JULEN IRIONDO



Akeita tabernakoak. | J.I.



Saskibaloiko neskak, mahaiaren bueltan. | J.I.



Saskibaloi eskolako neskak eta beste neska saritu batzuk. | J.I.



Zuzendaritzako kideek eta delegatuek ere txalo zaparrada jaso zuten. | J.I.

**JABI CORBAL** | ESKORIATZA K.E.-KO PRESIDENTEA

## "Kluba ez dira kirolariak soilik, lan egiten duten denei eman behar zaizkie eskerrak"



J.I.

Amaieran pozik zen Corbal, ospakizunarekin eta denboraldiarekin.

**Ikusten da klub bat baino gehiago zaretela, familia handi bat.**

Horretan saiatzen gara. Denbora asko da, Manoloren garaitik, urteroko ospakizun hau egiten dugula, eta balio digu talde eta sekzio guztiak elkartzeko.

**Ez dituzue kirolariak bakarrik saritzen.**

Kluba ez dira kirolariak bakarrik, osatzen duten guztiak baizik: delegatuak, entrenatzaileak, zuzendaritzakoak, dirua jarriz laguntzen diguten babesleak... Gurekin lan egiten duten denei eman behar zaizkie eskerrak.

**Ze balorazio egiten duzu denboraldiarena?**

Senior mailako saskibaloi taldean gazte mailako bost jokalarirekin ibili behar izan dugu. Zazpi-zortzi urtean aurreneko aldiz, ez gara lauko finalean sartu; baina aurreikusi ere ez genuen egiten sartzea. Bosgarren amaitu dugu, eta pozik. Izan dira neska gazteak asko lan egin dutenak, zailduagoekin. Beheko taldeek, berriz, asko hobetu dute. Areto futboleko Euskal Ligako taldea, ostera, oso gaizki hasi zen; pentsatzen genuen jaistea tokatuko zitzaigula. Baina Gabon ostean bizkortu, intentsitatean irabazi, talde gisa gehiago jokatu, eta azkenean oso partidu onak egin ditugu. Sailkapen erdian amaitu dugu.

**"Gazte mailako bost jokalarirekin ibili behar izan dugu saskibaloi talde nagusian"**

MENDI LASTERKETAK

### Oihana Kortazar, Kosta Trail irabazi eta sasoia berreskuratzen

Gorputzean behar besteko burdinarik ez eta anemia puntuagatik Zegama-Aizkorri mendi maratoia bertan behera utzi ostean, irabazi egin du berriro Oihana Kortazar elgetarrak. Sopelan hasi eta Plentzian bukatu, domekan jokatutako 30 kilometroko Kosta Trail lasterketan izan da; Kortazarrek ez zuen arerio gogorrik izan, eta ordu erditik gora atera zion bigarren sailkatuari. "Primeran etorri zait entrenamendu moduan", zioen amaieran. Eta balio izan zion, baita ere, sentsazioak hobera doazela ikusteko eta datozen probetara begira "konfiantza" irabazteko. Hurrengo lasterketak Chamonixen ditu, hilaren amaieran, kilometro bertikala eta maratoia, egubakoitz eta domeka.

MENDI LASTERKETAK

### Gabez Takarraran probaren hirugarrena, zapatuan Eskoriatzan

Hilaren 15ean jokatuko da Gabez Takarraran mendi lasterketaren hirugarren edizioa, 23:00etan hasita. 23,2 kilometro izango ditu helduen ibilbideak, eta 9 kilometro gazteenak. 1.200 metroko desnibela gorantz, eta beste hainbeste beherantz. Informazioa eta izen ematea –dagoeneko zabalik–: *www.eskoriatzagabeztakarraran.com* helbidean. Egunean bertan ere eman ahalko da izena, korrikalari kopurua 300eko mugara iritsi ez bada. 15 euro ordaindu beharko dute federatuek eta 25 ez direnek. 16 urte izan behar dira parte hartu ahal izateko, eta 18 nagusien lasterketa egiteko. Eskoriatzako plazan hasiko da lasterketa, eta parte-hartzaileek frontala edo linterna eraman beharko dute.

SASKIBALOIA

### Dagoeneko eman daiteke izena Soraluce 3x3 txapelketarako

Ekainaren 19an amaituko da hilaren 22 eta 23an Bergarako San Martin plazan jokatuko den saskibaloi txapelketarako izena emateko epea. VI. Soraluce sarian benjamin eta senior kategoria arteko taldeek –hiru edo lau lagunez osatutakoek– hartu ahal izango dute parte, herrikoez gain Debagoienekoek edo Euskal Herri osokoek ere bai, parte-hartzaileen adinaren arabera. Izena Agorrosinen, Labegaraietan, Bergara Kirol Elkartearen egoitzan edo herriko eskoletan eman daiteke, eta inskripzioaren zenbatekoa kontu korronte batean sartu behar da. Sariak potoloak dira: 500 eurokoa, adibidez, kategoria nagusian, mutil zein nesketan. Informazioa: *www.bergarake.com*.

Neka Galan | Bergarako entrenatzaile ohia

# "Entrenatzaile lana aberasgarria da, baina desengainu handiak bizi izan ditut"

- Mondran hasitako bidea Bergaran bukatu berri du
- Eskoriatzako jokalaria izan zen 12 denboralditan



Neka Galan, Arrasaten. | MIREIA BIKUÑA

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Neka Galan (Arrasate, 1958) Bergarako entrenatzailea izan da azken bi denboraldietan. Lan ona egin du mahoneroekin, baina taldea uztea erabaki du. Urte sabatikoa hartuko du. Futbola alde batera utzi, eta aisialdirako denbora hartuko du: etxekoak, lagunak, bere burua... Entrenatzaile izan aurretik, 12 urtez Eskoriatza taldeko jokalari izan zen. Bere ibilbideaz jardun dugu.

**Denboraldia bukatuta, entrenatzaile lanak utzi dituzu. Nekatuta?**

Akaso, bai. Urte asko eman ditut entrenatzaile lanetan, eta atseden hartzeko beharra nuen. Denboraldi ona egin dugu Bergaran. Jokalari itzelak izan ditut: arduratsuak, konprometituak, langileak... Baina buruak atsedena eskatzen zidan, eta kasu egin diot. Kirol ikuspegitik urte ona izan da.

**Jokalariek fisikoki esfortzu handia egiten dute denboraldian. Entrenatzaileek ardura handiak dituzue. Non sentitu zara erosoago?**

Jokalari zarenean arlo fisikoa asko landu eta zaindu behar duzu. Entrenatzaile lanak, aldiz, beste ezaugarri batzuk eskatzen dizkizu. Ni eroso egon naiz bietan. Baina azpimarratu gurako nuke entrenatzaile izan naizen urteetan desengainu handiak bizi izan ditudala. Horiek gainditu eta futbolean jarraitzeko, erronka berriak topatu behar izan ditut. Dena den, desengainuak izan ditudan moduan, poztasunak ere izan ditut: entrenatzaile lana oso aberasgarria da. Asko ikasi dut futbolarekin.

**Aberasgarria zein zentzutan?**

Nik, zorionez, hainbat taldetan egin dut lan, eta horrek pertsona asko ezagutzeko aukera eman dit: jokalariak, arduradunak, zaleak... Hartu-eman zuzena izan dut haiekin, eta lagun asko egin ditut futbolean. Adibidez, Bergaran izan dudan jokalari taldea ikaragarria izan da. Haien jarrera asko baloratzen dut, baina, batez ere, pertsona moduan duten maila goraipatuko nuke. Horrek aberasten nau gehien.

**Liga txapelketa zortzigarren lekuan bukatu duzue, 49 punturekin. Denboraldiaren balorazioa?**

Zenbakiei begira, ona izan da, duda barik. Denboraldi osoan egon gara lehen bosten artean. Maila ziurtatu genuenean, erlaxatu egin ginen eta zortzigarren lekuraino jaitsi gara. Iaz baino sei puntu gehiago batu ditugu. Hortaz, horregatik guztiagatik, urte ona izan dela esan beharra dago.

Baina nik neuk aurreko denboraldia nabarmenduko nuke. Lan handia egin genuen taldea Ohorezko Erregional Mailan gera zedin. 2011-12 denboraldian Bergarara heldu nintzenean, helburua mailari eustea zen. Gazte mailako bederatzi jokalariren beharra izan genuen liga hartan. Jokalari taldearen maila ez zen aurtengoa bezalakoa, eta klubeko ordezkariak arduratuta zeuden. Baina, lan handia eginez, bost jardunaldi falta zirela maila ziurtatu genuen. Lanerako tresna eskasagoekin, emaitza ezin hobea lortu genuen.

**21 urterekin hasi zinen jokalari, Pedrusko taldean. Berandu samar, ezta?**

Lehen Erregionalean hasi nintzen Pedruskorekin. Bi urte egin nituen, eta ondoren, maila berean zegoen Eskoriatzara joan nintzen. Han 12 denboraldi egin nituen. 34 urterekin, 1993-94 denboraldian, entrenatzaile titulua lortzeko ikasketak hasi nituen. Eta garai hartan topo egin nuen Nedzad Zivojevic-ekin. Bosniako gerra zela-eta Eskoriatzara bizi izatera etorri zen, eta entrenatzaile lanak egin zituen hiru hilabetean.

Mondra Hirugarren Mailara igo zenean, Zivojevicek hartu zuen taldearen ardura eta ni hasi nintzen bigarren entrenatzaile lanak egiten. Urtebete egin genuen Arrasaten. Mondrak maila galdu zuen.

**Mondran hasitako bidea Bergaran bukatu duzu.**

Halaxe da, bai. Mondrak maila galdu arren, Nedzad eta biok klubean geratu ginen, harrobiko beste talde batzuekin lanean. Hainbat urte egin nituen, eta handik Almenera joan nintzen koordinatzaile lanak egitera, lau urtez. Almenen kadete mailara arteko taldeekin egiten genuen lan. Gazte mailara heltzen zirenean, UDAren ardurapean jarraitzen zuten.

Handik Aretxabaletara joan nintzen, eta ondoren, Josu Zubiarekin batera, hiru urte egin nituen Bergaran. Nire lehen etapa izan zen. Handik Berrizera joan nintzen. Hiru urte egin nituen han, eta Eskoriatzara itzuli nintzen, areto-futbol taldearekin lan egitera. Azken etapa, oraingoz, Bergaran egin dut.

**Nolako entrenatzailea izan zara?**

Askok oso serioa naizela uste dute. Akaso, hori da ematen dudan lehen inpresioa, baina oso bestelakoa naizela esango nuke. Konpromisoa, lana eta diziplina gustatzen zaizkit, baina, era berean, umore ona daukat, eta txisteak kontatu edo txantxaren bat egin behar denean, ez naiz atzean geratzen. Nahiko permisiboa naizela esango nuke.

**Eta zer-nolako jokalaria?**

Zentral postuan jokatzen nuen, defentsaren erdian, Juanito Barberanekin. Jokalari beroa nintzen. Ahoberoa, batez ere Aloñaren kontrako partiduetan. Haiek ziren denboraldiko norgehiagoka politenak. Lehia handia genuen, baina lehia sanoa zen. Eskoriatzako jokalariendako bailarako derbi inportanteena Aloñaren kontrakoa zen.

**Debagoieneko futbol talde gehienen entrenatzaile izan zara. Aloña eta Antzuola falta zaizkizu.**

Bai. Bergara, Mondra eta UDA ezagutzen ditut, baina Aloña gertutik jarraitzen dut. Lan itzela egiten dihardute harrobiarekin Oñatin. Urte asko daramat entrenatzaile lanetan, eta beti esan izan dut Aloña Mendi eta Bergara direla harrobiarekin ondoen lan egiten dutenak. Klub horiek duten filosofia eta lan egiteko modua asko gustatzen zait. Kluben etorkizuna harrobia da eta zaindu egin behar da.

**Futbol barik aspertu egingo zara.**

Ez dut uste. Futbola ikusten jarraituko dut, baina bigarren maila batean. Orain, denbora luzeagoa izango dut aisialdirako, familiarendako, lagunendako... Korrika egitea eta mendian ibiltzea atsegin dut. Gainera, etxekoendako denbora luzeagoa izango dut aurrerantzean.

**Entrenatzaile aulkian ikusiko zaitugu berriro?**

Ez dakit zenbat urte barru, baina ziur nago baietz. Nekatuta nagoelako utzi dut, baina errekuperatu bezain pronto... Bien bitartean, Debagoieneko futbol zelaietan elkar ikusiko dugu.

> **"Jokalari beroa nintzen, ahoberoa; zentral postuan jokatzen nuen"**

> **"Ez dakit zenbat urte barru, baina entrenatzera itzuliko naiz"**



Galan (goiko ilaran bigarrena, eskuinetik), Eskoriatzarekin. | NEKA GALAN

# Haurraren heziketan unean unekoa bizitzea eta bere erritmoak errespetatzea da gakoa

Psikomotrizitatean jasotako esperientziak hala erakutsi dio Manex Beristaini

**IURE EIZAGIRRE** | ARRASATE

Manex Beristain kolaboratzaileak haurraren heziketa izan du berbagai guraso.com webgunean jasotako artikulu batean.

Psikomotrizitatea landu du Beristainek haurrekin eta saio horiek erakutsi diote umeen erritmoak errespetatzearen garrantzia. Beraz, praktikotasunaren eta sinpletasunaren aldeko aldarria egiten du.

"Alde batetik, teoriak eta erabateko kontrolak albo batera utzi eta malgutasunari nahiz naturaltasunari aukera bat eman", dio artikuluan. "Malgutasuna aipatzen dudanean, haurrarekin gaudenean, momentua gozatzeari buruz ari naiz eta ezusteak egon litezkeela onartzeari buruz", gaineratu du, eta dena kontrolpean izateko ahaleginik ez egiteko aholkatu du.

Horrek gurasoei euren barruarekin konektatzen lagunduko diela uste du: " Haurrak oso konektatuta bizi baitira beraien emozioekin eta momentuko beharrekin".



Haurrarekin egonda, garrantzitsua da unea gozatzea. | AIARALDE

### Euren erritmoan

Gurasoen bizimodua azkar doanaren aitzakian, haurrak ere horretara behartzen dituzte: "Haurrak aurrera doaz baita ere, baina behar baino abiadura azkarragoan". Denbora hobeto kalkulatzeko gomendatu du.

### Gauza txikien garrantzia

Eguneroko gauza txikien indarra aldarrikatzen du Beristainek: "Gertaera txiki askok egiten dute askotan momentua handi. Planak egin eta denbora zerbaitekin betetzeko joera sartu digute". Bere ustez kontua ez da haurrak zer egiten duen, egindakoak zer eragiten dion baizik.

# Interneterako sarbidea kontrolatzea ahalbidetzen duen gailua jarri dute salgai

Guraso eta enpresei zuzendutako bi 'router' dira, konfigurazio asko eta errazak dituztenak

**I.E.** | ARRASATE

Gari Elustondo Elaia informatika enpresako kideak *Anboto* Durangoko aldizkariari emandako elkarrizketa baten bitartez izan dugu Interneterako sarbidea kontrolatzea ahalbidetzen duen 'router'-aren berri. Orain arte enpresa handiendako merkaturatu izan dituzte horrelako gailuak. Oraingoa, berriz, gurasoendako eta enpresa txikiendako da.

Netgenie du izena Cyberoam enpresak sortutako gailuak, eta besteak beste euren seme-alaben Interneterako sarbidea kontrolatzea eta mugatzea ahalbidetuko die gurasoei.

'Router'-ak adin tarteetan banatutako zerrenda aurredefinituak eskaintzen ditu eta horiek moldatu daitezke nahi diren webguneak, sare sozialak edo atalak gehitu edo kentzeko. Orduaren arabera-ko konfigurazioa egin eta ordu jakin batean seme-alabei sarbidea kentzeko aukera ere ematen du. Gainera, erabiltzaile bakoitzak bere konfigurazioa du eta hala nahi izanez gero, konfigurazioaren txosten bat egiten du.

Zalantzak argitzeko gidaliburu eta telefono zenbaki batekin saltzen dute Netgenie 'router'-a. Sistema operatibo denekin da bateragarri, baita nabigatzaile guztiekin ere. Gainera, gailu gehienetara konekta daiteke: ohiko ordenagailuetara, eramangarrietara, Smartphonetara, tabletetara...

124,50 euro balio ditu eta www.netgeniehome.es webgunean eros daiteke.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**
guraso.com

ARIZMENDIREN TXOKOA

# Quo vadis eraikuntza sektorea?

**Gaizka Eraña**
Eraikuntza Heziketa Zikloko irakaslea

Joan zen mendeko 80. hamarkadan ontzigintzak izandako birmoldaketaren lekukoetako bat Bilboko Deustuko zubian Euskaldunako langile eta polizia nazionalek izandako liskarrak dira. Bilbo, eta oro har, Bizkairako hain garrantzitsua zen sektorearen birmoldaketaren ondorioz lanpostu pila galdu ziren ontzigintzako enpresa handietan eta haren inguruan zebiltzan enpresa txiki askotan.

2008an hasi eta oraindik jotzen gaituen krisiak eraikuntza sektorea gupida barik astindu du. Azkeneko datuen arabera, EAEn 2012. urtean zehar Eraikuntzaren koiuntura indizea (EKI) %20,2 jaitsi da (Etxegintza %19 eta Obra Zibila %22,4) aurreko urtearen aldean. Sektorea, aurretik ontzigintzak egin zuen bezala, birmoldaketa sakon baten aurrean dago egun.

Birgaitzea eta eraginkortasun energetikoa, sektorearen birmoldaketa honen erdigunean daude, eta batez ere sektorean jarduten duten profesionalak. BUILD UP Skills Intelligent Energy Europe -ren (IEE) baitako ekimen estrategiko bat da, eraikuntza-sektoreko langileen prestakuntza sustatzeko. Ekimenaren azken helburua da Europan langile gaitu gehiago izatea, ia zero energia erabiltzen duten eraikin berriak egiteko, baita birgaitze energetikoak garatzeko eraikita dauden eraikinetan ere. 2011ko azaroan jarri zen abian ekimena, eta langileek mota guztietako eraikinen energia eraginkortasunean eta energia berriztagarrietan duten prestakuntza lantzen du. 30 herrialdek parte hartzen dute ekimen horretan.

Formazio Plan orokor horri "Construye 2020" deitzen diote. Planak langileen formazio beharrak eta Europak 2020rako finkatutako helburu energetikoak lortzeko dauden oztopoak aztertzen ditu. Ikerketak dio urte honetatik 2020ra estatuan eraginkortasun energetiko eta energia berriztagarrietan beharko diren formatutako langileak 166.000 eta 600.000 bitartean izango direla. Gainera, langileon formaziorako urtero beharko litzatekeen inbertsioa 28 eta 60 milioi euro artekoa dela aipatzen da.

Proiektu horrek 29 ekintza eta 11 gomendioz osatutako ibilbide orri bat aurkezten du. Horien artean, adibidez, biomasa instalakuntzen gaineko edo isolamendua jartzeko formazio ibilbideak daude, edota energia geotermikoaren aprobetxamendurako sistemen mantenua egiteko konpetentzien garapena eta formazioa.

## Eraikuntzan langile gaitu gehiago egotea da helburua




Langileak prestatu nahi dira energia gutxiko eraikinak egiteko. | ARIZMENDI IKASTOLA

### Eraikinen efizientzia energetikoa

Eraikinek ingurugiroan duten eraginaz kontziente izan behar dugu eta aldi berean funtzionamenduaren eta erabileraren kostu altuaz jabetu behar dugu. Lehentasunezkoa da gizarteari erakustea eraikuntzen eraginkortasun energetikoetan egiten diren inbertsioak epe erdira errentagarriak izan daitezkeela. Build Up Skills–en ibilbide orrian 2020rako Europak eraikuntzaren eraginkortasun energetikorako helburuak lortzeko dibulgazio kanpainak egitea proposatzen da, irtenbideei eta hauen errentagarritasun ekonomikoari buruzko informazioa helarazteko.

Testuak osorik irakurtzeko eta erantzuteko: **arizmendi.eu**
arizmendi ikastola PRO

# Bazkideentzat abantaila esklusiboak




## Eraman ezazu beti txartela aldean!




**Ninika Loradenda**
Ramon Maria Lili, 8 - Bergara
- %10 deskontua artikulu guztietan.

**Alzu, S.L**
Arantzazuko Ama, 2 - Oñati
- Arropetan %10 beherapena.

**Naren Fisioterapia Zentroa**
Belorrieta 5 behea - Aretxabaleta
- %15 zerbitzu guztietan.

**Esko Sport**
Intxaurtxueta 5, Eskoriatza
- Arropa eta zapatiletan %10 deskontua.

**Jaixak**
Barrenkale 10 - Bergara
- %10 deskontua*, 20 eurotik gorako erosketetan.

* Liburuetan izan ezik.

**Estacion Servicio Arrasate**
San Andres 7 - Arrasate
- % 2 gasolindegian erregaia erosita.
- % 2 dendako produktuetan.

**Begiondo Optika**
Belorrieta, 11 - Aretxabaleta
- %15 produktu guztietan.
- Kontsulta doan.

**Etxe-Aundi Hotela/Jatetxea**
Torreauzo Auzoa 10 - Oñati
- %10 deskontua menu berezian (asteburuetakoan) eta kartan.

**Gahir Fisioterapia/Osteopatia**
Aranburuzabala 6 behea - Eskoriatza
- %50 deskontua lehenengo kontsultan.

**Gaes**
Otalora 18, Arrasate
Zurradero 10 Bergara
- %10 deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.

**Multiopticas**
Juan Carlos Guerra, 1 behea – Arrasate
Ibargarai, 16 Bergara
- %15 deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.

**Arrikrutz Kobak**
Araotz Auzoa - Oñati
- %10 deskontua sarreran*.

* Topea bost pertsona.

**Imprespal, C.B Imprimategia**
Komenio 2 - Bergara
- %5 deskontua egiten den edozein lan edo erosketetan.

**Kuttuna Estetika**
Aranburuzabala 19, behea - Eskoriatza
- %5 deskontua* zerbitzu guztietan.

* Beste promozio batzuk izan ezik

**AQUARIUM**
Jacques Costeau Plaza 1 - Donostia
- Bi erosi eta bat ordaindu*.

* Sarrera garestiena ordainduko da.

**Oñati Garajea**
Goribar Auzoa 9 - Oñati
- %5 beherapena egiten diren konponketetan.

**Biotika**
Iturriotz 21 - Arrasate
- Hauschka kosmetika etxearen makillaje produktuetan %10 beherapena.

**Caravanas Oñate**
Otadui Zuhaiztia, 25 - Oñati
- 50€-ko erosketa egiteagatik, %10 deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).
- %20-ko deskontua lineako patinetan.

**Guztiz Eder**
Kalebarria 29
Oñati
- %10eko deskontua Termason tratamenduan 10 saio hartuz gero.
- Drelimpur tratamendua: 10 bono: 100€. Sesioko: 12€.
- %5eko deskontua* argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan.

* Bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik.

**Lilura Edertze Institutua**
Bidekurutzeta 7 - Bergara
- %15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari).
- %20 elikagai intolerantzia proban.
- %10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
- %10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

**Argia**
www.argia.com
- %25eko deskontua ARGIAko harpidetzan Goiena klubeko kide izanda.

**Txuri Urdin izotz pista**
Anoeta Ibilbidea 24 - Donostia
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan*.
- % 20 zapatu eta domekatan**.
- % 10 zubi eta oporraldietan.

* Ez bada jaiegun, jaiegun bezpera edo oporraldia.
** Ez bada zubia edo oporraldia.

**Lastai**
Arkatza 1, 49 Pab - Gasteiz
- %5eko deskontu gehigarria helduentzako atseden arloan.
- %5eko deskontua haur kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietan.
- %5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietarako denboraldiko ehun-gaietan.
- %10eko deskontua* denboraldiko haur-arropan.

* Beherapenetan eta eskaintza berezietan izan ezik.




## Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.

**goienakluba**
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: **50 €.**
**943 25 05 05**
*kluba@goiena.com*
*goienakluba.com*

# KULTURA


Suzuki taldeko txikienak, biolina jotzen. | J.B.

# Ikasleek ikasturteari agur, erakustaldiarekin esan zioten

- Bergarako Musika Eskolako kideek kontzertua egin zuten zapatu iluntzean frontoian
- Abesti klasiko eta herrikoiak tartekatuz osatu zuten errepertorioa entzuleen aurrean

**J.B.** | BERGARA
Udaberriko erakustaldia egin zuten zapatuan Bergarako Musika Eskolako txiki, nagusi eta irakasleek. 400 partaide baino gehiago izan zituen zapatukoak biolin, txistu eta akordeoi jotzaileekin ala orkestrako kide diren nagusiagoekin, guztira. Kontzertua, gainera, frontoian izan bazen ere, lehenago kalejira egin zuten kaleetatik trikiti taldekoek, eta kontzertua eta gero afaria egin zuten; arratsalde-iluntze osorako plana, hortaz.

**25 urte**
Zapatukoa 25. *Udaberriko Kontzertua* izan zen eta urtean zehar egin ohi dituzten halako kontzertuen errepertorioa izan zuen azken honek ere. Hala, txikienek, ikasitakoaren erakustalditxoa egin zuten, gurasoen gozamenerako, eta nagusiagoek pieza klasiko eta herrikoiak tartekatu zituzten, keinu dibertigarri bat edo besterekin, arratsaldeari umore ukitua emateko.

Harrera abesbatzakoek egin zieten ikusleei, harmailetan bertan ongi-etorria abestuta. Sara Manzano eta Irene Hernando arduratu ziren saioa gidatzeaz eta, taldeka, eskolaren sail ezberdinetako neska-mutikoak atera ziren: Suzuki taldeko biolin-jotzaileak, akordeoi orkestra Eibarko taldearen laguntzarekin, hasiberrien abesbatza, txistu taldea, trikitia, orkestra sinfonikoa... Eskolako ohiko zuzendariek gidatuta, trebetasun berdinarekin jo zuten Strauss-en bat ala The Police-ren *Every breath you take* ezaguna. Kontzertua, ezin bestela, Musika Eskolako martxarekin amaitu zuen abesbatzak, txalo zaparrada jasota.

## Kantu tailerra eta 'Xomorroak' Oñatin

*Ikastetxeak kantari* izeneko hezkuntza egitasmoaren azken saio batekin esan zioten Oñatiko abeslari txikiek agur ikasturteari zapatu iluntzean. Oñatiko hiru ikastetxeetan abesbatza sustatzeko programa egin dute urtean zehar eta ikasitakoak erakusteko bigarren aukera izan zen zapatukoa. Ikastetxeetako haurrez gain, Ganbara Txikiko haurrak ere izan ziren taula gainean, martxoan antzeztu zuten *Xomorroak* musikaleko pasarteak eskainiz. Mozorrotu ere egin ziren Ganbara abesbatzako txikitxoak antzerkia egiteko.

Errepertorioari dagokionez, aipatutako musikalarekin hasi ziren lehenik eta ostean hiru ikastetxeetako haurrak igo ziren taldeka, azaldutako kantu–tailerretan parte hartu dutenak ikasturtean zehar: lehenengo, Txantxiku Ikastolakoak; ostean, Urgain ikastetxekoak; eta, azkenik, Elkar Hezikoak. Zapatuko ekitaldia amaitzeko, neska–mutiko guztiak elkarrekin igo ziren oholtzara munduko musiken *pot–pourri* bat abesteko.

Ikasleekin batera oholtzara igo ziren Araceli Guridi pianoa jotzeko eta taldeen zuzendariak izan ziren Josu Zubia eta Miren Gurutze Plazaola.


Xomorroak lanaren pasarte bat. | IMANOL SORIANO


Sokamuturra Arrasateko Herriko Plazan 50eko hamarkadan. | JOSE MARIA LASAGASTER *BENTXES*-EN ARTXIBOA


Erakusketa, Kulturateko klaustroan. | J.B.

# Zezen barik jairik egon ezin zeneko sasoian barrena

- Arrasateko zezen festa zaletasuna jaso da Kulturateko erakusketan
- Ana Isabel Ugaldek bost mendetako kronika oparoa osatu du

**JON BEREZIBAR** | ARRASATE

San Juan jaietan 25 urte beteko dira Arrasaten *corrida* baten azken zezena hil zutenetik. Bobidoek oraindik ere lekua dute jai egitarauetan, baina ez garai baten pizten zuten zirrararekin. Zezenketekiko –animalia hil zein ez– sasoi bateko grina jasotzen da Kulturaten barikuan zabaldu zuten erakusketan.

Urtebeteko lana jaso du Ana Isabel Ugalde historialariak *Zezen festak Arrasaten (XVI.-XX. mendeak)* liburuan eta ikerketatik eratorritako erakusketan. Prentsako albiste, kronika eta artxibo historikoetan egindako murgiltze sakonarekin herrian zezenketek izan duten eragin eta garrantziaren historia zabal eta aberatsa jaso du Ugaldek, eta lan oparo hori kalitate handiko argazki ikusgarriekin osatzen da.

### Zezenketak eta herritarrak

Ospakizunetako irudiak, toreatzaileak, XX. mende hasierako zezen plaza (Ertzaintzaren egungo egoitza alboan, Etxe Txikien parean zegoena), mondragoetar *'Manolita'*-k, jai egitarauak, kartelak... Luze eta zabal dokumentatzen da zaletasuna eta festa bera. Jarduerak berak piz dezakeen egungo arbuiotik harago, zalantzan jar ezin daitekeena da zezenketek historian izan duten eragina. Horixe, hain zuzen, erakusten du bildumak. Hala, Arrasateko egungo Herriko Plaza zezenketak egiteko leku dotore baten beharraren aitzakiatan eraiki zuten, besteak beste. "Zezen barik ez zegoen jairik", esan zuen Ana Isabel Ugaldek barikuko aurkezpenean behin baino gehiagotan, eta zezenekin batera, ezin bestela, festak eta herritarrek dute protagonismoa erakusketan. Bisitariarentzat bitxiak suerta daitezkeen irudi eta eszenak daude jasota. Gaur egungo ikuspegitik harrigarria baita zezen plaza baten, *mantilla* buruan, *Manolitak* ikustea, Udalaitz atzean; edo gaur egun ia antzemanezinak diren kaleetako sokamuturren irudiak behatzea, atzean utzitako historia baten lekuko bezala.

## Herriko historia bat, grinatik kontatua

Ana Isabel Ugaldek Arrasate Zientzia Elkartearen enkarguz eta Intxorta 1937 Kultura Elkartearen eta Udalaren laguntzarekin plazaratu du liburua, 15 euroan salgai dagoena. Berebiziko ekarpena Jose Maria Lasagabaster *Bentxes* zenaren ondorengoetatik etorri da. Argazkilariaren lanari esker, kalitate handiko irudiak geratu dira zezenketen grina horren irudizko testigantza modura. Liburuaren gaia aitzakia paregabea da herriko historiaren pasarte bikain eta ezkutuekin gozatzeko.


Kepa Urteaga zinegotzia eta Ana Isabel Ugalde, aurkezpenean. | J.B.

# Tradizio biren lokarri lanak egin zituen Hermosaren akordeoiak

Flamenco Etxea ikuskizuna izan zen zapatuan Amaia antzokian

**J.B.** | ARRASATE

Flamencoak fusiorako duen malgutasun eta prestutasuna makina bat aldiz frogatua izan da mota guztietako planteamenduekin. Uzkurrago jokatu izan du euskal musika tradizionalak mestizaia kontuetan. Hala ere, flamencora gerturatzea ez da berria. *Flamenco Etxea* ikuskizunak dakarrena, ostera, akordeoia abiapuntu hartutako ikuspegia da, euskal soinuarekin oso lotua dagoen tresna, baina, aldi berean, munduko musikan adar luze eta oparoak dituena. Akordeoiak zabaldutako bidean barrena lotu eta jolasean jartzen ditu *Flamenco Etxea*-k euskaldunen eta andaluziarren tradizio musikal desberdinak.

### Biren arteko jolasa

Laukotea –ahotsa, akordeoia, gitarra eta perkusioa– oholtza gainean, dantzari batek osatzen du ikuskizuna. Gorka Hermosa akordeoilari urretxuarraren eta Jose Luis Monton gitarra-jole katalanaren proiektua da *Flamenco Etxea,* eta Selene Muñoz dantzari daniar-espainiarra, Maria Berasarte fado abeslari donostiarra eta Hodei Lizaso perkusionista hernaniarrak hartzen dute parte.

Bi tradizioen arteko jolasa da zapatuan ikusi zena, euskal melodia ezagunekin baina flamenkoaren giro uneoro presente eta saihestezinarekin, nahiz eta Hermosak ahalegina egin akordeoia gailentzeko.


Selene Muñoz lehen planoan eta taldea atzean. | IMANOL SORIANO



Oñatiko Abesbatza eta Bergarako Orfeoia San Migel parrokian Mozart-en *Requiem*-a interpretatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

KRONIKA

# 1000 lagunentzako 'Requiem'-a

**JAGOBA DOMINGO** | OÑATI

Maisuki interpretatu zuten atzo Mozart-en *Requiem* pieza Oñatiko Abesbatzak eta Bergarako Orfeoiak. Musika klasikoaren historian obra garrantzitsuenetakoaren intentsitatea eta sentimendua ondo baino hobeto transmititu zituzten. Guztira 120 lagunek eman zioten bizitza obrari Aitor Biainen gidaritzapean, eta San Migel parrokiara hurbildutako ia 1.000 lagunen belarriek gustura entzun zuten Mozart-ek hil aurretik konposaturiko meza.

Zortzi hilabetez gogor lan egin ondoren, Abesbatza eta Orfeoiaren arteko elkar ulertzea erabatekoa izan zen eta pasarte bakoitzari beharrezko intentsitatea eta gozotasuna eman zioten.

**San Pedro elizan**

*Requiem*-aren hurrengo geltokia Bergarako San Pedro eliza izango da ekainaren 29an, elizaren inaugurazio ekitaldian.

**FITXA**

MUSIKA KLASIKOA

**OÑATIKO ABESBATZA ETA BERGARAKO ORFEOIA, MOZART-EN 'REQUIEM'-A**

**Estilo:** Musika klasikoa.

**Non:** San Migel parrokia.

**Eguna:** Domeka, ekainak 9.

**Iraupena:** Ordubete inguru.



GURE MUSIKA TALDEAK

MERY MAY



Mery May, odol irlandarra duen arrasatearra. | NATALIA RAMIREZ

# "Ben Howard-en eta Bon Iver- en eragin handia izan dut 'Rue Matignon' egiteko"

- Mery May arrasatearrak 'Rue Matignon' bigarren lana kaleratu berri du
- Egubakoitzean aurkeztuko du, Etxagibelen eta Azkargortaren laguntzarekin

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Mery May arrasatearrak Bordelen bizi izandako bizipenak disko batean gorde ditu oraingoan. *Rue Matignon* da diskoaren izena eta bertan, betidanik izan dituen bertuteak esplotatu ditu, urteetan taula gainean lortu duen esperientzia baliatuta. Hala ere, 24 urte besterik ez du odol irlandarra zainetan daraman arrasatearrak eta bakarlari bezala kaleratzen duen bigarren diskoa da. 11 kantuak entzutea 11 giro eta estilo ezberdinetan zehar bidaiatzea da, kez betetako pub batetik Palms Springs-eko deserturaino. Musikan daramatzan urte hauetan, 200 kontzertutik gora eskaini ditu, besteak beste, Irlandan eta Frantzian; eta, gainera, Nick Lowe, Najwa Nimri eta Maika Makovski musikariekin jo izan du. Bada, bigarren lan horrekin *indie* panoraman gora egin beharko luke.

**Nolako izan zen grabazioa?**

Oso luzea, urrian sartu nintzen Shot! estudioan eta duela hilabete amaitu nuen. Diskoaren grabazioa puzzle bat bezala izan da. Hasteko, kantuen baseak grabatu nituen eta horiek Etxagibel perkusionistari eman nizkion; gero, Borja Hernandezek baxua grabatu zuen... Ondoren, baina, detaileekin denbora luzea eman dugu estudioan. Adibidez, koruak, txaloak, gitarra moldaketak, banjoa, pianoa eta beste hainbat instrumentu daude kantuetan. Horrez gain, nahasketa eta masterizazioa egiten ere denbora luzea eman dugu.

> **"Aurreko diskoak baino nortasun handiagoa du"**

**Beraz, zure kantuak izan arren, beste musikari batzuek ere hartu dute parte?**

Bai; oraingoan, lagunez inguratu naiz eta emaitzan igarri egiten dela uste dut. Nork bere momentuan kantu bakoitzari beste ikuspuntu bat eman dio.

***Rue Matignon* diskoaren produkzioa landua dela igartzen da.**

Zalantzarik gabe; perkusioa grabatzeko, adibidez, Etxagibelek bost egun eman zituen estudioan. Bateria, lira, marakak, kaxa flamenkoa... detaile asko estudioan bertan bururatu zitzaizkigun. Eta horrez gain, nahasketetan eta masterrean lan handia egin dugu. Nahasketak Iñaki Bengoak egin zituen, baina masterra Daniel Altarriba madrildarrak egin zuen. Saint Patricks eguna ospatu bitartean ezagutu nuen Altarriba, eta izugarrizko sorpresa izan zen. Altarribak Russian Red, Anni B Sweet eta Alejandro Sanz musikarien diskoetan lan egin izan du, eta neure diskoaren parte izatea oso pozgarria izan zen.

**Zer aurkituko dugu diskoan?**

Oso kantu ezberdinak daude. *Fuck you ;)* sentimenduei buruzko kantua da, pop klabean egindakoa, hurrengoak cowboyen mundura gerturatzen dira, baina folk, rock eta runbarako momentuak ere badaude. Horrez gain, funkak ere tartetxo bat du *Radio* kantuan; kantu hori Bang Band proiektuarekin grabatu nuen. Bordelen eman nituen hilabeteetan, Frank Lapuyade eta Cedric Menesguen ezagutu nituen hirian ia egunero egiten ziren *jam* saioetan, eta Mery May and the Bang Band proiektuarekin ere ibilbidetxo bat egin genuen iaz. Beraz, hainbat osagai dituen koktela da bigarren diskoa.

***Dreams*-ekin alderatuz eboluziorik sumatu duzu?**

Alde handia dagoela uste dut. Normala den moduan, azken urteetan gitarra alboan izan dut; beraz, nahi edo ez, zerbait ikasi dut. Baina, nire ustez, alde handiena jarreran dago, kantuek karisma eta nortasun handiagoa dute. Bestalde, aurreko diskoa asteburu batean grabatu nuen eta hau amaitzeko hilabete batzuk eman ditut; beraz... aldea sumatzea espero dut!

**Noiz aurkeztuko duzu diskoa?**

Egubakoitzean, hilaren 14an, 19:30ean aurkeztuko dut diskoa Arrasateko plazan, Kajoi tabernak antolatuta. Kontzertua hirukote bezala emango dut, Aitor Etxagibel perkusionistarekin, Foxi Boxxy taldeko bateria-jole ohiarekin eta Mikel Azkargorta baxu-jolearekin –Mahaster River bergararren taldekide ohia.

**Eta hortik aurrera?**

Oraingoz, ekainaren 29an, Bilboko La Nube kafe-antzokian egongo naiz eta uztailaren 5ean, Bergarako Laino skate parkean. Orain dela gutxi, Joseba Gorordo manager bilbotarrarekin lanean hasi naiz; beraz, gutxi barru kontzertu gehiago izatea espero dut.

**Diskoa non dago salgai?**

Arrasaten, Iluntz, Ekaitz, Jai-Zale eta Kajoi tabernetan, eta kontzertuetan, oraingoz.

---

ZERTZELADA




**RUE MATIGNON**

**Estiloa:** Folk, rock, pop.
**Egilea:** Mery May (Arrasate, 2013).
**Argitaletxea:** Autoekoizpena.
**Iraupena:** 34:33 minutu.

## Arima rockeroaren alde poperoagoa

Irlandako odola –aitarengandik– borborka daukan Maria Fagan arrasatearrak aspaldi iragarritako diskoa bukatu du. Zorionez Frantziako egonaldian ez zion abestu eta gitarra jotzeari utzi. Sentimendua duen ahotsari berezko ingeles dikzio sinesgarria gehituta emaitza dotorea da. Gainera, lan honetan erakutsi bezala gero eta errejistro gehiagotara heltzen da. Hainbeste miresten duen Neil Young handiaren arrastorik bada oraindik –zer esanik ez, 'Harvest'-en aurkitzeko moduko 'She is gone' agerien–, baina erakutsi du mainstream-eko pop-rocka, irratirako modukoa, xuxurlatuagoa, countrya, rumba frantsesa zein Perales-en "Loca" interpretatzen ere nota ona ateratzen.

IKER BARANDIARAN

**Debagoiena.** Mutil senegaldarra garbiketa lanak egiteko prest Bergara eta inguruetan. Deitu telefono zenbaki honetara: 626 78 33 80

**Debagoiena.** utila agertu lanerako: garbitasun lanak edo nagusiak zainduko nituzke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 661 94 19 13,

**Debagoiena.** Mutila edozein motatako lanak egiteko prest. Deitu 602 87 46 25 edo 605 44 61 98 telefonora.

**Debagoiena.** Nagusi edo umeak zainduko nituzke, baita etxean bizi izaten ere. Garbitasunean, tabernatan edo sukaldean ere lan egin dezaket. Gidabaimena eta autoa dauzkat. Deitu telefono zenbaki honetara: 697 20 00 86

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko gertu, garbiketak orduka egiteko edo nagusiekin egon eta pasioan laguntzeko. 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu. Oinarrizko sukaldaritza eta geriatria ikasketaduna. Etxe, atari, taberna eta bestelako garbiketak egingo nituzke eta baita nagusiak zaindu ere. Etxean bertan bizi izaten edo egun osoz zein orduka. Deitu telefono zenbaki honetara: 615 06 28 04

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak edo umeak zaindu eta sukalde zein garbitasun lanetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 68 12 79

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaindu zein garbiketak egiten. Orduka edo egun osoz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 80 77 73

**Debagoiena.** Neska eskarmentuduna lanerako gertu: garbitasunak edo ume zein nagusiak zaintzen. Legezko paperak eta autoa dauzkat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 680 87 38 66

**Debagoiena.** Neska esperientziaduna lanerako gertu. Garbitasun lanak edo umeak zainduko nituzke. Orduka edo egun osoz. 664 37 49 85

**Debagoiena.** Neska lan bila dabil. Garbiketa lanak egingo nituzke: atarteak, etxeak, elkarteak eta tarbenak, baita nagusiak zaindu ere. Sukaldean esperientzia daukat eta kotxeko karneta. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 36 39 92

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu etxe lanetan, garbitasunetan, etxean bizi izaten, orduka edo egun osoz. 648 46 90 51

**Debagoiena.** Neska lanerako prest. Erizaintza laguntzaile ikasketak ditu. Ospitalean gaua pasatzeko zein nagusiak zaintzeko orduka. Tabernan lan egiteko, umeak zaintzeko edo dendan lan egiteko ere prest. Autoa dauka. 617 20 59 43

**Debagoiena.** Neska nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo orduka. Legezko paperekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 633 77 44 24

**Debagoiena.** Nikaraguako mutila lanerako gertu. Zaintzak egingo nituzke bai etxean bizi izaten zein egunez edo orduka. Baita baserrietan ere. Esperientziaduna. 631 45 60 53

**Debagoiena.** Nikaraguako mutila lanerako gertu. Zaintzak egingo nituzke bai etxean bizi izaten zein egunez edo orduka. Baita baserrietan ere. Esperientziaduna. 633 28 81 24

**Debagoiena.** Paperak dituen pertsona lanerako gertu; garbiketan edo pertsona nagusiak zaintzen. Debagoiena osoan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 672 96 08 22

**Debagoiena.** Prest nago mandatuak egin, autoan leku batetik bestera eraman eta antzeko lanak egiteko, prezio onean. Deitu telefono zenbaki honetara: 607 34 90 43

**Debagoiena.** Ume eta nagusiak zaintzen edo garbitasun lanetan, tabernatan, sukaldean... lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izateko ere gertu nago. Gidabaimena eta autoa dauzkat. 680 87 38 66

**Durango.** Andre euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Urte askotako eskarmentuarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699-74 57 23.

**Durango.** Durangon egunez zein orduka pertsona nagusiak zaintzeko zein garbiketan aritzeko lan bila nabil. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 680-29 66 76.

**Durangaldea.** Goizez, arratsaldez, gauez, asteburuetan zein jaiegunetan garbiketan zein zaintzan aritzeko prest. Esperientzia gaixorik dauden nagusiak zaintzen. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 690-68 73 95.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua eta erreferentziaduna pertsona nagusiak zaintzen, garbiketan edo sukaldeko laguntzaile lanetan lan bila dabil. 24 orduz, egunez edo orduka. Tel.: 608-65 90 55.

**Durangaldea.** Erreferentziak dituen emakumea lan bila. 24 orduz edo egunez, orduka, gauez zein asteburuetan aritzeko prest. Tel.: 669-52 73 27.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Asteburuetan, gauez...Tel.: 696-75 35 30.

**Durangaldea.** Lan bila nabil, nagusiak zaintzen edo garbiketan. Lanaldi osoan edo erdian, baita gauez ere. Erreferentzia onekin. Segituan hasteko. Paperak erregulatuta . Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650-61 01 94.

**Durangaldea.** 24 orduz edo egunez pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 638-33 51 10.

**Durangaldea.** 24 orduz, lanaldi osoan edo erdian pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. 660-93 56 31.

**Durangaldea.** 43 urteko neska goizetan umeak zaintzeko lan bila dabil. Esperientzia handia. Tel.: 688-64 36 28. E-maila: e.antxia@kzgunea.net

**Durangaldea.** Gaueko 22:00etatik goizeko 8:00ak arte pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650-61 01 94.

**Elorrio.** Datorren kurtsoan, irailetik aurrera, haur hezkuntza eta hezkuntza berezia eginak dituen eta udalekutan lanean esperientzia duen neska gazte euskalduna, arratsaldez (durangaldean) haurrak zaindu eta eskolako lanekin laguntzeko prest. Urteak daramatzat honetan eta haurrekin oso ongi moldatzen naiz! Interesa baduzu, deitu: 688-64 06 04.

**Elorrio.** Irailetik aurrera, astelehenetik ostiralera, arratsaldetan, pertsona nagusiak edota ezinduak paseatzera atera edota konpainia egiteko prest dagoen neska gaztea naiz. Mendekotasuna duten pertsonenganako arreta ikasten ari naiz. Interesa baduzu, jarri nirekin harremanetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688-64 06 04.

**Lanerako** prest. Emakume gaztea adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Interesatuok telefono honetara deitu: 670 58 63 32

**Oñati**. Lehen Hezkuntzako ikasle euskalduna haurrak zaintzeko prest ekain, uztailaeta abuztuan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 660 77 87 65

**Udan umeak zaindu.** Neska euskalduna udan umeak zaintzeko prest. Deitu telefono honetara: 620 95 46 11

**Uztailerako lan bila.** Uztailean haurrak zaintzeko edo ludotekara eramateko prest dagoen neska Markinarra naiz (haur -hezkuntzako goi mailako zikloarekin). Interesatuak deitu telefono honetara. Eskerrik asko. Interesatuok deitu telefono honetara: 628 43 76 30

## 5. IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Bergara.** Ingelesezko eskolak ematen ditut ekainean eta uztailean. Ikastaro trinkoak, maila guztietan. Baita HEOko zein Cambridge-ko azterketak prestatzeko ere. Talde murriztuak. 618 91 32 89

**Durango.** Batxiller, EGA eta ingeles tituludun unibertsitateko ikaslea eskola partikularrak emateko prest.Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 678-48 87 66.

**Durangaldea.** Neska gazte bat eskola partikularrak emateko eskaintzen da. LH, DBH zein Batxilergoan. Ekonomian lizentziatua. DBH eta Batxilergoan irakasle izateko masterduna, eta EGA tituluduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 635-74 67 98.

**Durangaldea.** Neska euskalduna batxillergo eta Administrazio tituluduna, etxez etxe eskola partikularrak ematen ditu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 662-36 41 67 // 94-681 39 40.

**Durangaldea.** Psikologo euskaldunak ikasketa teknikoak eskaintzen ditu. Irakurketa-idazketa- ulermen arazoak lantzen ditu, batez ere. Hiperaktibitatea, antsiedadea, etab. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679-38 23 69.

**Durangaldea.** Edozein ordutegitan 24 orduz zein egunez eta edozein lanetan aritzeko prest. Etxeko lanetan, zaintzan zein garbiketan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603 -48 80 27 (Nira).

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko, garbitzaile lanak egiteko, sukaldari laguntzaile edo beste edozein lan egiteko prest. Bizileku- baimenarekin. Tel.: 636-44 59 01.

**Durangaldea.** 43 urteko neska goizetan etxez etxe ingeleseko klase partikularrak emateko prest. Esperientzia handia. Tel.: 688-64 36 28 emaila: e. antxia@kzgunea.net

**Durango.** 24 urteko mutil euskalduna eta Lehen Hezkuntzan diplomatua eskola partikularrak emateko prest. Tel.: 695-73 69 94 edo emaila: k. anderez@hotmail.es

**Elorrio.** Datorren ikasturtean, irailetik aurrera, lehen hezkuntzako edozein kurtsora zuzenduta, arratsaldez klase partikularrak emateko prest. Hezkuntza berezia eta haur hezkuntza ikasketak ditut eginak. Akademian lanean egondakoa naiz. Interesa baduzu jarri harremanetan nirekin: 688-64 06 04.

**Gitarra elektrikoa.** Gitarra elektrikoko eskolak ematen ditut. Etxera joango nintzateke. Metodo erraza eta dibertigarria. Merke. 679 74 00 61

**Hezkuntza.** Durangaldeko neska euskalduna. Haur eta Lehen Hezkuntzako irakaslea; ingeleseko first tituluarekin eta pedagogia terapeutikoarekin. Umeak zaintzen, partikularrak ematen, begirale eta irakasle bezala esperientziaduna. Partikularrak emateko edo umeak zaintzeko prest. 628-04 51 25.

**Villabona.** Ingleseko eta frantseseko klase partikularrak ematen ditugu. Taldeka edo bakarka. Hizketaldiak,azterketak. Bakarkako klaseak zure etxean eman ditzazkegu edo gure estudioan. Lehendabiziko eguna proba moduan izanik,gero zuk erabaki. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 664 -16 02 68.

**Zarautz.** 26 urteko neska udan haurrak zaintzeko eskaintzen da. Esperientziaduna. Harremanetarako deitu telefono honetara: 645-71 52 58.

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Audi A4 kotxea salgai.** Oso egoera onean. 160.000 km. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 673-49 36 39.

**Autoa.** Karneta atera berra badaukazu edota zure kontu autoan ibili nahi baldin baduzu, zuretzako auto ezin hobea daukat, 71.000 km erreal dituen polo coupe gt 1.3 55cv. Prezioa 999 euro negoziagarriak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695-70-62-27.

**Citroen c3 hdi 70 cv collection diesela salgai.** Citroen c3 hdi 70 cv collection diesela salgai, 22.300 km. Irrati-cd -mp3, abiadura-mugatzailea, ispilu elektrikoak, barne- ordenagailua, ia-ia berria eta durangaldetik bakarrik erabilita. IAT 2013ko azarora arte pasata. 7.500 euro negoziagarri. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618-93 62 14.

**Furgoneta ekipatua salgai.** Salgai: auto- karabana volkswagen california 2,5 tdi 5 galgatakoa, westfalia, zuria. 2002ko azaroan erosia. 205 000 km. Beti garajean gordea eta bere mantentze-lanak arduraz eginak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 650-42 26 07.

**Honda Hornet cb 600 motorra salgai.** Honda Hornet cb 600 motor horia salgai. 2008. urtekoa. 10.200 km. Bi jaka (Alpinestar L tamaina eta Levior M tamaina), hiru kasko (Hebo L tamaina, Lem S eta M tamainak) eta eskularru pare bat oparitzen ditut. Prezioa: 5.600 euro. Informazio gehiagorako, deitu konpromiso barik. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629-45 52 41.

**Mercedes Vitto 110 furgoneta salgai.** 1999. urteko Mercedes Vitto 110 furgoneta salgai, 105 CV. Ohea, aulkiak, mahaia, pintura berria, larruzko aulki berriak, leiho automatikoak, klimatizagailua, ABS eta aparkatzeko sentsoreak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 673-49 36 39.

**Opel frontera 2.3. D salgai.** Opel frontera 2.3. D salgai. 1994. Urtekoa. Kilometro gutxi. Interesatuok deitu telefono honetara: 667-09 45 36.

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Untxi erraldoia salgai.** Espainiar arrazako 10 hilabeteko arra. 94-621 82 57.

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Altzariak.** Egongelarako eta sarrerarako moduko altzari edota osagarriak saltzen ditugu: aparadorea, alazena eta abar. Dena batera edo bakarka. Estilo rustikoa eta kolore argia dute. Prezio onean. Debagoienean. 608 34 85 23

**Bernedo.** Lursail eraikigarria urturin salgai dago, bernedon. Gasteizetik 40km-tara dago, eta izkiko golfetik 3minututara baino ez. 308m2 eraikitzea posible da, 7ml-ko eta bi solairuko altuera maximoarekin. Inguruan beste lursail eta etxebizitza batzuk ditu; baita golfeko hotela ere. Telefonoa: 665-75 78 07 (Ana) emaila: ana.vitoria. gasteiz@gmail.com

**Bolibar (Bizkaia).** Bolibarren lursaila salgai. 660-35 80 67.

**Irrati antena salgai.** Irrati antena salgai. FM transmisorea, osagai hauekin: «link» stereo sorgailu bat, «diratel» FM modulagailu- kitzikagailu bat eta «diratel» FM 600w anplifikadore bat. Eta FM sistema erradiatzailea, osagai hauekin: 4 antena yagi FM, 2 elementurekin eta FM banagailu bat, 4 biderekin. Tel.: 94-681 65 58.

**Quinny freestyle XL (silla+-kapazoa).** Quinny freestyle xl. Kapazoa (gris iluna) berria da eta silla (beltza) oso egoera onean dago. Sillak lau posizio ditu eta posizio batean erabat etzaten da. Silla bi norantzatan jarri daiteke, haurra zuri begira dagolea edo aurrera begira. Gehigarriak: euritik babesteko plastikoak. 350 euro. Harremanetarako: 660-25 25 13 (Ana).

**Umeentzako autorako aulkia salgai.** Umeentzako autorako aulkia salgai. 10 urtera artekoa. Merkea, ondo zainduta. Tel.: 648-63 58 06.

**Umentzako triziklo berria salgai.** Umeentzako triziklo berria salgai. Opari egokia udarako, 75 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634-77 84 58.

### 802. EROSI

**Durangaldea.** Lursail bat erosi edo alokatu nahi dut . Lursail txikia, ortua ipintzeko. 666-69 10 03.

**DVD irakurgailu eramangarria.** Bi pantailadun DVD irakurgailu eramangarria erosiko nuke. 665 75 64 38

**Klarinetea.** Bigarren eskuko klarinetea erosiko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 84 10 82

**Samsung Galaxy SII-SIII.** Bigarren eskuko Samsung Galaxy SII-SIII edo antzerako mugikorra erosiko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 647 31 64 41

**Trikitia.** Bigarren eskuko trikitixa erosiko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 600 37 54 97

### 804. HARTU

**Sofa zaharrak hartzen dira.** Sofa zaharrak hartzeaz arduratzen gara. Etxeetatik hartu eta ondoren bere berrerabilpenaz edo birziklatzeaz arduratzen gera. Zerbitzu guztiz doakoa da. 671 92 06 49

### 805. TRUKATU

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egingo nituzke ortua jartzeko lursail baten truke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 77 00 19

**Debagoiena.** Hiru zaldirentzako Arrasate-Eskoriatza inguruan lursailen bila nabil. Trukean, lursailen mantenua eta garbiketa egingo nuke. Sastrakak kentzeko makina daukat. 697-41 66 24.

### 806. GALDU

**Aretxabaletan erlojua galdu.** Larunbat arratsaldean Iturrigorri frontoi inguruan edota Durana kalean mutikoen erloju digital beltz bat galdu nuen. Aurkitu duenak deitu dezala zenbaki honetara mesedez. 679 86 67 38 edo 943 25 05 44

**Eraztuna Arrasaten.** Zapatuan, maiatzaren 11n, eraztuna galdu nuen Forum Sport dendan. Goizean. Eraztun handia da, anbar kolorekoa eta harri bat dauka. 628 77 58 28

**Erlojua Arrasaten.** Jose Luis Inarra kaletik Zerrajerako Eroskira bidean, Maala errabaletik pasatuta, erlojua galdu da. Zilar kolorekoa, kate-mailaduna, laukiluze formaduna. Aurkitu baduzu deitu zenbaki honetara mesedez: 943 79 38 29

**Mobila.** Mobila galdu dut. HTC One X. Funda arrosa batean. Ozaetan. 50 euro emango ditut. Eskerrik asko. 672 25 74 26

**Patinetea Aramaion.** Oxelo patinete beltza eta urdina galdu nuen ekaineko lehen igandean parke inguruan. Aurkitzen baduzue deitu mesedez. 945 44 50 97 edo 692 70 42 71

**Patinetea Bergaran.** Joan zen maitzaren 11n, larunbata, Oxelo patinete beltza eta gurpil urdinak zeukana galdu genuen. Aurkitu baduzu mesedez deitu telefono zenbaki honetara: 637 00 01 58

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Bikotekide zintzoaren bila.** Udaberriaz batera, bat-batean konturatu zara norbaitekin eskutik helduta gauzak ederragoak direla?, bizipenak konpartitu nahi dituzu?momentu onak eta txarrak norbaitekin partekatzeko aukera izatea gustuko zenuke? auurera jarraitzeko ilusioa emango dizun norbait behar duzu batzuetan?. Ba hemen naukazu . Bilboko 54 urteko neska alaia, irekia, oso lagunkoia naiz. Zinema, bidaiak, itxasoa, hondartza, irakurtzea, kantatzea, lagunekin pasieran ibiltzea, txangoak egitea e. A.. Dira nire zaletasunbatzuk. Antzekoa bazara animatu eta deitudazu elkar ezagutzeko eta ikusiko dugu zer gertatzen den. Harreman iraukor baten bila nabil, baina adiskidetasuna ere oso gauza polita da. Animatu eta deitu. Zure zain telefonoa: 606 -25 05 84.

**Euskara-Frantsesa Arrasaten.** Nik zuri euskara erakutsiko nizuke eta zuk niri frantsesa. Elkartu eta mintzatzea litzateke asmoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 76 59 73

**Hizkuntza elkartrukea Arrasaten.** Belgikako ikaslea naiz eta hizkuntza elkartrukea egiteko jende bila nabil. Nik gaztelania ikasi nahi dut eta holanderaz, ingelesez, alemanieraz, frantsez eta italieraz egiten dut, maila ezberdinetan bada ere. Gaztelaniaz maila ertaina daukat. Kontakturako idatzi mezu bat: Vandekerkhof_niels@hotmail.com helbidera edo (+32) 476 02 22 52 zenbakira.

**Mutil atsegin bat neska atsegin baten bila.** Mutil atsegin bat naiz eta neska atsegin baten bila nabil,46 urte ditut,altua eta morenoa naiz,ez ditut kargarik. Alaia naiz eta bidaiatzea gustatzen zait. Deitu telefono honetara 609-48 11 24.

**Zure euskara edota gaztelania hobetu nahi?.** Zure euskara edo gaztelania hobetu nahi? Lagunduko dizut, nik nire ingelesa hobetzen dudan bitartean, deitu! 638-26 43 85.

Etxebila higiezinak
943-44 61 66
IKASLEENTZAKO ALOKAIRUAK
AMARA: 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Oso polita. 750 €
AMARA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 650 €
ZENTROA: 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora. Polita. 700 €
ALOKAGAI
USURBIL: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Berritua. 575 €
TRINTXERPE: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. 490 €
LEZO: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 500 €
ASTIGARRAGA: 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Terraza handia. 700 €
EGIA: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Altzariak. 700 €
AMARA: 2 logela, sukalde-jangela, egongela, bainugela. Balkoia. 700 €
SALGAI
ANTIGUO: Atikoa. Oso bista politak itsasora. Eguzkitsua. Sartzeko. 78.000 €
LEZO: Azken solairua. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza ederra. Sartzeko. 125.000 €
MARTUTENE: 60 m2. Dena kalera. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. 126.000 €
ZENTROA: Prim Kalea. Atiko berritua. Kanpora. Igogailua. 195.000 €
AMARA: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Sartzeko. 174.000 €
AMARA: Amara hasieran. Altua. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 180.000 €
AMARA: Altua. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Bista politak. 195.000 €
AMARA: Azkena. Terraza, 25 m2. 3 logela, sukaldea, egongela handia, bainugela. 330.000 €
INTXAURRONDO: 75 m2. 2 logela, 25 m2-ko egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. 2 trasteleku. 225.000 €
GROS: Jose Arana. Apartamentu berritua. Balkoia. Trastelekua. Kalera. 230.000 €
EGIA: Mandasko Dukea. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Igogailua. 231.000 €
LOIOLA: Aralarko Mendiak. Igogailua. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 150.000 €
HERNANI: 25 m2-ko terraza. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berogaiulua. Sartzeko. 110.000 €
ZARAUTZ: Duplexa. 98 m2. Terraza. Bistak itsaso eta hondatzara. 260.000 €
www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

Korosti INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com
ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA:
• Zubieta 70 m², 3 logela. Oso ondo. 132.223€.
• Masterreka 73 m², 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
• Aranerreka 84 m², 3 logela, trastelekua. Garajea aukeran. 150.000€.
• Barrenkale 90 m², 3 logela. Erabat berriztua.
• San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 150.000€.
• Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250€.
• Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 120.000€ PREZIO JEITSIERAREKIN.
• Zubiaurre 56 m². 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000€.
• Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000€.
• Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000€. Aukera ona.
• Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760€.
• Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243€.
• Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213€.
• Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253€.
• Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 150.000€.
• Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760€.
• Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223€.
• Zabalotegi 2 eta 3 logeletako pisuak OSO PREZIO ONEAN.
• Bidekurutzeta 147 m2. Igogailuarekin. 135.000 €. Prezio jeitsierarekin.
• Martzial Agirre 60 m2, logela bat. Terraza eta trastelekuarekin. Garajea aukeran.
• Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
• Fraizkozuri 100 m², 4 logela, 2 balkoirekin. Igogailua. Prezio jeitsierarekin.
• Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000€.
• Boni Laskurain 90 m², 3 logela. Trastelekua eta garajearekin. Oso ondo.
• Arrizuri 160 m², 4 logela. Igogailua, garajea. Oso ondo.
• Martoko 140 m², 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000€.
• Justo Garate 50 m², 2 logela. 10 m² terraza. Oso ondo. 210.350€. PREZIO JAITSIERA.
• Koldo Eleizalde 78 m², 3 logela. Berriztua. AUKERA BIKAINA. 200.000€.
• San Antonio 70 m², 2 logela, igogailua. Garajea. Berria. 157.000€.
• San Lorenzo, 87 m², duplex, 3 logela. Berritua. Oso ondo. 169.500€.
ANTZUOLA:
• Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
• Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202€.
• Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
• Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
• ETXEBIZITZEN ETA GARAJEEN ERAIKUNTZA BERRIA. Leku onean eta prezio interesgarriak.
SORALUZE:
• Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.
ELGETA:
• Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212€. Prezio jeitsierarekin.
• Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
• Domingo Iturbe, adosatua 150 m2 + 45 m2 garajea + 90 m² lursaila.
OSINTXU:
• Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berritua. 150.000€. AUKERA BIKAINA.

# Handikiak, banketxe ere izateko urratsetan

Google, Apple eta Amazonek finantza sektorean presentzia handitu dute modu askotan




Apple-en logoa daraman kreditu-txartela. | GOOGLE

**JON BEREZIBAR** | ARRASATE
Mugikor bidezko ordainketari gizarteratze osorako urrats handiak geratzen zaizkio nahiz eta geroago eta gailu gehiagok duten beharrezko teknologia eta ia enpresa nagusi gehienek, bai teknologia zein kredituari dagokionez, sistemak aurkeztuta izan. Negozio eredua finkatzeko, ordea, aurrerapauso handiak egin dituzte Google ala Apple moduko handikiek. Orain arte software eta hardware-aren sorrera, garapen eta eskaintzan baziharduten, gaur egun finantza kudeaketatik asko du Interneteko handien jardunak. Bi adibide: iTunes-en bezero kopuruak Banco Santanderrek munduan duena bikoizten du eta Google enpresei dirua mailegatzen hasi da publizitate inbertsioak egin ahal izan ditzaten. Amazonen kasuan, kontsumorako kredituak eskaintzen dituzte aspalditik.

### 2017ko agertokia

Juniper Research ikerketa erakundearen azken txostenean aurreikusten da 2017an munduan 200 milioi erabiltzailek izango dutela eskuko telefonoan ordainketarako sistemaren bat ezarrita eta Internet bidezko banketxe erabiltzaileak 1.000 milioi izango dira. Alternatiba teknologiko bat baino gehiago dago gaur egun ordainketarako eta NFC teknologia da apustu sendoena. Teknologia hori hardware enpresen esku dago baina hasi dira finantza eta teknologia alorreko enpresen arteko aliantzak sortzen. Garapen aldetik aurreratuena Google-en *Wallet* sistema da. Gainera Google-ek *TxVia* delako plataforma erosi berri du, mugikor bidezko ordainketetan espezializatua. Amazonek *One Click* sistema delakoa dauka eta Pay-Pal-ek *Here* delakoa. Apple da handikien artean aukera garbia egin ez duena. 2012tik Passbook delako aplikazioa darabil sarrera, txartel ala hegaldietarako txartelak erosi eta kudeatzeko iTunes-en bitartez. Kreditu erakunde nagusiak ere sartu dira negozioan eta Visa eta Mastercardek ere NFCan oinarritutako aukerak aurkeztu dituzte ordainketarako teknologiak.

# Sareko enpresa handien zerbitzarietarako sarbidea du AEB-etako gobernuak

Txosten sekretu batek argitara atera du gobernuaren eta enpresen arteko hartu-emana

**J.B.** | ARRASATE
*The Washington Post*-ek argitara ateratako sekretupeko dokumentu baten arabera, Estatu Batuerako Segurtasun Nazionalerako Agentziak eta FBI-k, beste askorem artean, Microsot, Facebook, Google, Apple eta Yahoo! enpresen zerbitzari nagusietara sarbidea izan du erabiltzaileen informazio konfidentziala eskuratzeko. Espioitza programa Bushen agintaldian abiatu zuten Estatu Batuetan eta Obamaren taldeak ere PRISM delako programa horrekin jarraitu du. Askoren susmoak, hortaz, konfirmatu egin ditu *The Washington Post*-ek ezagutzera emandakoak. Aipatutako enpresek, hala ere, ukatu egin dute ezelako programetan inoiz parte-hartu izana.

### Sei urte datuen bilketan

Dokumentuaren arabera, 2007 urtetik dauka Estatu Batuetako gobernuak zerbitzarietara sarbidea eta, azaltzen denez, Microsoft, Facebook, Google, Apple, Yahoo!, Skype eta AOL enpresek boluntarioki hartzen dute parte hasieratik.

Txostenean aipatzen da horien bitartez jasotako informazioa oso erabilgarria izan dela Udaberri Arabiarrean eta Siriako gerra zibilean. Nazioarteko informazio trafikoan izan du gobernu estatubatuarrak interes berezia, nahiz eta herrialdeko barruko informazioa ere erabiltzeko aukera izan omen duten.

E-posta, argazki, audio eta bideoetara izan omen dute sarbidea eta erabiltzaile konkretuen jarraipena egin ahal izan dute argitara ateratako agiri horren arabera. Batutako informazioaren %98, gainera, Google, Microsoft eta Yahoo!-tik jaso dute, zehazten denez, eta informe presidentzialetarako iturririk oparoena ere izan dela aitortzen da testuan nazioarteko inteligentzia gaietarako.

### Enpresek, ezetz

Aipatutako enpresa gehienek, baina, gezurtatu egin dute argitaratutakoa. Microsoft-ek, zehazki, esan du ez duela modu boluntarioan datu bilketa kanpainetan parte hartu eta gobernutik etorritako edozein eskaera oso zorrozki begiratzen dutela, indarrean dagoen araudiarekin bat egin dezan eta sekretutasuna errespetatuz. Google-ek ere gezurtatu egin du sarrera sekretuaren kontua eta diote sekula ere ez dutela PRISM izeneko ezelako programen berririk izan. Yahook! ere ukatu egin du salaketa.

# Diru gehien egiten duen hedabidea da jada Google

**J.B.** | ARRASATE
Hedabide moduan jasotako diru sarreretan enpresa nagusia da gaur egun Google mundu mailan. Google, hain zuzen, 2011 urteko *online* publizitate inbertsioaren %49az jabetu zen ZenithOptimedia-ren txostenaren arabera. Mundu mailako erreferentzia den ikerketa horretan garbi geratzen da News Corporation ala Time Warner-eri, tradizionalki aloreko jaun eta jabe izan direnak, aurrea hartu diela bilaketen handikiak.

### Publizitatearen jabe

Enpresek publizitate inbertsiotik eta edukien banaketatik jasotako irabazien arabera osatzen da zerrenda. Publizitatetik jasotzen du diru gehien Google-ek eta Yahoo!, Microsoft eta Facebook-ekin batera inbertsio osoaren %64aren jabe dira mundu mailan, beste edozein hedabideren aurretik. Google-ek, zehazki, 37.900 milioi dolarreko irabaziak izan zituen.

Edukien banaketari dagokionez batez ere Youtube-eri esker egin du gora Google-ek. Edukien banaketa tradizionalean sartu dira horrela azken urteetan Youtube eta sare sozialetako kanal bereziturei esker. Sektore honetan, baina, oraindik ere News Corporation eta Disney enpresak ditu aurretik Google-ek.

# RSSak indarra galdu duelako itxi omen zuten Reader

**J.B** | ARRASATE
Bertan behera dago Google-en Reader RSS irakurgailua. Orain arte zergati jakinik ez da eman baina Richard Gringras Google-eko zuzendaritako batek eman ditu azalpenak azkenean.

Gringrasek dio aldatu egin dela Interneten albisteak kontsumitzeko modua eta horregatik eten dutela Reader, nagusiki. Hark dioenez, RSSak indarra galdu du modu pasiboan kontsumitzetik erabiltzaileak informazioa aktiboki partekatzen hasi direlako. Antza, nahiago dute sare sozialetan indarra egitea. Kontsumo euskarrien aldaketak ere eragina izan duela dio Gringrasek eta informazioa mugikor eta tabletetan kontsumitzen dela orain.

### Erabiltzaile gutxi

Azalpen horien guztien atzean baliteke Google Reader-en berezko erabiltzaile kopuru txikia ere egotea. Google Plus eta aurreko ekimen sozialekin ez zuten asmatu eta agian horregatik egozten diete erabiltzaileei pasibo izate horren ezaugarria. RSSek indarra galdu badute ere, jarraipenerako tresna ezin hobea izaten jarraitzen dute jarioek. Sare sozialen indarra eta eragina, zalantza barik nabaria da informazioa zabaldu eta kontsumitzeko aldaketetan.

## Firefox berria udazkenean egongo da eskuragarri

Hurrengo bertsioarekin, 24 dira jada, goitik behera aldatuko da Firefox nabigatzailearen diseinua. Urrian egongo da martxan eta *Australis* izena ipini diote. Aurreratu dutenez nabigatzaileak disenu soilagoa izango du eta Chrome-en estilorantz joko du. Itxaroten ez egoteko bertsio berezi bat dagoeneko eskuragarri ipini du Mozilla-k.

## Vine bideo aplikazioa jada Android-erako ere jaits daiteke

Twitter-ek bideoa partekatzeko duen aplikazio osagarria orain arte iOS-entzat soilik egon da prest. Jada, Android sistema eragilea darabilten erabiltzaileek ere deskargatu eta erabili ahal izango dute aplikazioa.

Abantaila moduan, zoom-a gehitu diote bertsio honi aukera berri moduan Androideko erabiltzaileek.

## Google bilatzaileak jakiei buruzko elikadura informazioa dakar

Aurrerantzean elikagai ala jaki baten bilaketa egiterakoan emaitzen barruan janariaren nutrizio fitxa ere erakutsiko du Google-ek. 1.000 fruta, barazki, okela eta janariri buruzko informazioa sartu dute datu-basean eta ingelesez aurki daiteke oraingoz. Iturru moduan hainbat webgune erabiltzen dira.

## TELE-BEGI



**OIHAN VEGA**

### Aznar berriro datorrela!

Pasa den astean, Jose Maria Aznar Espainiako presidente ohiak *autoelkarrizketa* bat egin zuen bere telebista kate kuttunean: Antena 3n. Eta zera esan zuen ozenki: "itzuli egingo naiz".

Jainkoak gorde gaitzala, alajaina! Demokrazia batean ideia guztiak errespetatu behar dira, gustatu ala ez, baita eskuin muturrekoak ere, ados. Baina pertsonaia honek nire partetik ez du inolako errespeturik merezi. Gogoan izan bere agintaldian burutu zituen hankasartze guztiak:

*Prestige* (*no comment*), Irakeko gerra, gezur erraldoi baten ondorioz gerra batean sartu gintuen eta 200 hildako eragin zituen Madrileko atentatuetan; gezurretan aritu zirela frogatu arren, inork ez du auzitegietara eramateko potrorik izan.

Egunkaria itxi zuen, eta deliturik egon ez zela frogatu ostean, ez da kalte ordainik egon, ezta barkamen eskakizunik ere. Ikastolak ikertu zituen, ETAren harrobi zirelakoan... eta abar *luuuze* bat.

Hori gutxi balitz, gure diru publikoarekin *Franco Fundazioa* sortu zuen. Zertarako? Jaungoikoak daki.

Galdera bat: zer egin du tipo honek bere bibotearekin. Bibotea du ala ez?

## ASTEA GOIENAN

### GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 10



**Udanako igoera**

Zapatuan Udanan egin zen auto igoeran jasotako irudiak ikusi ahal izango dituzue, besteak beste. | **22:00**

**12:00** Magazinea
**13:00** Gurean gaur
**13:30** Zorion Agurrak
**13:36** Pedalka
**14:06** AsteON
**14:36** Berriak
**15:06** Eguraldia
**15:09** Zorion Agurrak
**15:14** AZK2012
**16:14** Pedalka
**16:44** Zorion Agurrak
**16:49** Berriak
**17:19** Eguraldia
**17:22** Onein
**17:46** Kontzertua: Bakearen doinuak
**19:28** Beranduegi.tv
**19:48** Berriak
**20:13** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**21:00** Gurean gaur
**21:30** Berriak
**21:55** Eguraldia
**22:00** Harmailatik
**22:45** Magazinea
**23:45** Berriak
**00:18** Eguraldia

MARTITZENA, 11



**Jon Goikolea**

Jon Goikolea elkarrizketatuko dugu japoniera-euskara hiztegi azkarra garatu duelaeta. | **20:15**

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:15** Zorion Agurrak
**13:22** Harmailatik
**14:07** Nere herrie
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Harmailatik
**15:58** Onein
**16:25** AsteON
**16:55** Zorion Agurrak
**17:00** Berriak
**17:25** Eguraldia
**17:28** AZK2012
**17:58** Altxorraren bila
**18:26** Zorion Agurrak
**18:31** Beranduegi.tv
**18:56** Harmailatik
**19:41** Zorion Agurrak
**19:46** Berriak
**20:11** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**20:58** Gurean gaur
**21:28** Huhezinema
**21:58** Berriak
**22:23** Eguraldia
**22:28** Magazinea
**23:13** Klaketa
**23:53** Berriak

EGUAZTENA, 12



**Hortz kontuak**

Haurdun dauden emakumeendako hortz azterketak egiteko kanpaina izango dugu berbagai. | **19:47**

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:18** Harmailatik
**14:03** Pedalka
**14:33** Zorion Agurrak
**14:40** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:08** Klaketa
**15:48** Onein
**16:13** Harmailatik
**16:58** Huhezinema
**17:28** Zorion Agurrak
**17:33** Berriak
**17:58** Eguraldia
**18:00** Ur eta lur
**18:30** Harmailatik
**19:15** Zorion Agurrak
**19:19** Berriak
**19:44** Eguraldia
**19:47** Magazinea
**20:32** Gurean gaur
**21:02** AsteON
**21:32** Berriak
**21:57** Eguraldia
**21:59** Magazinea
**22:44** Harmailatik
**23:29** Berriak
**23:54** Eguraldia
**23:57** Magazinea
**00:36** Berriak
**01:01** Eguraldia

EGUENA, 13



**'Berriak'**

Eguneko albiste esanguratsuenak jasoko ditugu Monika Belastegiren eskutik, albistegien saioan. | **14:45**

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:10** Huhezinema
**13:40** Nere herrie
**14:10** Onein
**14:46** Zorion Agurrak
**14:49** Berriak
**15:14** Eguraldia
**15:17** Kontzertua: Bakearen doinuak
**17:00** AZK2012
**17:30** Berriak
**17:55** Eguraldia
**17:58** Onein
**18:24** Planik bai?
**18:44** Huhezinema
**19:14** Zorion Agurrak
**19:19** Planik bai?
**19:44** Zorion Agurrak
**19:50** Berriak
**20:15** Eguraldia
**20:18** Magazinea
**21:03** Gurean gaur
**21:53** Pedalka
**22:23** Planik bai?
**22:43** Berriak
**23:08** Eguraldia
**23:11** Magazinea
**23:56** Klaketa
**00:13** Eguraldia

EGUBAKOITZA, 14



**'AsteOn'**

Debagoienean aste guztian zehar gertatutako albiste garrantzitsuenak errepasatuko ditugu. | **22:00**

**12:00** Planik bai?
**12:20** Magazinea
**13:05** Gurean gaur
**13:30** Onein
**13:57** Pedalka
**14:25** Planik bai?
**14:45** Zorion Agurrak
**14:50** Berriak
**15:15** Eguraldia
**15:18** Planik bai?
**15:38** AZK2012
**16:08** Altxorraren bila
**16:36** Beranduegi.tv
**17:01** Zorion Agurrak
**17:07** Planik bai?
**17:27** Berriak
**17:52** Eguraldia
**17:55** Planik bai?
**18:15** Altxorraren bila
**18:43** Zorion Agurrak
**18:49** 28.Klip
**19:19** Beranduegi.tv
**19:44** Zorion Agurrak
**19:49** Berriak
**20:19** Eguraldia
**20:22** Planik bai?
**20:42** Gurean gaur
**21:07** Ikusmira
**21:30** Pedalka
**22:00** AsteON
**22:30** Berriak
**22:55** Eguraldia
**22:58** AsteON
**23:28** Planik bai?
**23:48** Berriak

### ARRASATE IRRATIA

**Disko sorta zozketatuko dugu Arrasate Irratian**

Aste honetako egubakoitzeko zozketan disko sorta bat zozketatuko dugu gure entzule guztien artean. Zozketa horretan parte hartu nahi duzuenok, deitu 943 25 05 05 telefonora edo bestela idatzi *irratia@goiena.com* helbidera. Parte hartu gure zozketan eta zorte on, entzule!

**Fibrosi kistikoa gaixotasuna izango dugu berbagai**

Arnasa, Gipuzkoako Fibrosi Kistikoaren elkarteko bi kide izango ditugu 107.7ko uhinetan; Fernando Markina eta Mikel Amundarain. Biek dituzte fibrosi kistikoa duten umeak eta euren esperientzia kontatzeaz gain, elkartearen berri emango digute gaur, astelehena, 11:00etan.

**Domekako haur dantzarien eguna izango dugu berbagai**

Domeka honetan, hilak 16, haur dantzarien eguna ospatuko da Arrasaten. Egun horretan dantzariek egingo dutenaren berri emango dizuegu eta egun horren harira antolatu diren ekitaldiak zeintzuk diren ere jakin ahal izango duzue Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* irratsaioan.

## TELE-ALBISTEAK

# Alpeetako beste txoko batzuk ikusgai eguenean, 'Pedalka'-n

Julen Iriondo kazetariak oraingoan Vars mendatea igoko du eta Barcelonnette herria bisitatuko du



Julen Iriondo Vars mendatean. | JULEN IRIONDO

**AMAIA TXINTXURRETA** | ARRASATE

Pixkanaka aurrera doa Julen Iriondok Alpeetara egindako bidaia. Eguenean, hilak 13, saioaren beste atal bat ikusteko aukera izango duzue, eta horrekin batera, Alpeetako paisaiez gozatu ahal izango duzue, beste behin.

Aurreko asteko atalean ikusi genuen Vars mendatea igotzen hasi zela Iriondo. Bada, aste honetakoan, mendatea igotzen amaituko du.

Horrez gain, Barcelonnette herria ere bisitatuko du Iriondok. Barcelonnette Frantzian dago, baina bertako etxe asko Mexikoko etxeen itxurakoak dira eta inguru berezian dago kokatuta. Ubaye izeneko bailaran dago Barcelonnette, Alpe Frantsezen hegoaldean, eta 1.132 metrotako garaieran kokatuta dagoen herria da. Han bizitakoak ikusi ahal izango ditugu saioan.

**Eguenean, 21:53an**

*Pedalka* saioa eguenean 21:53an ikusi ahal izango duzue Goiena telebistan.

# Aste honetan ere gai ugari landuko ditugu 'Magazinea' saioan

Gaur, astelehena, Goienako lehendakaria eta lehendakari ohia izango ditugu, 20:15ean

**A.T.** | ARRASATE

Goienak lehendakari berria du. Eguenean egin zuten urteko batzar orokorrean Estepan Plazaola orain arte presidente izandakoak kargua utzi zuen eta haren ordez Aitor Izagirre arrasatearra izendatu zuten komunikazio taldeko lehendakari.

Txomin Madinak aurkeztutako saioan, Plazaola eta Izagirre izango dira gaur. Plazaolak kontatuko digu nola bizi izan duen lehendakari izatea eta Izagirrek kargu berria zein gogorekin hartu duen kontatuko digu, besteak beste.

Astelehenetan egiten dugun bezala, tertuliarako tartea ere izango dugu gaurkotasuneko gaiei buruz hitz egiteko. Gaur Aitor Guridi oñatiarra eta Aitor Agiriano eskoriatzarra izango ditugu solaskide.

**Bestelako gaiak**

Bihar, martitzena, Jon Goikolea elkarrizketatuko du Madinak japoniera-euskara hiztegiari buruz. Eta ondoren, ekonomia tartea ere izango da. Eguazteneko osasun tartean haurdun dauden emakumeendako hagin azterketak doan egiteko kanpaina izango dugu hizpide.

## ZORION AGURRAK



OÑATI
**Aitana Estomba Gezalaga**
Ekainaren 15ean, 3 urte. Zorionak, Aitana. Zure aitatxo Xabier, amatxo Olatz, aiton-amona Miguel, Anjel, Arantxa eta Pilar eta osaba-izeba Joxean, Alazne eta Marianjeles.



OÑATI
**Julen Sagastume Barrena**
Ekainaren 14an, urtebete. Zorionak, potxolo! Segi horrelako txintxo eta grazioxo. Muxu handi bat aitatxo, amatxo eta amamaren eta, bereziki, zure arreba Aneren partetik.



OÑATI
**Anje Arlanzon**
Ekainaren 14an, 8 urte. Etxeko txapeldunak 8 urte egiten ditu! Zorionak eta muxu potolo bat amatxo, aitatxo eta Maddiren partetik.



BERGARA
**Paulo Elkoroberezibar Belastegi**
Ekainaren 9an, 5 urte. Zorionak eta muxu potolo bat etxeko guztien partetik. Eta berezi-berezia Txinako tia Anaren partetik.



ARRASATE
**Ainhoa Caballero Agra**
Ekainaren 13an, 4 urte. Familia eta lagunen partetik, zorionak eta muxu handi bat!



ESKORIATZA
**Ane Sanz Eraña**
Ekainaren 13an, 3 urte. Zorionak, sorgintxo! Ondo pasatu zure urtebetetzea. Patxo asko eta besarkada handia etxeko danon partetik.



ARRASATE
**June Barandiaran Garai**
Ekainaren 13an, 3 urte. Izugarri ondo pasa dezazula zure urtebetetze egunean. Muxu eta besarkada handi bat etxeko denon partetik.



OÑATI
**Imanol eta Miren Astudillo**
Ekainaren 13an, 3 urte. Zorionak, bikote eta muxu handi-handi bat famlixaren partetik. Ondo-ondo pasatu zuen eguna.



ANTZUOLA
**Amets Arrizabalaga Zubikarai**
Ekainaren 11n, 2 urte. Zorionak, potxolo! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat etxeko danon partetik.



ARETXABALETA
**M. Angeles Altube**
Ekainaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak, tia! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta muxu potolo bat, "tita"!



ESKORIATZA
**Xuban eta Juan Luis Markaide**
Ekainaren 10ean Xubanek 3 urte eta bere aitatxok... ixilixen gordekou, ezta? Muxu potolo bana etxeko guztien partetik. Muak!



OÑATI
**Arantxa Zubia Azkargorta**
Ekainaren 10ean 63 urte. Zorionak, 'Antxa'. Ondo pasatu eguna fa- miliakoen artean. Be- sarkada asko estimatzen zaituen familiako baten partetik. Muxu handi asko, Arantxa!



ESKORIATZA
**Gari Sanchez Vivar**
Ekainaren 9an, 2 urte. Zorionak, artista, *guapo*...! Egun zoragarria izan. Mila muxu eta besarkada.



ARAMAIO
**Hegoa Bengoa Gomez de Segura**
Ekainaren 8an, 3 urte. Zorionak, Hegoa! Hiru urte ein ditxuzu eta sorgin ederra einda zaz! Asko maitxe zaitxugu! Zorionak Ilargi, aitatxo eta amatxoren partetik!



OÑATI
**Aner Guridi Arriaran**
Ekainaren 8an, 4 urte. Zorionak, polittori! Ondo pasatu zure egunian! Eta muxu handi bat aitatxo, amatxo eta Eleneren partetik.



BERGARA
**Paule Kalboetxeaga Arriaran**
Ekainaren 6an, 6 urte. Zorionak, politxoi! Patxo pillia danon partetik!



OÑATI
**Ekain Zabaleta eta Felisa Beitia**
Ekainek, 7 urte beteko ditu ekainaren 8an eta Felisak 67, ekainaren 9an. Zorionak gure etxeko mutil txintxo eta futbolari bikainari eta baita munduko amama onenari ere. Igandean ederki ospatuko dugu elkarrekin. Muxu potolo pila bat zuentzako familia guztiaren eta, bereziki, Helene, Izaro, Aiuri eta Nahiaren partetik.



OÑATI
**Maren Agirre Zoilo**
Ekainaren 6an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Muxu potolo bat Leire eta Nereaen partetik!



ARRASATE
**Alazne Murgiondo eta Julen Aranburuzabala**
Alaznek ekainaren 5ean eta Julenek ekainaren 8an, urtetxo bat. Etxekoen partetik zorionak eta ondo pasatu eguna. Bereziki Naia eta Markelen partetik muxu handi bana!



ARRASATE
**Irati Agirre Uranga**
Ekainaren 5ean, 9 urte. Zorionak, txapeldun, etxeko guztion partetik.



OSINTXU
**Uxue Zubizarreta eta Auritz Laskurain**
Osintxuko Auritz Laskurainek 2 urte bete ditu ekainaren 5ean eta Uxue Zubizarretak 10 urte beteko ditu ekainaren 12an. Zorionak bixoi eta urte askotarako danon partetik eta Oierrek muxu potolo-potolo bat. Mua!



BERGARA
**Alatz Etxebarriarteun**
Ekainaren 5ean, 23 urte. Zorionak, *Sandalio*, eta urte askotarako! Kuadrillakuak.



ARRASATE
**Uxue Barrutia Ezpeleta**
Ekainaren 4an, 10 urte. Kaixo, *guapa*! Zorionak eta ondo pasatu zure urtebetetzean. Familia eta lagunen partetik. Disfrutatu!



OÑATI
**Julian Diaz**
Ekainaren 1ean, urtebetetzea. Zorionak zure anaien partetik. Muxuak.

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.
Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Sar zaitez *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera.

**Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.**

**Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**

OROIGARRIA

## Karlos Ezkibel Urtaza



Arantzazu Ezkibel Artemaneko lankidearen aita

Arrasaten hil zen 2013ko ekainaren 8an.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

arteman KOMUNIKAZIOA

**Arteman.**
**Aretxabaletan, 2013ko ekainaren 10ean.**

OROIGARRIA

## Karlos Ezkibel Urtaza



Arantzazu Ezkibel Goienako lankidearen aita

Arrasaten hil zen 2013ko ekainaren 8an.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

goiena

**Goiena.**
**Oñatin, 2013ko ekainaren 10ean.**

HILETA

## Karlos Ezkibel Urtaza



Arrasaten hil zen 2013ko ekainaren 8an.

Haren aldeko meza gaur izango da, astelehena, 19:00etan, Oñatiko San Migel parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.**
**Oñatin, 2013ko ekainaren 10ean.**

OROIGARRIA

## Juan Carlos Igartua Moiua



Oñatin hil zen 2013ko ekainaren 8an, 51 urte zituela

*Zure umorea eta lankidetza beti izango ditugu gogoan*

**Aloña Mendi K.E.**
**Oñatin, 2013ko ekainaren 10ean.**

OROIGARRIA

## Juan Carlos Igartua Moiua



Oñatin hil zen 2013ko ekainaren 8an, 51 urte zituela

*Zure koadrilakook ez zaitugu inoiz ahaztuko*

**Koadrila.**
**Oñatin, 2013ko ekainaren 10ean.**

OROIGARRIA

## Jesus Arregi Irastorza



2013ko ekainaren 7an hil zen, 67 urte zituela

*Eskerrik asko bizitzan eta gaixotasunean erakutsi dozun alaitasunagatik.*

**Zure familia eta lagunak.**
**Antzuolan, 2013ko ekainaren 10ean.**



**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
**Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.**
Eskelaren prezioa: 130 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.
**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

## JAIOTAKOAK



### Ekain Akizu Bilbao

Bergara. 4,030 Kilo. Maiatzaren 25a. Gurasoak: Iñaki eta Ekiñe. Argazkian, Ekain bere arreba Laidaren besoetan.



### Danel Garcia Segovia

Arrasate. 3 Kilo. Ekainaren 4a. Gurasoak: M. Carmen eta Mikel. Argazkian, Danel gurasoekin.



### Ainize Garrido Igartua

Eskoriatza. 2,680 Kilo. Ekainaren 3a. Gurasoak: Aiora eta Borja. Argazkian, Ainize amaren besoetan.



### Unax Gainzarain Telleria

Beasain. 3,600 Kilo. Maiatzaren 27a. Gurasoak: Aloña eta Arkaitz.. Argazkian, Unax gurasoekin.



### Jone Rivera Iñarra

Bergara. 2,970Kilo. Ekainaren 3a. Gurasoak: Maite eta Angel. Argazkian, ahizpa Ainhoarekin.



### Alain Rodriguez Arca

Aretxabaleta. 3 Kilo. Ekainaren 5a. Gurasoak: Yanet eta Salvador. Argazkian, Alain jaioberria lotan.



### Ander Txurruka Jauregi

Bergara. 3,200 Kilo. Ekainaren 6a. Gurasoak: Oihana eta Enrike. Argazkian, Ander jaioberria gurasoekin.

## Jaio da!



**Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.**
**Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAren ordezkaritza batera.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## AI, ENE!

### Naturak ere, tarteka, erakusten du umorea



Argazkiko txakurrari ez zaio margorik erori, horrela jaio omen zen. Zein izen jarri dion jabeak? *Hulk*. Batzuek ez dute kupidarik...
**www.abc.es**

## AHOBERO

### "Ezin dezakegu esan Europar Batasunean lan egitea kanpoan lan egitea denik"

ESTEBAN GONZALEZ PONS | PP-KO KIDEA

Enrico Letta Italiako lehen ministroak lanera atzerrira joan behar izan duten gazte italiarrei barkamena eskatu eta biharamunean esan zituen hitzok Gonzalez Ponsek. Izan ere, badakigu gauza bera dela lan bila alboko herrira edo Suediako azken muturrera joatea.
**www.elpais.com**

## EGURALDIA

Max. 19º

Min. 12º

Eguraldia hobetuz joango da eta arratsaldean tarteka giro eguzkitsua izango dugu.
**euskalmet.net**

ASTELEHENEKOA

goiena"

2013-06-10

## HAMARREKOA

**Anjel Lertxundi** Euskal idazle esanguratsu eta sarituenetakoa, iaz argitaratu zuen 'Paper festa. Minimalia' liburua da bere lanen zerrenda luzeari, momentuz, egin dion azken ekarpena | TXOMIN MADINA

# "Idazle batentzat, egin duen guztia, beti da porrota"

**1. Zer nolako idazlea iruditzen zaizu Anjel Lertxundi?**
Asko hobetu daitekeen idazle bat. Idazle batentzat, egin duen guztia, beti da porrota. Horregatik segitzen du idazten, bere lana hobetu gura duelako eta lortuko ez duen maila lortu gura duelako.

**2. Gaztetxotatik ei duzu zure burua idazletzat.**
Arazo fisikoengatik ez nuen aukera gehiegi kirolik egiteko eta liburuetarako zaletasuna azkar piztu zitzaidan. Irakurtzen nuen hura imitatu gura nuen; liluratzen ninduten gauzak kontatzeko aukera ba ote nuen.

**3. Azken liburua mikrokontakizunek osatutakoa da. Beti formatu berriak esploratzen?**
Mikrokontakizunak lehen ere eginak nituen, baina ez oraingoan legez. Gero eta gehiago interesatzen zait fragmentuen mundua, horiez osatutako ikuspegia.

**4. Testuari hitzak jartzea edo hitzak kentzea, zer da errazagoa?**
Testuari hitzak jartzea oso erraza da; zure lanean eskarmentu apur bat baduzu, erraza da gauza asko esatea gero gutxi esateko. Zailena da paperontzia alboan duzula idaztea.

**5. Eta nola geratzen da bat lan baten azken hitza idaztean?**
Hustuta; pentsatuz egindako lana ezingo duzula berriz errepikatu eta beste liburu bat egiteko kemena izango duzun zalantzan jarriz.



AGM

**6. Maiz elkartzen zara irakurle taldeekin. Beharrezkoak dituzu?**
Beharrezkoak ez; ez zeudenez, 30 urte egin ditut horrelako tertulia literario barik. Baina orain oso ondo datozkit, irakurleen ahotsa entzun eta horrelakoak antolatzen dituztenei esker ona adierazteko.

**7. Irakasle izan denaren ikuspegitik, nola dago egun irakaskuntza?**
Gauza bat gertatu da: mundu guztiari bermatzen zaio ikasteko eskubidea, eta hori berez ona da; baina ekarri du eskolak ugaritu beharrean, masifikatzea. Horrela oso zaila da irakaskuntza pertsonalizatua, hurbila eskaintzea.

**8. Bere garaian bi pelikula zuzendu zenituen. Zergatik ez gehiago?**
Bietan jardutea oso zaila delako eta orduan ere argi ikusten nuelako nirea idaztea dela. Zinemak erabat zurrupatzen zaitu eta aukeratu egin behar izan nuen.

**9. Internet izendatu zenuen Euskal Herriko zortzigarren lurraldea. Nola dago egun probintzia hori?**
Nahiko osasuntsu; ia egunero sorpresaren bat aurkitzen dut. Baina gehiago egin daiteke; uste dut kazetaritzak oraindik ere baduela behar adina betetzen ez duen toki bat.

**10. Orion jaio, Zarautzen bizi... Badaezpada, itsasertza beti gertu?**
Bizitzaren kasualitateengatik nago Zarautzen; baina egia da egun batzuk itsasoa ikusi gabe nagoenean faltan botatzen dudala.

### MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

**"Beragan sinesmena berreskuratu"**

"Haurra nintzen garaian makila magikoetan neukan sinesmena berreskuratuko nuke. Ilusio hori berreskuratzeak makila erabilita gauza asko zuzentzea ahalbideratuko lidake".

## BIHARAMUNA

XABIER ZUBIZARRETA



### Zurrunbiloan

Nondik hasi gaurkoan? Hasieratik izan behar, noski! Eta hementxe nabil, zurrunbiloaren hasiera non ote dagoen asmatu ezinik.

Ameriketan, telefono deien erregistro galaktiko bat osatzen dabiltzala, egunean 600.000 telefono dei erregistratuz (eta tratatuz, diot) ; Euskal Herrian, 350.000 langile, uztailaren 8tik aurrera lan hitzarmenik gabe gera daitezkeela; pentsioen inausketa garaia heldu dela eta (pentsiodunok) greba orokorra egiterik ez dugula izango; Garoña agian ez dutela itxiko; lehertu arte!? 40 euskal militante 35/02 sumarioan *epaituko* dituztela, herriko tabernetara joaten zirelako; eliza katoliko, apostoliko eta erromatarraren eragina, hain aspalditik futboleraino heldua zela ohartu eta gero (San Mames zaharra *katedrala* izan bada, berria zergatik ez *unibertsitatea*!?); Ipar eta Hego Korea mahai baten bueltan eseri behar direla irakurri eta gero (hirugarren Mundu Gerra sortu behar zutenak hitz egiten hasteko, aizue!!).

Euskaldunok ere badugu Ipar eta Hego?! Zergatik ez bildu, Faisanen Irlatxoan jo dezagun (ordezkariek dietarik kobratu gabe bada, hobe!) eta Euskal Herri osorako eguna urriaren 25a ordez, abenduaren 3a izendatu!? Zurrunbiloan sartu gara; baina atera? Denok batera izan beharko da.

